

SOFIA PETROVNA

Lidia Txukovskaia

Itzulpena:
Josu Zabaleta



katakarak
liburuak

Katakrak argialetxean lizentzia askeen aldeko apustua egin dugu, horregatik kopiatu eta zabal ditzakezu gure liburu gehienak. Lizentzia hauek kultura zabaltzeko tresna onena dela uste dugun arren, tamalez, gure liburu guztiek ez daukate Creative Commons lizentzia, nahiz eta gehienek hala duten.

Gaur egun, teknologien garapenari esker fitxategi digitalen kopia pribatuak egitearen kostua doakoa da, horrek kulturaren irisbide demokratikoan aurrerapen handia ekar dezake.

Halere, liburuak digitalki doan egon daitezen kostu handia izan dute aurretik. Lagun askoren lana dago atzean eta diru inbertsioa (eskubideen erosketa, itzulpena, diseinua, maketa lanak eta edizioa). Horregatik, gure testuak libreki eskuragai egon daitezen laguntzeko emaitza bat egin dezazun nahi genuke.

Lidia Txukovskaia

SOFIA PETROVNA

Lidia Txukovskaia

SOFIA PETROVNA

Itzultzailea:
Josu Zabaleta

Jatorrizko izenburua (1940): *Софья Петровна*

Lehenengo edizioa: *Sofia Petrovna*

Egilea: Lidia Txukovskaia

Jatorrizkoaren lizentzia: Lidia Chukovskaya's Russian text copyright

© by Dmitry Chukovsky, 2019. Basque publishing rights are acquired via FTM Agency, Ltd., Russia, 2019

Barruko argazkiaren egilea: Viktor Bulla

Barruko argazkiaren lizentzia: Jabetza publikoa

Itzulpena: Josu Zabaleta Kortaberria

Azalaren diseinua eta azken oharreko marrazkia: Koldo Atxaga Arnedo

Lehenengo edizioa: 2019ko otsaila

Edizioa eta maketazioa: **Katakarak Liburuak**

Kale Nagusia 54-56

31001 Iruñea

argitaletxea@katakarak.net

www.katakarak.net

@katakarak54



Liburu honek Creative Commons lizentzia bat dauka. Aitortu-EzKomentziala-LanEratorririkGabe 4.0. Nazioartekoa. Askatasuna duzu lan hau kopiatu, zabaldu eta jendartearen erakusteko beti ere asmo komertzialik gabe. Obra honetatik ezin da beste ezein lan eratorri.

ISBN: 978-84-16946-30-3

Lege gordailua: NA 516-2019

Inprimatzailea: Alzate Grafikak

AURKIBIDEA

ARGITALETXEAREN OHARRA	11
1	19
2	27
3	33
4	41
5	47
6	55
7	61
8	69
9	75
10	87
11	95
12	107
13	119

14	123
15	129
16	135
17	141
18	147





ARGITALETXEAREN OHARRA ORDU TXIKITAN ETORRI ZIREN

*Gau hartan, elurtutako neguaren egunsenti hartan,
alderdiaren alde hil nendin agindu izan balidate, eta
ez behin, baizik eta hiru alditan, inolako zalantzarik
gabe egingo nuke. Ez nuen inolako zalantzarik alder-
diaren lerroaren zuzentasunari buruz.*

Evgenia Ginzburg¹

*Emakume hau gaixo dago,
emakume hau bakarrik dago,
Semea kartzelan dauka eta senarra lurpean,
pentsa ezazue berarengan zeuon otoitzetan.*

Anna Akhmatova²

1937-1938an milaka lagun desagerrarazi zituen
NKVDak³ Sobietar Batasunean. Anna Akhmatovaren

1 Evgenia Ginzburg, *Le vertige*, Éditions du Seuil: 1997 Paris.

2 Anna Akhmatova in Andoni Arcilla, *Hilkorra ez banintz*, Gaztelupeko Hotsak: 2011 Soraluze.

3 Barne Arazoetarako Nazio Batzordea (NKVD) 1934an sortu zuten polizia politikoa izan zen, GPU erakundearen ondorengoa. Hiru zuzendari izan zituen (Genrikh Iagoda 1934-1936, Nikolai Jezhov (1936-1938) eta Lavrenti Beria (1938-1946)). Paper nabarmena izan zuen bai Purga Handian, baita 1937-1938ko Terrore Handian ere. Bigarren Mundu

semea berriro ere atxilotu zuten, baita Nikolai Punin bere hirugarren senarra ere. Gainera, bere lagun Osip Mandelstam iragaitzazko esparru batean hilko zen. Akhmatova zuzenean ukitzen zuen errepresioak. Bere bakardadean hasi zen *Requiem* poema osatzen, buruz ikasten zuen eta lagunei erreztatzen zien⁴.

Poema suntsitzaile horren prosazko aldaera izan daiteke aurki irakurriko duzun *Sofia Petrovna*. Akhmatovaren konfidentea izan zelako Lidia Txukovskaia. Batak bestearen testuak ikasten zituen buruz. Ohitura bihurtu zen Jezhov eta Beriak interbenitutako SESBean. Poema bat paper puska batean idatzi, lagun bati irakurtzeko eman eta, ostean, poetak papera erre egiten zuen. «Erritual bat bezalakoa zen» zioen Txukovskaiak (1966): «Eskuak, pospoloak eta hautsontzi bat. Erritual eder eta mikatz bat».⁵

Nina Gagen-Torn poeta eta etnografoak idatzi zuen 1937an bera eta bere ziegakidea gai zirela Nikolai Nekrasoven *Emakume errusiarra* ia osorik erreztatze-ko: bi mila bertsoetako poema bat zen. Nekrasovek XIX. mendeko Iraultza Dezenbristan parte hartzeagatik Siberiara egotzitako bi presoren emazte aristokraten istorioa kontatzen zuen. Hamar urte beranduago, bigarren goz espetxeratu zutenean Gagen-Tornek Blok, Puxkin, Mandelstam, Gumiliov eta Tiutxev ikasi zituen buruz. Goizero, beste presoek errezita zezala eskatzen zioten. Eta testuak ahots gora birsortzean, «bazirudien norbaitek leihoko hautsa garbitzen zuela esponja heze batekin: denen begiek argiagoak ziruditen».

Gerraren ostean, Barne Arazoetarako Ministerioa (KGB) izan zuen oinordeko. 1953ra arte Beria izan zuen buru eta heriotzera zigortu zuen Pavel Batitskik, Nikita Krutxevren aginduz.

4 Sophie Benech in Anna Akhmatova, *Requiem*, Éditions Interférences: 2005 Paris. 9.-15.or.

5 Robert Chandler in Askoren Artea, *The Penguin Book of Russian Poetry*, Penguin: 2015 London. XIII.-XIX.or.

Zergatik ekarri Txukovskaia

Josu Zabaletak, itzultzaile izateaz gainera, Txukovskaiaren –eta bere garaiko Errusiako literaturaren– enbaxadore lanak egin ditu guretzat. Lan diplomatiko horretan ari zela, hiru arrazoi nabarmendu zizkigun errusieratik paperera ekarritako autoreen zerrendara (Fedor Dostoievski, Lev Tolstoi, Nikolai Gogol, Leonid Andreiev, Mikhail Sholokhov, Isaak Babel, Andrei Platonov, Sergei Dovlatov, Vladimir Maiakovski) Txukovskaia gehitzeko.

Bat: Sofia Petrovna badu Terrore Handiari buruzko gainontzeko literaturarekin alde bat: kontatzen den garaian garaikidea da⁶. Ez da ostean idatzitakoa. 1939an bertan idatzi zuen, senarra fusilatu berritan. Garaikidea den eleberri bakarra ez bada bakarretakoa izango da. Sofia pertsonaia Anna Akhmatovaren irudian dago oinarritua ziurrenik. Burokrazia errepresiboaren ilaran egiten zuten topo Txukovskaiak eta poetak. «Posta-harremanik gabe hamar urtez» kondena fusilatuta esan nahi zuela ez zekiten garaia zen hura. Handik urte batera Txukovskaiaren aitak jakin zuen eufemismo administratibo hark «fusilatu» esan nahi zuela.

Txukovskaia Kornei Txukovskiren alaba zen. Txukovski Gorkiren lankidea zen. Txukovskik eta Gorkik jarri zuten martxan SESBeko nazioarteko literaturen itzulpen proiektua. Eta haur-literaturako ekoizpena abiatu zuen Marxak itzulpenaren teorilaria-ekin. Marxak, gainera, Txukovskaiaren lankidea izan zen haur-literatura lantzen zuen argitaletxe batean

6 «Nahiz eta etorkizuneko kontakizunek eta txostenek meritu handiak izan, beste garai batean idatziak izan dira, 1937tik bereizita egongo dira hamarkada batzuetan. Ordea, nire lanak gertakizunen arrastoa nire buruan fresko zegoela idatzi nituen. Hori da nire kontakizunaren eta 1937-1938 urteak landuko dituzten gainontzekoen arteko aldea. Horretan datza, nik uste, irakurlearen atentzioa jasotzeko eskubidea». idatzi zuen Txukovskaiak berak 1962an, liburua argitaratzeko inolako itxaropenik ez zuenean.

–eleberrikoaren antzekoa izan zitekeen giro batean–. Txukovskitarrek Leningradeko intelektual ezagunekin zuten harremana. Eta ordea, fikziozko lan hau, nobela hau, ez da Solxenitsinen gisakoa. Ez da panfleto bat eta ez dago moralageriko bat. Errepresioa narratibatik lantzen da: aleatoriotasunaren izua kontatzen da. Bi: Txukovski eta Txukovskaia aita-alabek sarritan aztertu zituzten egitura literarioak. Horren isla da Txukovskaiak idatzi zuen *Erredakzioaren laborategia* liburua, adibidez. Eleberri hau erabat lineala da. Artifiziorik ez da ikusten. Baina artifiziorik gabe ez dago literaturarik. *Sofia Petrovna* beldurra duen gizarte bat irudikatzen da. Tartean ezagutuko ditugu bizi-giroa, lan-baldintzak, errepresioaren teknikak, diskurtso ofizialak, diskurtsoen interpretazio pertsonalak. Gai konplexu bat lantzen du, hamarnaka milaka lagun espetxeratu eta hil ziren une bat eta, ordea, soiltasun erabatekoz, banakotasun handiz dago emana. Errealitatea historiak azaltzen duelako baina nobela batek literaturatik behar du hitz egin, egiantzekotasunetik.

Hiru: Txukovskaiak oso idazkera argia eta soila erabiltzen du, lehen irakurrian ulertzekoa, nahasbiderik gabea. Hain zuzen ere, bere *Erredaktorearen laborategian* liburuan, eleberrietako erredakzioak diharduela, Jules Renarden aipua jasoz dio: «Estilo argia idazlearen kortesia da», eta Txekhoven eta beste hainbaten aipamenak eta aholkuak bilduz, garbi uzten du zein izan behar duten halako obren erredakzioaren ezaugarriek: argitasuna, koherentzia, tautologiarik ez izatea, formalismoei eta beste nahasbideei ihes egitea. «Bestela irakurlearen adimenak ez du bat-batean atxikitzen, eta fikzioa istanteko behar da atxiki, segundo batean. Hala ez bada, irakurleari kosta egingo zaio

ulertzea, eta nekea eragiten duenak norengan izan dezake eraginik?». Ez da gauza segurua, argia eta soila, irakurteraza eta ulertteraza izateko idatzitako testua bestelakoa baino itzulerrazagoa (imitaerrazagoa) izaten denik, baina idazkerari buruz Txukovskaiak duen ikuspegitik abiatuta idatzitako testuak zalantza gutxiago uzten dio itzultzaileari edukiari eta asmoari dagokienez. Txukovskaiak zalantza gutxi uzten du eleberrri honetan adierazteko asmoa duenaz.

Literatura eta terrore hura

Egia da Terrore Handian kokatutako literatura jakin batek literaturaz haraindiko interesak bete dituela Gerra Hotzaren hamarkadetan. Egia den bezala, gaur egun ere, baduela funtzio ideologiko bat kasu gehienetan: edozein hipotesi iraultzaile ala eraldatzailearen kontra jaurtitzeko arma bat izatea. Hala aurki ditzakegu Espainian eta Frantzian «atzerriko literatura» etiketaren baitan ia eskusiboki SESBeko eta Oder-etik ekialdera XX. mendearen bigarren erdian izan ziren errepubliketako miseriak lantzen dituzten lanak. Asoziazio zalantzazko batekin: toki horietako miseria guztiaren erantzulea erregimen politiko-ekonomikoa zela. Eta, ordea, garai berean kapitalismoan bizi ziren herrialdeetako ala beste garai batzuetan «ekialdeko» herrialdeetako miseriak landutako literatur lanetako errealitateek ez omen dute erregimen politiko-ekonomikoekin zer ikusirik. Norbanakoen, komunitateen ala «garai kaskarren» emaitza besterik ez dira. Idatzizko ala ikus-entzunezko fikzioaren erabilera arma politiko gisa, egia estaltzeko, Frantziako inkesta ezagun horretan bezala: 1945ean jendearen hamarretik seik uste zuen naziak garaitzeko lan handiena egin zuen herrialdea SESB izan zela, 2004an

hamarretik bik uste zuten SESB izan zela ahalegin handiena egin zuena, eta, ordea, hamarretik seik AEBen sakrifizioan sinesten zuten. Ryan soldadua salbatuz egiazen kaltetan.

Eta, ordea, jende xehearen istorioak kontatzen dituen bilduma honetan badu tokia Lidia Txukovskaiak; Evgenia S. Ginzburgek, Ekaterina Olitskaiak, Esteban Volkovek, Lev Razgonek, Anatoli Jigulinek, Yevfrosinia Kersnovskaiak edota Varlam Xalamovek izango luketen bezala.

Batetik, beren lanen balio literario soilagatik. Baina, bestetik, injustizia horiek, «ekialdeko» ankerkeria horretan harrapatuta geratu zirenek ere gaurko hipotesi eraldatzaileei uko egiten ez diegunon aitortza merezi dutelako. Ez bakarrik enpatia ariketa gisa, gogoeta gisa ere bai, Sergei Dovlatovek idatzi zuen: «Bai, Stalin kriminal bat izan zen, baina nork idatzi zituen lau milioi salaketa haiek?». Terrore Handia 1938an amaitu zen, 700.000 hildako utzi zituen atzean eta gainera, milaka lagun pasa ziren lan behartuetako esparruetatik, 1939rako errepresioan aritutako erakunde gehienak desagerrarazi ziren eta arduradun asko kargugabetu ala exekutatu zituzten. 1953an Stalin hil ostean Nikita Kru-txevek *desestalinizazio* aldia hasi zuen: esparruak itxiz, terrorearen aldiko zuzendaritza boteretik juridikoki eta fisikoki aldentuz, hildako eta errepresaliatutakoak birgaituz, e.a.

Esan bezala, literaturarik aparte, mundua irauli nahi duen orori interesatu beharko litzaizkioke garaitu duten iraultzen osteko miseria eta ankerkeriak. Eta ez hipotesi kapitalistak zapalkuntzok erabiltzen dituen bezala: eraldaketa ez abiatzeko xantaia gisa, izozteko arma gisa.

Kolymakoa ez da meridiano bakarra

NKVDren terroreari buruzkoa da eleberri hau. Eta, ordea, irakurleak detektatuko du *Barrura begiratzeko leihoak* dokumentalean, Euskal Herriko atxiloketa masibo eta arbitrarioez Laura Mintegik aipatzen duen «loteria makabroa»rekin badirela analogiak.

SESBen kokatua dago nobela hau, baina urtero hiltzen dira milaka lagun Mediterraneoan. Eta ez dago, oraingoz, «literatura bat» Kolymako lan esparruez egon zenaren parekoa. 41 milioi pobre dago AEBetan, kalearen, isunen eta kartzelaren artean. Haiek ere ez dute «literatura bat».

XX. mendean kokatuta dago nobela hau baina atzerritarrentzako zentro itxietan hamarnaka milaka lagun daude Espainian, Italian, Frantzian, Ameriketako Estatu Batuetan. Haurrak, adin txikikoak, helduak. Amak eta aitak. Infernu burokratikoetako egungo heriotzen berri ez zaigu «posta-harremanik gabe hamar urte» gisa aurkezten. Esaten digute «bere buruaz beste» egin zuela, ala «heriotza naturala» izan zuela, ala «zaintzaileen axolagabekeriarengatik», ala beren gorputzak ez zirela gainean zeuzkaten polizia agenteen pisua jasateko gai izan. Beren izenak ez ditu inongo potentzia atzerritarrek bere bataila politikoa-ren mesedetan erabiltzen.

Aramis Manukyan, Idrissa Diallo, Mohamed Abagui, Jonathan Sizalima, Samba Martine, Osamuyi Akpitaye, Elhadji Ndiaye, Amadou Wade, Mor Sylla, Mmame Mbage. Sofia Petrovna gaur ari da bigarrenetz errari, Europa osoko migrazio bulegoetan, komisarietan, zentro itxietan, kartzeletan, nerabeentzako kartzeletan, marrubi zelaietan, Erriberako landetan, Lesbos, Algeciras, Lampedusa, Brindisi, Bari, Va-

lentzia, Ceuta eta Irun. 25.000 hildako azken hiru hamarkadetan Mediterraneoan. Eta milaka esklabo gaurko kontinente zaharrear. Maiakovskiren testamentu poetikoa aldarrikatzen dute: «Bizitza honetan/ hiltzea ez da zaila./ Zailagoa da aunitzez/ bizigintza».⁷ Gelditzen ez den nobela etengabekoa da honakoa tamalez.

Iruñea
2019ko urtarrila

7 Vladimir Maiakovski, *Poemak*, Susa: 1993 Zarautz.

1

Senarra hil ondoren, mekanografia ikastaro batzuetan sartu zen Sofia Petrovna. Lanbide bat lortu beharra zegoen nahitaez: Koliak denbora beharko baitzuen oraindik bizimodua ateratzen hasteko. Eskola bukatuta, goi-mailako eskolaren batera joan behar-ko zuen nola edo hala. Fedor Ivanovitxek ez zukeen onartuko bere semea goi-mailako ikasketak egin gabe geratzerik... Sofia Petrovnari ez zitzaion kostatzen makinaz idaztea; horretan, neska modernoak baino askoz ikasiagoa zen, gainera. Notarik hoberena aterata, berehalaxe aurkitu zuen lana Leningradeko argitaletxerik handienetako batean.

Lanak erabat betetzen zuen Sofia Petrovnaren bizitza. Hilabete baten buruan ezin zuen ulertu ere nola bizi zen lehenago lanik gabe. Egia da ez zela batere atsegina goizeko hotzetan, elektrizitate-indarrezko argitan jaikitzea, hotzik itxarotea tranbiari erdi lotan eta triste zegoen jende artean; egia da idazmakinen errepi-karengatik buruko mina hasten zitzaiola lanegunaren bukaerarako; baina, hala ere, zein atsegingarria, zein interesgarria gertatu zitzaion lan egitea! Gaztetan asko

gustatzen zitzaion lizeora joatea eta negar egiten zuen hotza harrapatuta etxean uzten zutenean; orain pozik joaten zen lanera. Jartzen zuen arretari erreparaturik, berehalaxe izendatu zuten mekanografia-buru, mekanografiako bulegoko buru. Lana banatzea, orrialdeak eta lerroak zenbatzea, orriak jostea, hori dena askoz gehiago gustatzen zitzaion Sofia Petrovnari makinaz idaztea baino. Zurezko leihatila jotzen ziotenean, zabaldu eta duintasunez, berriketa gutxirekin hartzen zituen paperak. Fakturak, planoak, txostenak, gutun ofizialak izaten ziren gehienetan, baina idazle garaikideren baten eskuizkribuak ere izaten ziren batzuetan.

— Hogeita bost minutu barru prest egongo da –esan ohi zuen Sofia Petrovnak, ordulari handiari begiratuta–. Doi-doi. Ez, hogeita bost minutu barru, doi-doi, lehenago ez –eta leihatila ixten zuen, berriketan luzatu gabe. Ongi pentsatu ondoren, lan hartarako egokiena iruditzen zitzaion mekanografoari ematen zizkion paperak; paperak zuzendariaren idazkariak ekarri bazituen, bizkorrenari, ikasienari eta arretatsuenari ematen zizkion.

Gaztetan, Fedor Ivanovitx bisitak egitera luzarorako ateratzen zen egunetan, aspertu egiten zen eta bere jostundegia edukitzeko ametsak egiten zituen. Gela handi, argi batean itxura oneko neska batzuk bilduko ziren, zeta-uhinezko turrusten gainera makurturik, eta berak ereduak erakutsiko zizkien, eta probak egin bitartean andre dotoreekin arraitasunez arituko zen solasean. Mekanografia-bulegoa hori baino ere hobe zen, agian: garrantzitsuagoa, nolabait esateko. Sofia Petrovnari maiz gertatzen zitzaion orain sobietar literaturako obra berriak –kontakizunak edo eleberri luzeak–, eskuizkribuan bertan, irakurtzen lehenengoa izatea, eta, sobietar eleberriak eta kontakizunak asper-

garriak iruditzen bazitzaizkion ere, haietan borrokez, traktoreez, lantegiez asko baina maitasunaz gutxi hitz egiten zelako, lausengatua sentitzen zen hala ere.

Ilea, goizegi zuritzen hasia, kizkurtzen hasia zuen, eta garbitzen zuenean anil pixka bat jartzen zion urari, ilea horitu ez zekion. Txabusina beltz soil batez –baina garai bateko egiazko parpailazko iduna zuen batez– jantzirik, arkatz ongi zorrotza goiko poltsikoan zuela, gogotsu, ganoratsu eta aldi berean dotore sentitzen zen. Mekanografoek beldur pixka bat zioten, eta aristokrata deitzen zioten ezkutuan. Baina obeditu egiten zioten. Eta berak zorrotza baina zuzena izan nahi zuen. Laneko etenaldian adeitasunez hitz egiten zuen arretaz eta hutsik egin gabe idazten zutenekin –zuzen-dariaren idazkera ulergaitzaz, ezpainak margotzeaz, ez baitoakie denei ongi–, baina «repikatu» eta «kolektivo» idazten zutenekin hotz jokatzeko zuen. Nesketako bategi, hala ere, Erna Semenovnak, bere onetik ateratzen zuen: hitz bakoitzeko huts bat egiten zuen, lotsarik gabe erretzen zuen, eta lana egin behar zen garaian berriketan aritzen zen. Erna Semenovnak garai batean beren etxean lan egin zuen neskame lotsagabe bat gogoratzen zion lausoki Sofia Petrovnari. Neskame hark Fany zuen izena, gisagabekeriak esaten zizkion Sofia Petrovnari eta flirtean aritzen zen Fedor Ivanovitxe-kin... Zertarako mantendu horrelako bat?

Sofia Petrovnari, bulegoko mekanografo guztietan, Nataxa Frolenko gustatzen zitzaion gehiena, neska apal, ez oso polit, aurpegia gris-berdekara zuen bat. Akats bat bera ere egin gabe idazten zuen; ertzak eta lerro gorriak harrigarriro ederrak ateratzen zitzaizkion. Haren lana ikusirik, bazirudikeen paper bereziren batean zegoela idatzita, eta haren idazmakina gainerakoak baino hobea zela seguru asko. Izatez, ordea, Nataxaren

papera eta makina, guztiz arruntak ziren biak, eta, ongi pentsatuta, hark jartzen zuen arreta zen sekretu guztia.

Berniz marroiz margotutako zurezko leihatila batek bereizten zuen mekanografia zerbitzua erakundearen gainerakotik. Atea giltzaz itxita egoten zen beti, eta leihatilatik egiten ziren solasaldiak. Hasierako garaietan, bere mekanografoez eta paperak ekartzen zituen bulegoko mandatu-neskaz kanpo, beste inor ez zuen ezagutzen Sofia Petrovnak argitaletxean. Baina poliki-poliki denen ezagun egin zen. Aste pare bat edo joanik izango ziren, eta korridorean kontu-eramailea hurreratu zitzaion hitz egitera, gizon sendo, burusoila, baina gazte itxurakoa: kontua zen ezagutzen zuela Sofia Petrovna, hogeiren bat urte lehenago Fedor Ivanovitxek arrakasta handiz zaindu zuenetik. Kontu-eramailea arraun-kirolen eta Europa mendebaldeko dantzen zalea zen; eta Sofia Petrovnari gustatu egin zitzaion hark beren dantza-taldean izena emateko aholkatu izana. Zuzendariaren idazkaria ere, adin bateko emakume adeitsua, agur esaten hasi zitzaion; langileen sekzioko buruak ere agurtzen zuen, eta baita idazle ezagun batek ere, gizon dotorea bera, buruan kastore-larruzko txanoa eta paper-zorroan monograma bat erabiltzen zuena eta argitaletxera beti bere autoan etortzen zena. Bere eleberriaren azkeneko atala gustatu al zitzaion ere galdetu zion behin idazle hark. «Idazleok aspaldi ohartu ginen mekanografoak direla gure epailerik fidagarrienak. Egia esan –esan zion, irribarrean ordezkio hortz berdin-berdin batzuk erakutsiz–, atze-iritzirik gabe epaitzen dute, ez daude aurrez erabakitako ideiekin itsututa, kamarada kritikariak edo erredaktoreak bezala».

Sofia Petrovnak alderdiko antolakuntza-idazkaria ere ezagutu zuen, Timofeiev, herrena, bizarra

moztu gabea. Gizon zakarra zen, lurrera begira hitz egiten zuen, eta Sofia Petrovna beldur pixka bat zion. Noizean behin Erna Semenovna leihatilara deitzen zion; administratzailea ere harekin etortzen zen; Sofia Petrovna atea zabaltzen zuen eta administratzaileak mekanografia-zerbitzutik departamentu berezira eramaten zuen Erna Semenovna makina. Erna Semenovna garaile-itxuraz joaten zen bere makinaren atzetik: Sofia Petrovna jakinarazi ziotenez, «fidatzeko pertsona» zen, eta alderdiko antolakuntza-idazkariak alderdiko paper sekretuak idazteko eramaten zuen departamentu berezira.

Sofia Petrovna luzera gabe ezagutu zituen argialetzeko gainerako langile guztiak ere, zein bere deituraz, karguz eta aurpegiz: kontu-eramaileak, erredaktoreak, erredaktore teknikoak, bulego-mandariak. Lehenengo hilabetea bukatu zuenean ikusi zuen lehenengo aldiz zuzendaria. Zuzendariaren bulegoan alfonbra iletu bat zegoen lurrian, besaulki sakon, bigunak mahaiaren inguruan eta hiru telefono ere egon zitezkeen mahaiaren gainean. Zuzendaria gizon gazte bat zen, hogeita hamabost urte ingurukoa, ez gehiago, gorpuzkera onekoa, bizarra ongi moztua, traje gris on batez jantzia; bularrian hiru domina zituen eta eskuan luma estilografikoa. Bi minutu inguru egon zen Sofia Petrovnaekin hizketan, baina bi minutu horietan hiru bider jo zuen telefonoak, eta bataren entzungailua hartuta bestetik hitz egiten zuen. Zuzendariak berak ondoratu zion aulki bat, eta adeitasunez galdetu zion ea arratsalde hartan lan berezi baterako geratzea ongi zetorkion. Mekanografo bat aukeratu behar zuen, eta txosten bat diktatu behar zion. «Nire letra negargarri hau ederki ulertzen duzula entzun dut» –esan zion eta irribarre egin zion. Sofia Petrovna zuzendariaren

aginpideaz harro atera zen haren bulegotik, haren konfiantzagatik lausengatuta. Ongi hezitako gizon gaztea zen. Esaten zutenez, langilea izana zen, gero karguz jaso; eta, egia, haren eskuek zakarrak zirela irudi zezaketen, baina gainerakoan...

Parte hartzeko aukera izan zuen argitaletxeko enplegatu guztien lehenengo batzar orokorra aspergarria iruditzen zitzaion. Zuzendariak hitzaldi laburtxo bat egin zuen naziak aginpidera nola iritsi ziren eta Alemanian Reichstag-a nola erre zen azalduz, eta bere Ford autoan alde egin zuen. Haren ondoren Timofeiev kamaradak, alderdiko antolakuntza-idazkariak hitz egin zuen. Ez zekien hitz egiten. Esaldi batetik bestera hainbeste denbora egoten zen isilik, non ez baitzirudien jarraitu behar zuenik. «O-har-tarazi behar dugu...» – esaten zuen aspergarriro eta isildu egiten zen-. «Gure produkzio-kartera...».

Ondoren sindikatu-batzordeko lehendakariak hitz egin zuen; emakume sendokote bat, bularrean kameu bat zuela. Bere behatz luzeak igurtzi eta luzatu ondoren, esan zuen ezen, lehenengo lan-txandan zer gertatzen zen ikusita, laneguna trinkotu eta atzerape-nei gupidagabeko gerra egin behar zitzaizela. Azkenik, ahots hysteriko batez, jakinarazpen labur bat egin zuen Thälman-i¹ buruz, eta enplegatu guztiek Nazioarteko Laguntza Gorrian izena eman zezatela proposatu zuen. Sofia Petrovna ez zuen ongi ulertzen zertaz zen hitzaldi hura, aspergarria iruditzen zitzaion, eta alde egiteko gogoaz zuen, baina beldur zen oker ez ote zen egongo,

1 Ernst Thälmann (1886-1944): Alemaniako Alderdi Komunistaren (KPD) buruetako bat izan zen 1919ko urtarrilean Rosa Luxemburg, Karl Liebknecht eta zuzendaritzako beste hogeita hamabi kide erail ostean. 1933an atxilotu zuten naziek eta Buchenwald-eko kontzentrazio esparruan hil zen. (Ohar guztiak editoreenak dira).

eta begirada gogor bat egin zion aterantz zihoan mekanografo bati.

Baina berehala biltzarrak berak ere ez ziren aspergarriak Sofia Petrovnarentzat. Haietako batean, planaren betetze-mailaz ari zela, zuzendariak esan zuen iritsi behar ziren produkzio-maila gorenak talde osoko kide guzti-guztien lan-diziplina arretatsuaren mende zeudela, eta ez erredaktoreen eta idazleen kontzientziaren mende bakarrik, baizik eta baita garbiketako emakumeen, mandatarien eta mekanografo guzti-guztien lan saiatsuaren mende ere bai.

— Esan beharra dago, gainera —esan zuen— mekanografia-zerbitzua aparteko zehaztasuna ari dela lortzen une honetan, Lipatova kamaradaren zuzendaritzapean.

Sofia Petrovna gorritu egin zen, eta luzaro egon zen begiak jaso gabe. Azkenean ingurura begiratzera ausartu zenean, oso jende amultsua, ederra iruditu zitzaizkion han zeuden guztiak, eta espero ez zuen interes batez entzun zituen kopuruak.

2

Orain Sofia Petrovna eta Nataxa Frolenkorekin ematen zuen libre zuen denbora guztia. Eta geroz eta denbora gutxiago geratzen zitzaion libre. Lan gehigarriak eta, hori baino sarriago, handik pixka batera kooptatu zuten batzorde sindikaleko bilerek, ia arrats guztiak kentzen zizkieten. Koliak geroz eta sarriago berotu behar izaten zuen bere bazkaria, eta «ama ekintzaile politikoa» deitzen hasi zitzaion txantxetan. Batzorde sindikalak sindikatuko kuotak biltzeko ardurara eman zion. Sofia Petrovna ez zuen gogoeta askorik egiten zer zen, izan, sindikatua, baina gustatu egiten zitzaion paper-orrietan marrak egin eta zegozkien zutabeetan hilabete bakoitzean nor ordaindu zuen eta nor ez, oharrak idaztea, gustatu egiten zitzaion zigiluak jartzea eta kontrol-batzordeari kontuak akatsik gabe aurkeztea. Gustatu egiten zitzaion edozein unetan zuzendariaren bulego zabalean sartu eta, txantxetan, lau hilabeteroko zorra gogoratu ahal izatea, eta hark, batzorde sindikaleko kamarada egonarratsuei barkazioa eskatzen ariko balitz bezala, diru-zorroa atera eta ordaindu egiten zion. Antolakuntza-idazkari

kopeta-beltzari berari ere gogorarazi ziezaiokeen zorra inolako arriskurik gabe.

Lehenengo lan-urtearen bukaera aldean gertaera handi bat izan zen Sofia Petrovnaren bizitzan. Argitaletxeko langile afiliatu gabe guztien izenean hitz egin zuen argitaletxeko enplegatu guztien biltzarrean. Horra nola.

Argitaletxean Moskuko garrantzi handiko kamarada batzuk espero zituzten. Administratzailea, ilean arrastoa oso markatua zuen eta ofizialen bulegomutilla zirudien gaztetxo ausart bat, egun osoan aritu zen hara eta hona argitaletxean, marko astun batzuk bizkarrean hartuta, eta gutxien komeni zen unean argizari-emailleak mekanografia-bulegoan sarrarazi zituen. Une batean, antolakuntza-idazkaria Sofia Petrovnari hurreratu zitzaion korridorean.

— Alderdiko erakundeak, batzorde sindikalarekin adosturik –esan zion, ohi bezala, lurrera begira–, alderdikoak ez diren aktibista guztien izenean leialtasun-zina egiteko aukeratu... izendatu zaitu –zuzendu zuen.

Moskukoak etorri aurreko egunetan sekulako lana izan zen. Bulegoa era guztietako txostenak eta planak idazten ari zen. Sofia Petrovna eta Nataxia arratsaldero geratzen ziren lan gehigarria egiten. Idazmakinek zarata sor bat egiten zuten gela hutsean. Inguruan, korridoreetan eta bulegoetan, dena ilun egoten zen. Sofia Petrovnari gustatu egiten zitzaizkion arratsalde haiek. Lana bukatutik, gela argitutik korridoreko ilunera atera baino lehen, luzaro egoten ziren Nataxia eta biak hizketan beren idazmakinen ondoan. Nataxak gutxi hitz egiten zuen, baina oso ongi zekien entzuten.

— Ohartu al zara Ana Grigorievna (batzorde sindikaleko burua zen) azkazalak beti zikinak dituela? –galdetzen zion Sofia Petrovna—. Eta kameua darabil oraindik, eta ilea kizkurtzen du. Hobe luke eskuak sarrago garbituko balitu... Erna Semenovna nire onetik ateratzen nau. Zein lotsa gutxi duen... Eta ohartu zara, Nataxa, Ana Grigorievna ironiaz hitz egiten duela beti alderdiko antolakuntza-idazkariak? Ez zaio gustatzen, nonbait...

Batzorde-buruaz eta antolakuntza-idazkariak hitz egin ondoren, Fedor Ivanovitxekin izandako maitate-harremana kontatzen zion Nataxari, eta nola erori zen behin Kolia harraska azpian, sei hilabete zituen. Eta zein polita zen, eta kalean jende guztia nola biratzen zen haurra ikusteko. Zuriz janzten zuten: mantoi zuria eta txano zuria.

Nataxak, nolabait esateko, ez zuen zer kontaturik: maitasun-harreman bat bera ere ez. «Aurpegi-kolore horrekin, izan ere...» –pentsatzen zuen Sofia Petrovna. Nataxaren bizitzan dena zen atsekabe. Aita, koronela, 17an hil zen, bihotzekoak jota. Nataxak bost urte ozta-ozta zituen orduan. Etxea kendu zieten, eta emakume ahaide perlesiadun baten etxera aldatu behar izan zuten. Ama emakume mimatu bat zuen, ezertarako ezgauza; gose larria igaro zuten, eta Nataxa hamabost urte bete orduko hasi zen lanean. Orain bakar-bakarrik bizi zen: ama bi urte lehenago hil zitzaion, tuberkulosiak jota; ahaide hura zaharrez hil zitzaion. Nataxa sobietar agintarien aldekoa zen, baina, Komsomolean² hartzeko eskaria egin zuenean, ez zioten onartu. «Aita koronela eta etxe baten jabea zen,

2 SESBeko Alderdi Komunistako gazteen erakundea izan zen Komsomol (*Komunisticeski Soyuz Molodiozhi*: Gazteen Batasun Komunista) 1918tik 1991ra.

eta, ulertuko duzu zergatik ez zidaten sinistu ni egiaz aldekoa nintzenik –esaten zuen Nataxak, begiak erdi itxiz–. Ikuspegi marxistatik begiratuta, baliteke zuzen egotea...».

Ezeko hura kontatzen zuen bakoitzean bezazalak gorritzen zitzaizkion, eta Sofia Petrovnak bizkor-bizkor aldatzen zuen solasgaia.

Egun handia iritsi zen. Leninen eta Stalinen erretratuak jarri ziren administratzaileak berak eramandako marko berrietan; zuzendariaren mahaia oihala gorri batez estali zuten. Moskutik etorritako gonbidatuak, bi gizon sendo, inportazioko trajez jantziak, inportazioko gorbataz apainduak eta goiko poltsikoetan inportazioko luma estilografikoak zituztenak, zuzendariaren ondoan eseri ziren erretratuen azpian, eta topetaraino beteta zeuzkaten inportazioko paper-zorroetatik paper batzuk atera zituzten. Alderdiko antolakuntza-idazkariak, errusiar alkandora nazionalaz eta jaka motzez jantzirik, apalegia zirudien haien ondoan. Administratzaile ausartak eta Maria Ivanovna igogailuzainak etengabe ateratzen zuten tea, ogitartekoak eta fruituak erretilu batzuetan, gonbidatuei eta zuzendariari eskaintzen zizkieten eta ondoren han zeuden guztiei ere bai.

Sofia Petrovnak, urduritasunak eraginda, hitzaldiak entzuteko ere ez zuen indarrik. Sorgindurik bezala begiratzen zuen, begiak kendu gabe, garrafoian mugitzen zen uretara. Mahaiburuak aginduta, mahaira ondoratu zen, hasieran zuzendariari eta gonbidatuei begira jarri zen, gero bizkarra emanaz, gero alboka, eskuak gerrian bermatu zituen, txikitan frantsesez zorion-ber-tsoak deklamatzen zituenean erakutsi zioten bezala.

— Afiliatuta ez gauden langileen izenean –hasi zen esaten ahots dardartiz, eta handik aurrera laneko produktibitatea handitzeko promesa eta Nataxarekin

batera prestatu eta buruz ikasia zuen guztia adieraziz jarraitu zuen.

Etxera itzulita, luzaro egon zen lotarako etzan gabe, Kolia noiz etxeratuko, hari bilera kontatzeko. Koliak eskolako azkeneko azterketak zituen, eta bere ikaskiderik hoberenaren etxean, Alik Finkelsteinean, igarotzen zituen arratsalde guztiak: Elkarrekin ikasten zuten. Sofia Petrovna, gelan gauza batzuk ordenatu eta sukaldera jaitsi zen sua piztera.

— Lastima lanik ez egitea —esan zion harrikoa egiten ari zen poliziaren emazte zintzoari—. Zenbat emozio eta zenbat gauza ekartzen dizkion bizitzari. Lanak literaturarekin zerikusirik baldin badu batez ere.

...Kolia goserik eta udaberriko lehenengo euriak bustirik azaldu zen, eta Sofia Petrovna aza-zopazko plater bat jarri zion aurrean. Ukalondoak mahaian bermatu zituen Koliaren aurrean eta, nola jaten zuen begiratu, bere hitzaldiaz hitz egitera zihoakion, baina hark esan zion:

— Badakizu gauza bat, ama?, orain Komsomoleko kidea naiz, gaur bertan sinatu didate bulegoan.

Berri hori emanik, etenik gabe aldatu zen beste gai batera, ahoa ogiz beteta zuela. Eskandalu bat izan zuten eskolan:

— Sashka Yartsev, hori bai erreakzionario ergeta... («Kolia, gaizki hitz egiten duzunean ez zait batere gustatzen» —moztu zion Sofia Petrovna). Ez zen hori kontua: Sashka Yartsevek judu zikina deitu dio Alik Finkelsteini. Gaur kamarada arteko auzi eredugarri bat egitea erabaki dugu zelulan. Badakizu nor izendatu duten akusatzaile publiko? Ni!

Afaldu ondoren Kolia lotara joan zen zuzenean, eta Sofia Petrovna ere bere bionbo atzean lo egitera joan zen, eta ilunpetan Koliak Maiakovskiren bertsoak

errezitatu zizkion buruz. «Izugarria dela, baietz, ama!»
—eta errezitatzea bukatu zuenean, Sofia Petrovnak bileran gertatua kontatu zion. «Ederki, ama», esan zion Koliak eta lo hartu zuen.

3

Koliak eskola bukatu zuen, uda itogarri bat hasi zen eta Sofia Petrovnari artean ez zioten oporrik ematen. Uztailaren bukaeran baizik ez zizkioten eman. Ez zuen inora joateko asmorik, baina uztail osoan irrikaz aritu zen ametsetan nola lo egingo zuen goizetan eta nola egingo zuen, azkenik, etxean egiteko zegoen lan guztia, lana zela-eta inoiz burutu ezin izaten zuena. Ametsetan zegoen idazmakinen danbor-errepikatik atsedeen hartzeko, Koliarentzat sasoi arteko beroi bat erosteko, hilerrira joateko, azkenean, eta margolari bati deitzeko, atea berriro margotu zezan. Baina horra, azkenik, oporrak hasita, eta lehenengo egunean baizik ez zuen ondo atsedeen hartu. Hala eta guztiz ere, Sofia Petrovna inoiz ez zen zortziak baino beranduago esnatzen, laneko ohituragatik; margolariak ordu erdian margotu zuen atea; Fedor Ivanovitzen hilobia txukun zegoen; berokia segituan erosi zuten; galtzerdiak bi arratsaldetan konponduta zeuden. Eta egunak, hutsik, luze egiten ziren, orduen tik-tak hotsarekin, sukaldeko solasekin eta bazkaltzeko Koliaren zain egonez. Koliak egun osoak egiten zituen liburutegian: Alik eta

biak elkarrekin egoten ziren ikasten, makinagintzako institutuko goi-mailako eskolan sartzeko azterketak prestatzeko, eta Sofia Petrovnak ikusi ere ez zuen egi-ten ia. Noizean behin Nataxa Frolenko azaltzen zen, nekaturik (Sofia Petrovnaren ordezkoa zen bulegoan). Sofia Petrovnak irrikaz galdetzen zion zuzendariaren idazkari-az, batzorde sindikaleko lehendakariaren eta alderdiko antolakuntza-idazkariaren arteko liskarraz, Erna Semenovnaren ortografia akatsez. Eta idazle adei-itsu haren kontakizunari buruz zuzendariaren bulegoan izandako eztabaidez. Erredakzio osoa bildu zen...

— Izan liteke norbaiti ez gustatzea? —esaten zuen Sofia Petrovnak harri-uraz eskuak jasorik—. Hain ederki deskribatzen du-eta lehenengo maitasun garbi-garbia. Fedor Ivanovitxen eta bion artekoa bezalaxe.

Orain Sofia Petrovna guztiz ados zegoen Kolia-reakin, hark emakumeek gizarterako baliagarria zen lanen bat izan beharko luketela esaten zionean. Eta Koliak esaten zuen guztia, egunkari-ek zioten guztia, guztiz naturala iruditzen zitzaion orain, betidanik hala esan eta idatzi izan balitz bezala. Orain, ordea, Kolia hazi zelarik, bere behinolako etxebizitza beharresten zuen Sofia Petrovnak. Gosetekoan bahitu zieten, iraultza-ren hasiera-hasieran. Fedor Ivanovitxen bulegoa izandakoan Degtiarenko poliziaren familia kokatu zu-ten, jangelan kontu-eramaile baten familia, eta Sofia Petrovnari eta Koliari haren haur-gela izandakoa utzi zieten. Orain Kolia hazia zen, bere gela bereizia behar zuen, dagoeneko ez baitzen mutikoa.

— Baina, ama, bidezkoa al da Degtiarenko eta haren haurrak sotoan eta gu etxebizitza eder batean bizitzea? Esan, bidezkoa da hori? —galdetzen zion Ko- liak serio, Sofia Petrovnari burgesiaren etxebizitzetan jendea metatzeak zuen zentzu iraultzailea argituz.

Eta Sofia Petrovnak harekin ados egon behar, nahitaez: baina guztiz zuzena ere ez zen. Lastima Degtiarenkoren emaztea hain zikina izatea: korridorean bertan ere usaintzen zen haren gelako kirats garratza. Leihatila zabaltzeak suak baino gehiago beldurtzen zuen. Haren bizkiak hamasei urte egitera zihoazen dagoeneko, eta idazterakoan akatsak egiten zituzten oraindik.

Titulu berri batek kontsolatzen zuen Sofia Petrovna etxebizitza galdu izanagatik: bertako biztanleek beren ordezkari hautatu zuten aho batez. Bertako nagusia balitz bezala geratu zen, bere etxeko administratzailea balitz bezala. Leunki baina behin baino gehiagotan ohartarazi zion gogorki kontu-eramailearen emazteari korridorean utzitako kutxen kontura. Lanean sindikatuko kuotak biltzeko jartzen zuen arreta berberarekin kalkulatzeko zenbat ordaindu behar zuen bakoitzak elektrizitate-indarragatik. Erregulari joaten zen Etxebizitza Alokairuko Kooperatibako maizter-buruen bileretara, eta gero etxearen administratzaileak esandakoen berri ematen zien maizterrei. Maizterrekin tratu ona izaten zuen normalean. Degtiarenkoren emazteak marmelada prestatzen bazuen, hutsik egin gabe gonbidatzen zuen Sofia Petrovna sukaldera, azukre aski zuen proba zezan. Degtiarenkoren emaztea sarri joan ohi zen Sofia Petrovnaren gelara, Koliari bere bizkiek bigarren urtea errepika ez zezaten, Jainkoak ez zezala halakorik nahi, zer asma zezakeen aholku eskatzera, eta Sofia Petrovnarekin kontu-eramailearen emaztea –erizaina zen– larrutzeko.

— Gera zaitez bakarrik hori bezalako errukiko mojatxo batekin, eta zuzenean bidaliko zaitu beste aldera! –esaten zuen Degtiarenkoren emazteak.

Kontu-eramailea adineko gizona zen dagoeneko; masailak eroriak zituen, eskuetakoko eta sudurreko zainak urdinak. Emazteak eta alabak izuturik bizi zen, eta etxean zenik ere ez zitzaion entzuten. Kontu-eramailearen alabak, berriz, Valia ilegorriak, biziki atsekabetzen zuen Sofia Petrovna, «emango diot!», «inporta zait bost!», «inporta zait bost!» eta horrelako mintzamolde haiekin. Eta kontu-eramailearen emaztea ere, Valiaren ama, oso izaera txarrekoa zen zinez. Bere berotzeko suaren ondoan zutik, aurpegia sorgor, etengabe zirikatzen zuen poliziaren emaztea, haren suak kedarra botatzen zuelako, edo bizki otzanak, atea kakoaz itxi ez zutelako. Nobleziakoa zen, kolonia-ura zipriztintzen zuen korridorean lainoztagailu batez, zintzilikario batzuk erabiltzen zituen katetxo batetik zintzilik eta ahots beheran hitz egiten zuen, ezpainak ia mugitu ere gabe, baina oso hitz gogorak erabiltzen zituen. Soldata-egunean Valia eskeko baten gisan hasten zitzaion amari, zapata berri batzuetarako diru eske.

— Ezta imajinatu ere, potzola –esaten zion amak, eta Sofia Petrovna lasterka sartzen zen komunean handik aurrerakoa ez entzuteko; eta berehala sartzen zen korrika Valia negarrak puztutako aurpegia garbitzera eta amari aurpegira esaten ausartzen ez zen hitz itsusi guztiak konketan esatera.

Baina 46. apartamentua³ apartamentu zoriontsua, lasaia izaten zen eskuarki; ez 52.a, goikoa,

3 Apartamentuak aipatzen direnean, SESBeko eta, batez ere, Mosku eta San Petersburgeko iraultza ondoko *komunalka* apartamentuak izan behar ditugu buruan. Garai horretako literaturan eta geroagokoan (I. Grekova, L. Petruxevskaia) asko aipatzen dira. Iraultza aurreko burgesiaren etxe handiak ziren, etxebizitza berririk ezean, gelaka banatu zituzten, langileentzat. Komunak eta sukaldeak konpartituak ziren, baina ez ziren gaur egungo ikasleen pisu konpartituak bezalakoak: egoera latzetan zeuden familientzat ziren. Elkarbizitza ez omen zen oso erraza.

bezala, han ia astero izaten baitziren zinezko guduak, jai-bezperetan. Aldiro deitzen zuten hara Degtiarenko, guardia egin ondoren logale, atezainarekin eta administratzailearekin batera akta jasotzeko.

Oporrak luze, luze zihoazen, sukaldetik gelara eta handik sukaldera, eta bukatu egin ziren, Sofia Petrovnaren pozerako. Euria maizago egiten hasi zuen, orri horiak arrastaka zebiltzan Udako Lorategiaren inguruan, takoiek lokatzean zapaldurik, eta Sofia Petrovna, eskalapoiak jantzita eta euritakoa hartuta, egunero lanera joaten hasi zen berriro; goizean tranbiari itxaroten zion, 10etan doi-doia, lasaiturik zintzilikatzen zuen bere zenbakia oholetik. Berriro jozten eta kolpatzen zuten idazmakinek bere inguruan, paperak zurrumurru egiten zuen, atea zabaltzen eta ixten zen; Sofia Petrovnak, serio-serio, eramaten zizkion zuzendariaren idazkari helduari ikatz-paperaren usaina zuten orriak, arreta handiz bildu eta josirik. Sindikatuko kideen liburuxkan zigiluak itsasten zituen, batzorde sindikalarerekin elkartzen zen laneko diziplinari eta mekanografo batek bulego-neska batekin izandako jokabide gisagabeari zegozkion gaietarako. Lehen bezala, oraindik ere beldur pixka bat zion antolakuntza-idazkari kopetilunari, Timofeiev kamaradari, lehen bezala orain ere ez zitzaion gustatzen batzorde sindikaleko lehendakaria, bere azkazal zikinekin, itsuitsu maite zuen zuzendaria, ezkutuan, eta inbidia zion haren idazkariari; baina eguneroko lagunak zituen dagoeneko denak, bere lekuan zegoela sentitzen zuen, eta ozen kargu hartzen zion Erna Semenovna lotsagabeari. Zergatik mantendu oraindik? Gai hura batzorde sindikalean azaldu beharko da.

Koliak eta Alikek gaintitu egin zituzten makinagintzako institutuan sartzeko azterketak. Beren

deiturak onartuen zerrendan irakurririk, gelan irrati bat jartzea erabaki zuten pozaren pozez. Sofia Petrovnari ez zitzaion gustatzen Kolia eta Alik bere gelan gauza teknikoren bat egiten ari zirenean, baina biziki espero zuen irratia oihalezko elur-lera baino merkeago aterako zitzaiola. Eskola bukaturik, neguan Finlandiako golkoan bere oihalezko elur-leran ibiltzeko halako bat egitea erabaki zuen Koliak. Oihalezko elur-lerei buruzko liburuxka bat lortu zuen, enbor batzuk inguratu zituen, Alikek lagunduta gelan sartu zituen, eta kolpetik zoruan erratza pasatzea ez ezik, gelan mugitzea bera ere ezinezkoa bihurtu zen. Enborrek hormaraino baztertu zuten jateko mahaia, leihoraino soa; hiruki erraldoi bat eratuz zeutzan lurrean, eta Sofia Petrovnak egunean ehun aldiz egiten zuen estropezu haiekin. Baina alferrik izan ziren haren erregu guztiak. Alferrik argitu zien Koliari eta Alik etxera elefante bat ekarri izan balute bezain deserosoa gertatzen zitzaiola han bizitzea. Mutilek egurra marruskatzen, marrazten, zerratzen aritu ziren harik eta guztiz konbentzitu ziren arte oihalezko elur-lerei buruzko liburuxka haren egilea ezjakin hutsa zela eta ezin zela elur-lerarik egin haren diseinuari jarraituz.

Orduan, enborrak zerratu eta, apal-apal, berogailuan erre zituzten, liburuxkarekin batera. Eta Sofia Petrovnak gauzak beren lekuan jarri zituen berriro eta aste oso batez behin eta berriro poztu zen, bere gelaren zabaltasunagatik eta garbitasunagatik.

Hasieran irratiak ere nahigabeak baizik ez zizkion ekarri Sofia Petrovnari. Koliak eta Alikek alانبrez, torlojuz, gabilaz, taulaz bete zuten gela osoa; goizeko ordu biak arte geratzen ziren gauero, irrati mota baten edo bestearen abantailez eztabaida-

tzen; gero irrati bat egin zuten, baina bukatu zuten arte Sofia Petrovnari ez zioten entzuteko baimenik eman, behin Norvegia entzun nahi izaten baitzuten, beste batean Ingalaterra; gero perfekzionismoa sartu zitzaien, eta irratia berritik egiten hasten ziren arratsero. Azkenean Sofia Petrovnak bere esku hartu zuen kontua, eta irratia oso asmazio atsegina zela gertatu zen. Inork lagundu gabe pizten eta itzaltzen ikasi zuen, Koliari eta Aliko irratia ukitzea debekatu zien eta gauetan *Fausto* edo elkarte filarmonikoren baten kontzertuak entzuten zituen.

Nataxa Frolenko ere etortzen zen entzute-
ra. Bere brodalana ekartzen zuen eta mahai ondoan esertzen zen. Esku trebeak zituen, oso ona zen puntu-lanetan, josten, zapiak eta lepoak brodatzen. Gela guztia brodalanez estalita zeukan dagoeneko, eta Sofia Petrovnarentzako zama bat brodatzen hasi zen.

Jaiegunetan Sofia Petrovnak goiz-goizetik pizten zuen irratia: asko gustatzen zitzaion ahots lodi, seguru bat entzutea esanez laugarren urrin-dendan urrin eta kolonia sorta handi bat ekarri zutela edo egun batzuk barru opereta berri bat estreinatu behar zutela. Gogoari ezin eutsirik, telefono guztiak idazten zituen, badaezpada ere. Batere interesatzen ez zitzaion gauza bakarra nazioarteko egoerari buruzko azkeneko berriak ziren. Koliak askotan hitz egiten zion Alemaniako naziez, Mussoliniz, Chiang Kai-sheki buruz; Sofia Petrovnak entzun egiten zion, baina begirune hutsez bakarrik. Egunkariak irakurtzeko, sofan eserita, ezbeharren berriak, satira-artikuluak edo *Auzitegiak* saila baizik ez zituen irakurtzen; artikulu nagusian edo *Berri laburrak* sailean, berriz, lo hartzen zuen beti, eta egunkaria aurrepegi gainera erortzen zitzaion. Egunkariak baino askoz gehiago gustatzen zitzaizkion Nataxak liburutegitik

artzen zituen eleberri itzuliak: *Kapela berdea*⁴ edo *Hiru bihotz*.⁵

1934ko martxoaren 8a egun zoriontsua izan zen Sofia Petrovnaren bizitzan. Goizean, argitaletxeko bulego-laguntzaileak lore-saski bat ekarri zion. Loreen artean txartel bat zegoen: «Sofia Petrovna Lipatova, langile afiliatu gabeari, zorionak martxoaren 8an. Alderdiko antolakuntzak eta batzorde sindikalak». Koliaren idazmahaian jarri zituen loreak, Leninen idazlan guztiak zeuden apalaren azpian, Stalinen bustotxoaren ondoan. Egun osoan bihotza bero-bero sentitu zuen. Loreak zimeltzen zirenean, bota gabe, ongi lehortu eta, oroigarri gisa, liburu batean gordetzea erabaki zuen.

-
- 4 Michael Arlen-en (1895-1956) nobela bat. Bulgarian jaiotako armeniar jatorrizko nobelagileak satirak, gidoiak, ipuinak, saiakerak eta beldurrezko liburuak idatzi zituen. Bere azken urteetan politikari buruz ere idatzi zuen.
- 5 Jack London-en (1876-1916) nobela. Nobelak, ipuinak, saiakerak eta kazetaritza lanak ere idatzi zituen. Animalien eskubideen aldeko militantea izan zen, atea eta Londreseko Alderdi Laborista Sozialista ezker muturreko alderdiko kide izan zen lehenik, Ameriketako Alderdi Sozialistakoa ondoren.

4

Hirugarren urtea zen Sofia Petrovnaren lanbideko bizitzan. Soldata jaso zioten: orain ez zuen 250 errublo irabazten, 375 baizik. Kolia eta Alik ikasten ari ziren oraindik, baina poliki irabazten zuten eraikuntza-bulego batean: marrazkilariak ziren. Sofia Petrovnaren urtebetetze egunerako, Koliak baxeratxo bat erosi zion bere dirutik: esne-pitxertxo bat, teontzi bat, azukreontzi bat eta hiru katilutxo. Baxeraren marrazkiak ez zitzaizkion askorik gustatu Sofia Petrovnari: lauki gorri moduko batzuk, horiaren gainean. Loreak nahiago zituzkeen. Baina portzelana fina zen, ona, eta ez al zen berdin? Semearen oparia zen.

Eta semea edertuta zegoen: begi-grisa, bekainbeltza, garaia, eta Sergei Ivanovitx urterik onenetan izan zena baino ere seguruagoa, lasaiagoa eta alaiaagoa. Beti tente, garbi eta bizi, militarra bailitzan. Sofia Petrovnak samurtasunez eta etengabeko kezkaz begiratzen zion, pozik eta pozteko beldurrez. Mutil ederra, sendoa, ez edaten ez erretzen ez zuena, lotsa oneko semea eta komunista gazte zintzoa. Alik ere gazte adeitsua, langilea zen, jakina, baina ederra zegoen

Koliaren mailara iristeko! Haren aita liburu-joslea zen Vinnitsan, seme-alaba pila zeukan, eta eskasia. Alik Leningraden bizi izan zen haurtzaroko urtetatik, izeba baten etxean, baina hura, bistan zenez, ez zen askorik arduratzen haurraz: ukondoak petatxatuta zeuzkan, botak zulatuta. Ziztrina, txikia zen. Eta buruz ez zen Kolia bezain azkarra.

Gogoeta bakar batek kezkatzen zuen gau eta egun Sofia Petrovna: Koliak hogeitaz urte beteak zituen dagoeneko, eta hala ere ez zuen bere gela bereizirik. Bera han egoteak ez zion bada traba egingo Koliari bere bizitza pribatua izateko? Kolia norbaitez maiteminduta zegoen Institutuan, itxura zenez: amarruz galdetzen zion Alik: Nor zen? Nola zuen izena? Zenbat urte zituen? Ikasle ona zen? Nor ziren haren gurasoak?

Baina Alikek saiheska erantzuten zion, eta haren begietan garbi ikusten zen ez zela gauza traiziorik egiteko. Sofia Petrovnak izena baizik ez zion atera: Nata. Baina berdin zion nola deitzen zioten han eta maitasun hura serioa zen ala beroaldi bat baizik ez zen; nolana ere, haren adineko mutil gazte batek behar-beharrezkoa zuen bere gela bereizia izatea. Sofia Petrovnak bere gogoeta kezkatuak Nataxarekin partekatu zituen. Nataxak isilik entzun zion, gero gorritu egin zen eta esan zion baietz... zalantzarik gabe... jakina... Nikolai Fedorovitx hobeto egongo zen gela bereizi batean... baina, beste alde batetik... bera bakarrik bizi zen... amarik ez zuen... eta zer? Ba hori!... Ezer ez!... Nataxa endredatu eta isildu egin zen, eta Sofia Petrovnak horrela ez zuen ulertzen zen nahi zuen esan benetan.

Sofia Petrovna bere gela bakarra bi gelarekin nola trukatu alderdi guztietatik pentsatzen ari zen, eta liburuxkan dirua bereizita uzten ere hasi zen, behar bazuen ere ordaindu ahal izateko. Baina Koliarentza-

ko gela bereziaren kontuak gutxien uste zenean galdu zuen presakotasuna: Nikolai Lipatov eta Alexandr Finkelstein ikasle aurreratuak Sverdlovskera, Uralmax fabrikara bidali zituzten, ofizial gisa, hango lan-banaketan. Ingeniari teknikoak behar zituzten. Institutuak ikasketak kanpoan egonez bukatzeko aukera ematen zien.

— Zu ez kezkatu, ama —esan zion Koliak, bere esku handia Sofia Petrovnaren eskutxoaren gainean jarritz, ez kezkatu, Alik eta biok ederki biziko gara han... Gela bat izango dugula agindu digute langileen egoitzan... eta Sverdlovsk ez dago urruti, gainera. Etorriko zara noiz edo noiz ikustera... eta... badakizu zer? paketeak bidaliko dizkiguzu.

Egun hartatik aurrera, Sofia Petrovna lanetik itzuli bezain laster, komoda Koliaren barruko jantziak zenbatzen, josten, pasaratzen, lisatzen hasten zen. Fedor Ivanovitxen maleta zaharra konpontzera eramane zuen. Orain infinitu urruti gogoratzen zuen Fedor Ivanovitxek eta biek maleta hura Guardiako Elkarteko dendan erosi zuteneko udaberriko goiz hura, bizitza irreal bateko goiz irreal bat bailitzan. Harriturik geratu zen maleta-azal hondatua itsatsirik zegoen Galsoroako orri bati begira: eskote zabaleko eta dindirri luzeko jantzi batez jantzitako eta orrazkera altuko andre batek txunditurik utzi zuen. Hala izango zen garai hartako moda.

Kolia joateak kezkatu eta tristatu egiten zuen Sofia Petrovna, baina ezin zuen miretsi baizik egin nolako trebezia eta arretaz paketatu zituen liburuak eta koaderno handiak, bere letra garbi-garbiaz beteak, eta nola josi zuen berak bere gerriko uhalean Gazteria Komunistako txartela. Astebete falta zen abiatzeko, eta bat-batean hurrengo egunean alde egin behar zuen.

— Prestatuta zaude, Kolia? –galdetu zion Alik Finkelsteinek, goizean bere gelan sartuz batera, bere altuera txikiarekin, bere buru handiarekin eta belarri irtenekin—. Zer?

Zamar berria bizkarrean puzten zitzaion, lepoaren muturrak okertu egiten zitzaizkion. Kolia pauso handiak eginez ondoratu zen bere maletara eta hutsik balego bezain erraz jaso zuen. Trenaren geltokirainoko bide guztian airean zeraman maleta; Alik gaixoak nekez garraiatzen zuen bere kutxatxoa, arnasoska, eta zamarraren mahukaz xukatzen zuen bekokiko izerdia. Hankamotza eta buruhandia baitzen, marrazki bizidunetako pertsonaia komiko bat iruditzen zitzaion Sofia Petrovnari. Aliken izebak bistan zegoen ez zuela hartu nahi izan hari laguntzera tren-geltokira joateko lanik, eta hiruak –Kolia, Sofia Petrovna eta Alik– formalki ari ziren paseatzen plataforman, geltokiko laino hezearen artean. Kolia eta Alik bero-bero ari ziren eztabaidatzen ea zein auto zen iraunkorragoa eta arinagoa: Fiat ala Paccard? Eta trena abiatzeko bost minutu baizik falta ez zirenean, Sofia Petrovna gogoratu zen ez ziela ezer, ezertxo ere esan mutilei bideko lapurrez edo garbitegiar. Barruko jantziak garbitegira eramaten direnean, behar-beharrezkoa izaten da jantziak zenbatzea eta idatzita jartzea... Eta jantokian inondik inora ere ez jan entsaladarik; bezperakoa izaten da askotan, pasatuta egoten da eta erraz gaixotu daiteke enterotifusez. Alik alde batera eraman zuen eta bizkarretik heldu zion:

— Alik, laztana –esan zion–, zaindu ezazu Kolia, txintxo horrek...

Alikek begi handi eta onbera batzuez begiratu zion betaurrekoetatik.

— Zer kostatuko zait, bada? Jakina zainduko dudala Nikolai. Bai horixe!

Bagoira sartzeko ordua zen. Handik minutu baterako Kolia eta Alik leihora agertu ziren. Kolia, garaia; Alik bizkarrera iristen zitzaien. Koliak zerbait esan zion Sofia Petrovnari, baina kristalaz beste aldetik ez zen entzuten. Kolia barrez hasi zen, txanoa erantzi zuen eta begirada alai, urduri bat bota zuen konpartimentura. Alikek letra batzuk adierazten zizkion behatzaz Sofia Petrovnari. «Ez...» ulertu zuen, eta eskua astintzen hasi zitzaien, zer zioen asmatuz: «Ez kezkatu...». Jainkoa, haurrak baino ez dira, eta badoaz!

Handik minutu batera andenean atzeraka zihoan, jendetza osoaren erdian bakarrik, geroz eta bizkorrago, bideari erreparatu gabe eta behatzez begiak xukatuz.

5

Koliak alde egin zuenez gero, Sofia Petrovna are denbora gutxiago igarotzen zuen etxean. Bulegoan beti izaten zen gehigarritzako lana, eta ia arratsaldero geratzen zen lanean, Koliarentzako jantzi baterako dirua aurreratzeko: ingeniari gazte batek egoki jantzi behar du.

Libre zituen arratsetan Nataxa etxera eramaten zuen, te bat hartzera. Biak elkarrekin kantoiko dendan sartzen ziren eta bi pastel aukeratzen zituzten berentzat. Sofia Petrovna koadroekiko teontzian tea prestatzen zuen eta irratia pizten zuen. Nataxak bere brodalana hartzen zuen. Azkenaldi hartan, Sofia Petrovna aholkatuta, arduraz hartzen zuen garagardo legamia, baina aurpegiko koloreak ez zion hobera egiten.

Arrats haietako batean, Sofia Petrovnaren etxetik ateratzerakoan, Koliaren azkenaldiko argazki bat emateko eskatu zion Nataxak.

— Nire gelan amaren argazki bat eta beste inorenik ez dut-eta —azaldu zion. Sofia Petrovna Kolia dotore, begi handiekin, gorbatarekin eta lepo almidoi-

tuarekin agertzen zen bat eman zion. Argazkilariak ezin hobeto atzeman zuen haren irribarrea.

Behin, lanetik itzultzean, zinemara sartu ziren, eta handik aurrera beren denbora-pasarik gogokoena bilakatu zen zinema. Ikaragarri gustatzen zitzaizkien, biei, hegazkinlarien eta mugazainen filmak. Ekin-tza handiak egiten zituzten hortz zuriko hegazkinlari haiek Kolia gogoratzen zioten Sofia Petrovnari. Gustatu egiten zitzaizkion pantailetan entzuten hasten ziren abesti berriak, «Eskerrik asko, bihotza!» eta «Aberriak eskatzen badu, heroia izango da» batez ere; gustatu egiten zitzaion «aberria» hitza. Hitz hori, letra larriz idatzia, gozoa eta hots handikoa bilakatzen zitzaion ariman. Eta hegazkinlaririk hoberena edo mugazainik bipilena, etsaiaren balak botata, ahoz gora erortzen zenean, Sofia Petrovna Nataxari eskutik heltzen zion, gaztetako egunetan, Vera Kholodnaiak bat-batean eskuzorro zabaletik emakumeentzako errebolbertxoa atera eta geldiro jasorik gaiztoaren bekokia destatzen zuenean, Fedor Ivanovitxi eskutik heltzen zion bezala.

Nataxak berriro aurkeztu zuen Gazteria Komunistan sartzeko eskaera eta berriro ukatu zioten. Sofia Petrovna asko sentitzen zuen Nataxaren atsekabea: hainbeste behar zuen neska gaixoak lagunartea! Zergatik ez zuten onartzen, izan ere? Neska langilea zen, eta sobietar agintaritzari guztiz eskainia, gainera. Bikain lan egiten zuen, beste inork baino hobeto, egia esateko; hori, hasteko. Bigarrenik, politikoki prestatua zen. Ez zen Sofia Petrovna bezala; ez zuen egunik uzten *Pravda* hasi eta buka irakurri gabe. Nataxa ez zen Kolia eta Alik baino okerrago moldatzen ez nazioarteko egoeraz, ez bost urteko planez. Eta haren kezka izotzak Txeliuskin ontzia⁶ zapaltzen zuenean; ez zen irratitik

6 Txeliuskin, Ipar Poloko izotzetan ibiltzeko baporezko itsasontzi sobietarra

urruntzen. Egunkari guztietan ebaki zituen Voronin kapitainaren, Schmidt eremuaren eta gero hegazkinlarien argazkiak. Lehenengo salbamenduen berri eman zutenean, negar egin zuen bere makinaren aurrean, malkoak paperaren gainera erori zitzaizkion, eta pozaren pozez bi orri hondatu zituen. «Ez dituzte utziko, ez dituzte utziko galtzen» errepikatzen zuen, malkoak xukatuz. Zein neska zintzoa, maitia! Eta, horra, berriro ukatzen zioten Gazteria Komunistan sartzea. Bidegabekeria bat zen. Sofia Petrovna Koliari ere idatzi zion Nataxari egindako bidegabekeria hartaz. Baina Koliak erantzun zion bidegabekeria klase kontzeptu bat zela eta behar-beharrezkoa zela atzarrik egotea. Nataxa burges lur-jabeen familia batetik baitzetoarren, nolanahi ere. Kirov⁷ kamarada hil zuten mertzenario faxista doilorrak erauzi gabe zeuden oraindik herrialde osoan. Klase borrokak jarraitu egiten zuen, eta horrexegatik hautaketa zorrotzagoa behar zen alderdian eta Gazteria Komunistan sartzeko. Orobat idazten zuen, urte batzuen buruan Nataxa onartu egingo zutela seguru asko, eta biziki aholkatzen zion Leninen, Stalinen, Marxen, Engelsen idatzien laburpen bat egitea.

— Urte batzuk barru! –egin zuen irribarre Nataxak saminki–. Nikolai Fedorovitxek ahaztu egiten du hogeita lau urte izango ditudala aurki.

izan zen. Iparraldeko itsasoko zeharkaldia egiten ari zen Murmansk eta Vladivostok artean 1933an eta harrapatuta geratu zen 1934ko otsailaren 13an 1934an erabat hondoratu zen arte. Garai hartan hedabideetan asko agertu zen. Naufragoez kanpamentu bat sortu zuten «Schmidt kanpalekua» izenarekin, Otto Schmidt Artikorako espedizioaren buruaren omenez. Azkenean pista bat egitea lortu zuten izotzaren gainean eta hegazkinez erreskatatu zituzten.

7 Sergei Kirov (1866-1934) Leningradeko Alderdiko antolakuntza idazkaria zen eta Politburoko kidea. 1934ko abenduaren batean hil zuten, hura izan zen Purga Handiaren abiapuntua, Stalinek bere arerioak atxilotzeko aitzakia gisa erabili.

— Orduan zuzenean onartuko zaituzte alderdian –esan zion Sofia Petrovnak kontsolatzeko—. Eta zer dira hogeita lau urte? Gaztaroaren hasiera.

Nataxak ez zion ezer erantzun, baina arrats hartan, etxerako alde egitean, Koliaren Leninen idatzien liburuki bat eraman zuen Sofia Petrovnarenetik.

Koliaren gutunak bere garaian jasotzen zituzten, asteen behin, jaiegun bezperan. Hura seme zoragarria; ez zuen ahazten ama kezkatu egiten dela, eta, bestela ere, ez zuen lan gutxi han. Lanetik etxerakoan, eskaileran bertan ateratzen zuen Sofia Petrovnak giltza poltsatxotik, behean, abaila batean igotzen zituen eskailerak, eta azkenean laugarren solairura lasterka iritsirik, arnasestuka, postontzi urdina zabaltzen zuen. Gutuna zain edukitzen zuen bere gutun-azal horian. Berokia erantzi gabe, leiho ondoan esertzen zen, eta kontu handiz tolestutako koaderno-orriak zabaltzen zituen.

Kaixo, ama! –horrela hasten ziren eskutitz guztiak—. Osasunez ongi izango zarela espero dut. Ni ere halaxe nago. Azkeneko aste honetan gure fabrikako ekoizpena... Eskutitz luzeak ziren, baina fabrikaz hitz egiten zuten batez ere, mugimendu stakhanovistaren⁸ hazkundeaz, baina bere buruari buruz, bere bizitzaz, hitz erdirik ere ez. *Pentsatu hauxe bakarrik* –idazten zion Koliak lehenengo eskutitzean–: *helikoidalak, fresagailuak, barautsak berak ere, atzerritik dator oraindik den-dena; urretan ordaintzen diegu dena kapitalistei, eta ez gara gauza geuk egiten ikasteko*. Baina ez zitzaizkion fresagailuak interesatzen Sofia Petrovnari. Nahiago zukeen jakin ea zer jaten zuten han Alikek eta berak, arropa garbitzen

8 1935etik aurrera, Aleksei Stakhanov (1906-1977) meatzariarengan oinarrituz abiatutako kanpaina. Batez bestekoa baino gehiago ekoizten zuten langileak nabarmentzea zuen helburu.

ziena zintzoa zen, nahikoa diru bazuten, noiz ikasten zuten, gauez edo noiz. Galdera horiei guztiei arinegi eta ulertzeko modu zailegian erantzuten zien Koliak. Sofia Petrovnak hainbestearainoko gogoia zuen haien gela, haien bazkariak, haien afariak nolakoak ziren irudikatzeke, non, Nataxak aholkaturik, eskutitz bat idatzi baitzion Alik.

Handik egun batzuetara iritsi zen erantzuna.

Sofia Petrovna andre estimagarria –idazten zuen Alikek–: barkatuko didazu atrebentzia, baina ez duzu zertan kezkaturik Nikolairen osasunaz. Ez dugu batere gaizki jaten. Gauerako mortadela erosten dut eta goizean neuk txigortzen dut gurinetan. Bazkaldu, kantuan bazkaltzen dugu, hiru plater, oso onak. Bidali zenigun konfitura, arratseko tearekin baizik ez jatea erabaki dugu; horrela luzaroagorako iritsiko zaigu-eta. Ohe-jantziak nik eramaten ditut garbitegira, eta hartze-agiria jasotzen dut. Ikasketetarako, ordu berezi batzuk hartu ditugu egunero. Sinesten ahal didazu Nikolairengatik egiten dudala dena, adiskide eta kamarada gisa, eta beretzat ahalegintzen naizela beti.

Eskutitza honela bukatzen zen: Nikolai arrakasta handiz ari da Fellow fresagailuak geure erreminta-lantegian egiteko metodo bat prestatzen. Fabrikako alderdiko komitean diotenez, gora doan arrano bat omen da.

Argizagiak dira, noski, igotzen direnak eta ez arranoak; eta Sofia Petrovnak ez zuen batere ulertzen zer ziren Fellow fresagailu haiek; nolanahi ere, lerro haiek harrotasunez eta miresmenez bete zioten bihotza.

Sofia Petrovnak kontu handiz pilatzen zituen Koliaren eskutitzak idazteko paper-kutxa batean. Hartan zeuden gordeta Fedor Ivanovitxen ezkongaietako eskutitzak ere, Koliaren txikitako argazkiak eta Txeliuskin ontzian jaiotako Karina neskatxoaren ar-

gazkiak. Aliken eskutitza ere han sartu zuen Sofia Petrovna. Samurtasuna sentitzen zuen Alikentzat; leiala zen Koliarekiko, zalantzarik gabe, eta hain ongi ulertzen zuen!

Behin, Kolia joan eta hamarren bat hilabetera, zur xaflatuzko kaxa nahiko handi bat jaso zuen postaz Sofia Petrovna. Sverdlovsketik zetorren. Koliaren partetik. Kaxa hain astuna zen non postariari kosta egin baitzitzaion gelan sartzea, eta errublo bateko eskupekoa eskatu zuen. «Josteko makina bat ote da? –pentsatzen zuen Sofia Petrovna–. Ederki legoke!». Berea estutasun-urte batean saldua zuen. Postariak alde egin zuen. Sofia Petrovna mailu bat eta aitzo bat hartu eta kaxa zabaltu zuen. Kaxa barruan zer zen ezin asmatuzko altzairuzko gauza beltz bat zegoen. Txirbilez kontu handiz estalita zegoen. Gorpilen bat-edo, kanoien bat-edo, Jainkoak zekien zer. Azkenean, ezin ulertuzko tramankulu haren atzealde beltzean, txartel bat aurkitu zuen Sofia Petrovna, Koliaren eskuz idatzia: *Amatxo, gure fabrian nire metodoa erabiliz egindako Fellow fresagailuak ebakitako lehenengo engranajea bidaltzen dizut. Sofia Petrovna barrez hasi zen, engranajeari esku-kolpe batzuk eman zizkion atzetik eta, arnases-tuka, leiho-arasara eraman zuen. Hari begiratzen zion bakoitzean, pozik jartzen zen.*

Handik egun batzuetara, goizean, Sofia Petrovna, lanera joateko presakaturik, tea hartzen ari zela, airean sartu zen Nataxa bere gelan. Haren ilea, elurrak bustita, orraztu gabe zegoen; katuska bat lotu gabe zeukan. Egunkari busti bat luzatu zion Sofia Petrovnari.

— Begira... Oraintxe erosi dut kale kantoian... irakurtzen ari nintzen, irakurtzeagatik eta non ikusten dudan: Nikolai Fedorovitx. Kolia.

Pravdaren lehenengo orrian, Sofia Petrovnak Kolia irribarrez ikusi zuen, bere hortz zuriak erakutsiz. Argazkiak aldatu egiten zuen, eta zahartu egiten zuen pixka bat, baina bere semea zen, Kolia, inolako zalantzarik gabe. Honela zekarren idatzita argazkiaren azpian: *Nikolai Lipatov, ekoizpenaren bultzatzaile sutsu eta Gazteria Komunistako kideak Fellow fresagailuak egiteko metodo bat prestatu du Uraleko makineria sorkuntzarako fabrikari.*

Nataxak besarkada bat eman zion Sofia Petrovnari eta masailean musu eman zion.

–Sofia Petrovna, maitea! –esan zion erreguzko aurpegia jarritz–, goazen telegrama bat bidaltzera!

Sofia Petrovnak ordu arte inoiz ez zuen ikusi Nataxa hain asaldaturik. Berak ere ikaratan zituen eskuak, eta ez zuen bere kartera aurkitzerik lortzen. Lanean idatzi zuten telegrama, bazkaltzeko pausaldian, eta lanetik irten ondoren bidali zuten. Denek eman zizkioten zorionak Sofia Petrovnari; lanean Erna Semenovnak berak ere zorionak eman zizkion, horrelako seme bat zuelako, eta etxean, erizainak ere bai. Iluntzean, nekaturik eta pozik oheratzerakoan, lehen-dabiziko aldiz pentsatu zuen Sofia Petrovnak Nataxa beharbada Koliaz maiteminduta zegoela. Nola ez zen, baina, lehenago ohartu! Neska zintzoa, ongi hazia, langilea zen; oso itsusia, ordea, eta Kolia baino zaharxeagoa. Lo hartu bitartean, Koliaz maiteminduko zen eta haren emaztea bihurtuko zen neska imajinatzen ahalegindu zen Sofia Petrovna: liraina, mardula, musu-gorria, begi-argia eta ile-horia, ingeles postal batekoaren antz handikoa, baina Nazioarteko Gazteria Komunistako intsignia bularrean zuela. Nata? Ez, nahiago Svetlana. Edo Ludmila: Miloxka.

6

Bazetorren 1937 urte berria. Batzorde sindikalak argitaletxeko enplegatuen haurrentzako Urte Berriko izeiaren jaia antolatzea erabaki zuen. Sofia Petrovnari eman zioten jaia antolatzeko ardura. Nataxa aukeratu zuen laguntzaile izateko, eta lanari ekin zioten. Enplegatuei etxera deitu zieten telefonoz, haurren izenak eta adina galdetzeko; gonbidapenak makinaz idatzi zituzten; dendaz denda ibili ziren gozokiak, eztikiak, beirazko bolak eta paper-petardoak erosten; lehertuta geratu ziren elur bila arituta. Haur bakoitzari, mugetatik irten gabe eta aldi berean denak pozik geratzeko, zer opari egin erabakitzea izan zen garrantzitsuena eta zailena. Sofia Petrovna eta Nataxa zertxobait haserretu ere egin ziren zuzendariaren neskatxoari egiteko opariaren kontura. Sofia Petrovnak panpina handi bat erosi nahi zion, gainerako neskatxoei baino handiagoa; Nataxari, berriz, sotiltasunik ez izatea iruditzen zitzaion hori. Borla bigun batekiko txirula polit batekin adostu ziren. Izeia erostea baizik ez zen geratzen azkenean. Izei garai bat erosi zuten, sabairainokoa, adar zabal, tapituak zituena. Nataxa, Sofia Petrovna eta

Maria Ivanovna igogailuzaina jai bezperako goizetik arratsaldeko ordu biak arte aritu ziren izeia apaintzen. Maria Ivanovnak zuzendariaren emazteari buruzko gauzak kontatuz entretenitzen zituen; antzinako garaietan bezala hitz egiten zuen zuzendariaz, «nagusia» deitzen zion. Igogailuzainak bolak, paper-petardoak, postontzitxoak, zilar koloreko itsasontzitxoak ematen zizkien Nataxari eta Sofia Petrovnari, eta haiek izeitik zintzilikatzen zituzten. Handik pixka baterako Sofia Petrovnari hankak min egiten hasi zitzaizkion, eta sofa batean eseri zen, eta han eserita txarteltxo batzuk sartzen zituen gozoki paketetxoetan: *Eskerrik asko Stalin kamaradari gure haurtzaro zoriontsuagatik*. Nataxak bakarrik jarraitu zuen izeia apaintzen. Esku trebeak zituen eta gustu handia: berak bakarrik jarri zuen Ded Moroz⁹ modu harrigarri batean. Ondoren, Sofia Petrovnak bost puntako izar gorri handi baten erdian Lenin haurtxo ilekizkur baten erretratutxoa itsatsi zuen, Nataxak izarra izeiaren erpinera jaso zuen, eta halaxe bukatu zen dena. Hormatik Stalin gorputz osoaz agertzen zen erretratu bat kendu eta beste bat jarri zuten haren ordeztu: Stalin eserita magalean neskato bat zuela. Hura zen Sofia Petrovnak gogokoen zuen erretratua.

Hirurak. Etxera joateko garaia: lokamuska bat egin, bazkaldu eta jaia baino lehen janzteko.

Jaia ezin hobeto atera zen. Haur guztiak eta ia aita eta ama guztiak azaldu ziren. Zuzendariaren emaztea ez zen agertu, baina zuzendaria bai, eta berak ekarri zuen alabatxoa, ile horiko neskato zoragarri bat. Haurrak pozarren zeuden opariekin, gurasoek ahots goran miresten zuten izeia. Ana Grigorievna, batzor-

9 Ded Moroz (Aitona Izotza) herrialde anglo-saxoiatiko Father Christmasen parekoa. 1930eko hamarkadatik aurrera zabaldu zen pertsonaia urte berria iragartzeko. Aurrez ipuinetako pertsonaia bat zen baina ez zuen urteko garai jakin batekin loturarik, ez zen Santa Klausen parekoa.

de sindikaleko lehendakaria, baizik ez zen mindu bere semeari danbor bat oparitu ziotelako, eta ez berunezko soldadutxoak, alderdiko antolakuntza-idazkariaren semeari bezala; soldadutxoak garestiagoak ziren. Zeta berdezko soineko batez zegoen jantzita, eskotea eta guzti. Semea, mutiko luzexka, gogaikarri bat, ziztuka hasi eta ukabilkada batez puskatu eta urratu zuen danborra harro-harro. Baina gainerako guztiak pozik zeuden. Zuzendariaren alabatxoa ez zen nekatzen bere turutari puzka, aitaren belaunen artean jauzi-jauzika, bere beso potoloa aitaren belaunean pausatuz eta bu-rua atzera botaz, izeia ikusteko.

Sofia Petrovna dantzako erregina egiazkoa bailitzan sentitzen zen. Gramofonoari korda ematen zion, irratia pizten zuen, igogailuzainari begiez gozoki-erretilua nori eraman adierazten zion. Nataxak pena ematen zion; hormaren kontra estutzen zen herabez, zurbil eta gris, berak brodatutako blusa dotore berriarekin. Zuzendariak, makurturik, alabatxoa izeiaren inguruan eraman zuen, eta Santa Klausek beldurrarazi zuen. Sofia Petrovna samurki zegoen eszena hari begira: Koliak denean zuzendariaren antza izatea gustatuko zitzaiokeen. Nork jakin, urte pare batean berak ere beharbada hura bezalako bilobatxo pollit bat izango ez ote zuen. Edo muttikoa. Bilobatxoari, mutila bazen, izena Vladlen jartzeko konbentzituko zuen Kolia, bai izan polita!; edo neska bazen, Ninel, izen dotorea, frantsesa, eta aldi berean, atzekoz aurrera irakurriz gero, Lenin ateratzen zena.

Sofia Petrovnari, nekaturik, sofan hondoratu zen. Etxeratzeko ordua zen; buruko mina hasi zitzaion. Itxura oneko kontu-eramailea ondoratu zitzaion, eta adeitasunez buru-makurtze bat eginik, berri bitxi bat eman zion: sendagile mordo bat atxilotu omen zuten

hirian. Kontu-eramaileak zuzenean ezagutzen zituen hiriko sendagintzako izen handi guztiak: bere ekzema ez zitzaion joaten inolako tratamendurekin; Fedor Ivanovitx zenak baizik ez zion asmatu nola kendu. («Hura bai sendagilea! Besteek hautsak, kremak ematen zituzten, baina ezer ez...»). Atxilotuen artean Kiparisov doktorea aipatu zuen kontu-eramaileak, Fedor Ivanovitxen lankidea, Koliaren aita pontekoa.

— Zer? Kiparisov doktorea? Ez da posible! Eta zer gertatu da? Berriro zeraren bat... zoritxarren bat...? – galdetu zuen Sofia Petrovnak, «hilketa» hitza esatera ausartu gabe.

Kontu-eramaileak begiak jaso zituen, atsekabez, eta urrundu egin zen, zerbaitengatik oin-puntetan ibiliz. Bi urte lehenago, Kirov hil zutenean (zein goibelak egun haiek! patruilak zebiltzan kaleetan... eta Stalin kamaradaren zain zeudenean, geltokiko plaza soldaduz inguratuta zegoen... kalea, kalexxkak itxita... ez sartzeko ez ateratzeko); Kiroven hilketaren ondoren ere jende asko atxilotu zuten, baina orduan, oposizioko batzuk harrapatu zituzten hasieran, eta gero «antzina-koak», «von baron» guztiak. Eta orain, sendagileak.

Kiroven hilketaren ondoren madame Nejentseva, Sofia Petrovnaren ezagun zaharra, noblea omen zelako eraman zuten; lizeoan elkarrekin ikasiak ziren. Sofia Petrovna sor eta lor geratu zen: zer lotura izan ote zitekeen madame Nejentsevaren eta hilketaren artean? Frantses irakaslea zen eskola batean, eta beste guztiak bezalaxe bizi zen. Baina Koliak argitu zion Leningrad garbitu beharra zegoela elementu susmargarrietatik. Eta zer da, egia esateko, zure madame Nejentseva hori? Zeren zeu ere gogoratuko zara, ama, ez zuela aintzat hartzen Maiakovski, eta beti ari zela esaten antzinako garaietan dena merkeago zegoela. Ez

da egiazko sobietarra... Ados, baina sendagileak? Zeren errua zuten? Pentsatze hutsa ere: Ivan Ignatievitx Kiparisov! Hura zen sendagile errespetagarria!

Haurrak zalapartan ari ziren jantzi-gelan. Sofia Petrovna, etxeoandre gisa, gurasoei galtzak eta botak aurkitzen laguntzen ari zen. Zuzendaria agurtzera etorri zen, alabatxoa besoetan zuela. Eskerrak eman zizkion batzorde sindikalari jai bikain harengatik.

— *Pravdan* zure semearen argazki bat ikusi nuen —esan zion, irribarre eginez—. Ordezko txanda bikaina datorkigu... —Sofia Petrovnak miresmenez begiratzen zion. Gogoia zuen esateko ez zuela eskubiderik txanda-kontuez hitz egiteko; zer ziren hogeita hamabost urte? Gaztaroaren hasiera! Baina ez zen ausartu. Zuzendariak berak jantzi zuen alabatxoa eta txamarraren gainetik zapi zuri guri batez babestu zuen. Bai jakin gauzak egiten. Ama batek lasai utz dezake haurra berekin. Segituan ikusten zen, familiako aita bikaina.

7

Egunkariak ez zekarten ezer sendagileez eta Kiparisov doktoreaz. Sofia Petrovna haren emazteari ikusi bat egitera joateko asmoa zuen, baina ez zen ausartzen. Ez zuen astirik, eta deserosoa gertatzen zitzaion, gainera. Baziren hiru bat urte Kiparisov ikusten ez zuela. Nola joan behar zuen orain, kolpetik, besterik gabe?

Urtarrilean aurki izateko zen beste epaiketari berri bati buruzko artikuluak hasi ziren agertzen egunkarietan. Kameneven eta Zinovieven epaiketak bortizki astindu zuen Sofia Petrovnaren imajinazioa, baina egunkariak irakurtzeko ohiturarik ez zuenez, ez zuen jarraitu egunik egun. Oraingo honetan, ordea, Nataxak egunkariak irakurtzera bultzatu zuen eta egunero irakurtzen zituzten elkarrekin epaiketa berriari buruzko artikulu guztiak. Inguruan seta handiz hitz egiten zen espioi naziez, terroristez, atxiloketez... Pentsatzea ere zital haiek Stalin maitea hil nahi zutela. Baina haiek hil zuten Kirov. Meatzeetan atentatuak antolatzen zituzten. Trenak deskarritatzen zituzten. Eta ia instituzio guztietan zuten beren jendea.

Atsedeen-etxe batetik itzuli berria zen bulegoko mekanografo batek kontatu zuen, bere ondoko gelan bazela ingeniari gazte bat, eta inoiz elkarrekin paseatu ere egin zutela parkean. Behin, gauez, bat-batean auto bat etorri eta atxilotu egin omen zuten; zer eta sabotaje-egilea omen zen. Lehen ikusian zintzoa zirudien, eta ez zara jabetzen.

Sofia Petrovnaren etxean, 45. apartamentuan, aurre-aurrekoan, bat atxilotu zuten, komunista bat. Zigilu gorri batez zigilatu zuten haren gela. Administrazioaileak kontatu zion Sofia Petrovnari.

Iluntzean Sofia Petrovna betaurrekoak janzten zituen –azkenaldi hartan presbizia hasia zitzaion–, eta ozen irakurtzen zion egunkaria Nataxari. Zamaua bukatuta zeukan; Nataxa ohe estalki bat brodatzen ari zen orain Sofia Petrovnarentzat. Kolia orain seguru asko zein suminduta egongo zen hitz egiten zuten. Eta ez Kolia bakarrik; jende prestu guztia zegoen suminduta. Zeren sabotaje-egileek errailetatik ateratzen zituzten trenetan, bazitekeen haurrak egotea! Nolako bihozgabekeria! Munstroak halakoak! Zerbaitengatik zituzten troskistek lotura estuak Gestaporekin: horretan ez ziren Espainian haurrak hiltzen ari ziren faxistak baino ho-beak. Eta nola zitekeen Kiparisov doktorea gaizkile talde hartan parte izatea? Behin baino gehiagotan gonbidatu izan zuten Fedor Ivanovitxekin batera sendagileen batzarretara. Batzarraren ondoren Fedor Ivanovitxek etxera eramaten zuen, tea hartu eta une batez egoteko. Sofia Petrovna bertatik bertara ikusten zuen, oraintxe bertan Nataxa ikusten zuen bezala. Eta orain gaizkile talde batean zebilen! Nork espero zezakeen halakorik? Hura bezalako agure errespetagarri bat.

Ilunabar batean, auzipetuek egindako krimenen zerrenda egunkarian irakurrita, eta irratian ere

zerrenda hura bera entzunda, Nataxak eta berak hain bizi-roi imajinatu zituzten erauzitako besoak eta hantak, hilotz elbarrituz osatutako mendiak, non Sofia Petrovnari beldurra sartu baitzitzaion bere gelan bakarrik geratzeko, eta Nataxari kalera bakarrik ateratzeko beldurra, eta Nataxak haren sofan igaro zuen gau hura.

Alde guztietan, enpresa guztietan, erakunde guztietan egiten ziren mitinak; beren argitaletxean ere izan zen mitin bat, epaiketari buruz. Batzorde sindikaleko lehendakaria gela guztietatik igaro zen eta ohartarazi zuen garaiz aurretik irten nahi zuen arduragaberen bat bazen, hartzeko kontuan: kanporako atea itxita zegoela. Den-denak agertu ziren bileran, baita erredakzioko saileko langileak ere, normalean egon ohi ez zirenak. Zuzendaria mintzatu zen, eta labur, lehor eta zehazki azaldu zuen berripaperaren adierazpena. Haren ondoren, alderdiko antolakuntza-idazkariak hitz egin zuen, Timofeiev kamaradak. Bi hitzez behin etenez, esan zuen herriaren etsaiak alde guztietan ari zirela lanean, bazitekeela gure erakundean bertan ere sartuta egotea eta horregatik beharrezkoa zela langile prestu guztiek etengabe piztea beren ernetasun politikoa. Ondoren, batzorde sindikaleko lehendakariari, Ana Grigorievnari eman zioten hitza.

—Kamaradak! —esan zuen, begiak erdi itxi zituen eta isildu egin zen—. Kamaradak! —azkazal luzeko behatz meheak estutu zituen—. Etsai zitalak gure erakunde honetaraino luzatu du bere erpe zikina. —Izoztuta geratu ziren denak. Kameua gora eta behera mugitzen zen Ana Grigorievnaren bular betean—. Atzo atxilotu zuten Gerasimov, gure inprimategiko arduradun ohia, orain moztorra kendu eta herriaren etsaia zela ezagutu dena. Orain dela hilabete harrapatu zuten Moskuko Gerasimov baten iloba zen. Gure alderdiko

zelularen tolerantziari esker, Stalin kamaradak zuzen handiz esan bezala, axolagabekeriaren gaitz ergelak jota baitago, Gerasimovek gure inprimategian «lanean» jarraitu zuen, hala deitu baldin badakioke, baita bere osaba, Moskuko Gerasimov hori, harrapatu ondoren ere.

Eseri egin zen. Bularra gora eta beheara zebilkion.

— Galderarik? –galdetu zuen zuzendariak, hura baitzen bilerako mahaiburua.

— Eta zer... zer egin dute... inprimategian? –galdetu zuen Nataxak herabez. Zuzendariak batzorde burua seinالاتu zuen buruaz.

— Zer egin duten? –erantzun zion hark, ahotsa goratuz, aulkitik jaikita-. Garbi uste dut azaldu dudala, Frolenko kamarada, errusieraz azaldu ere, gure inprimategiko arduradun ohia, Gerasimov, Moskuko beste Gerasimov horren iloba gertatu dela. Egunero zegoen harremanetan bere osabarekin... inprimategiko mugimendu stakhanovista desegiten zuen... plana saboteatzen zuen... osabak esanda. Gure alderdiko zelularen adostasun kulpazkoarekin.

Nataxak ez zuen besterik galdetu.

Bileraren ondoren etxera itzultzean, Koliari eskutitz bat idazteko eseri zen Sofia Petrovna. Inprimategian etsaiak aurkitu zituztela idatzi zion. Eta Uralmaxen? Dena ondo han? Gazteria Komunistako kide prestua zen aldetik, Koliak adi egon behar zuen.

Argitaletxean nabarmen sumatzen zen halako artegatasun bitxi bat. Zuzendariari egunero deitzen zioten Smolny-ra¹⁰. Alderdiko antolakuntzako idazkari kopetiluna etengabe sartzen zen bulegoan, atea bere orotarako giltzaz zabalduz, eta Erna Semenovnari

10 Kale hartan zegoen Sobiet Batasuneko Alderdi Komunistaren egoitza nagusia.

bulego berezira joateko deitzen zion. Kontu-eramaile adeitsuak, nola edo hala denbora guztian gauza guztien jakinean egon ohi zenak, Sofia Petrovnari kontatu zion orain arratsaldero elkartzen zela alderdiko zelula.

— Maitaleak muturtuta –esan zion, irribarre esanguratsu bat eginez–. Ana Grigorievna alderdiko antolamendu-idazkariari botatzen dio erru guztia, eta hark zuzendariari. Ulertzen dudanez, aurki izatekoa da zuzendaritza-aldaketa bat.

— Zeren errua botatzen dio? –galdetu zion Sofia Petrovna.

— Ba, begira... ez daude ados nor izan zen Gerasimovez ohartu ez zena.

Sofia Petrovna ez zuen ezer garbirik atera, eta egun horretan halako urduritasun lauso batez atera zen argialetxetik. Klean andre zahar altu bati erreparatu zion; burukoaren gainean zapi bat zeraman, feltrozko botak, eskalapiak eta bastoia eskuan. Labain non ez zegoen bilatzen zuen bastoiak. Aurpegia ezaguna egiten zitzaion Sofia Petrovnari: Kiparisoven emaztea zen! Bera zen, benetan? Ai, Jainkoa, zein aldatuta zegoen!

— Maria Erastovna! –deitu zion Sofia Petrovna.

Kiparisoa gelditu egin zen, bere begi beltz handiak jaso zituen eta ahalegin nabarmena eginez, irribarre amultsu bat marraztu zuen bere aurpegian.

— Arratsalde on, Sofia Petrovna! Zenbat urte, zenbat denbora ikusi gabe! Mutikoa gizon egina izango duzu dagoeneko, ezta?

Han zegoen zutik, Sofia Petrovnari eskutik helduta, baina aurpegira begiratu gabe. Haren begi handi-handiek alde guztietara begiratzen zuten larri.

— Maria Erastovna –esan zion Sofia Petrovna bihotzetik–. Nola pozten nauen zu topatzeak. Arazoak

dituzula entzun dut... Ivan Ignatievitxekin... Entzun, lagunak gara, ezta?... Ivan Ignatievitx Koliaren aita pontekoa izan zen... horrek gaur egun ez dio axola, jakina, baina gu lehengo erakoak gara. Esadazu, gauza seriorekin bat salatzen diote Ivan Ignatievitxi? Posible al da salaketa horiek inolako oinarririk izatea? Nik ezin baitut, ezin baitut sinetsi. Hain sendagile ona, hain sendagile errespetagarria! Nire senarrak beti estimatu zuen eta bera baino hobetzat zeukan, klinikari gisa.

— Ivan Ignatievitxek ez du ezer egin aginpide sobietarraren kontra —esan zuen Kiparisovak goibel.

— Bai nik esan! —egin zuen oihu Sofia Petrovnak—. Behintxo ere ez dut zalantzarik izan, eta halaxe esan diet, esan ere, denei...

Maria Kiparisovak goibelki begiratu zion bere begi beltz handiez.

— Ikusi arte, Sofia Petrovna —esan zion, irribarre egin gabe.

— Ivan Ignatievitx itzultzen denean, gonbida nazazu pastel bat jatera —jaulki zuen Sofia Petrovnak—. Zergatik zaude benetan horren atsekabetua? Ivan Ignatievitx errugabea bada, ongi aterako da dena. Gure herri honetan, gizon zintzoari ezin dakioke ezer gertatu. Nahasteren bat besterik ez da. Begira, animatu zaitez... Zatoz egun hauetakoren batean tea hartzera!

Maria Kiparisoa espaloian aurrera abiatu zen, bastoiaz izotza ote zegoen joz.

«Hainbeste zahartu ote naiz neu ere bada? —pentsatu zuen Sofia Petrovnak—. Aurpegia iluna du, dena zimur. Baina ez, ez da posible, oraindik ez nago horrela. Bere burua oso utzita dago; feltrozko botak, bastoia, zapia... Emakumeentzat asko esan nahi du bere burua ez uzteak, zaintzeak. Nork darabiltza feltrozko botak gaur egun? Ez gaude hemezortzian. Hirurogeita bost

urte badituela ematen du, eta berrogeita hamar baino gehiago ez ditu... Ongi dago Kiparisov erruduna ez izatea. Inork jakitekotan, emazteak jakingo du hori. Bai nik esan, nahaste bat dela hau, eta besterik ez».

8

Biharamunean mekanografiako bulegoa seihi-labeteko txostena burutzen ari zen. Denek zekiten gau hartan bertan zuzendaria Moskura zihoala tren lasterrean, hurrengo egunean Alderdiko Batzorde Zentraleko Argitalpen Sailean argitaletxean sei hilabete haietan egindako lanaren berri emateko. Sofia Petrovnak presa ematen zien mekanografoei. Nataxa gelditu gabe aritu zen idazten, bazkaltzeko etenean ere.

Hiruretarako, txostena Sofia Petrovnaren aurrean zegoen, lau aletan; eta hark arreta handiz banatu zuen lau kopiatan. Grapak xuhurtu gabe, zuzen-zuzen lotu zituen orriak.

Baina zuzendariaren idazkaria ez zetorren txostenaren bila. Sofia Petrovnak bulegora berak eramango zizkiola erabaki zuen.

Zuzendariaren bulegoaren ate erdi irekiaren aurrean, alderdiko zelulako idazkariarekin egin zuen topo.

— Horra ezin da! —esan zion hark, agurtu ere gabe, eta, herrenka, beste gela batera sartu zen. Itxura nahasia zuen.

Sofia Petrovna begiratu bat egin zuen ate erdi irekitik barrura. Idazmahaiaren aurrean ezezagun bat zegoen belauniko, tiraderetatik paperak ateratzen. Bulegoko alfonbra osoa paperez estalita zegoen.

— Zer ordutan egongo da gaur Zakharov kamara? —galdetu zion Sofia Petrovna idazkari adintsuari.

— Atxilo eraman dute —erantzun zion idazkariak ezpain hutsez, ahotsik gabe—. Bart.

Ezpainak urdin zituen.

Sofia Petrovna txostena bere bulegora eraman zuen berriro. Bulegoko atera iritsi zenean belaunak kolokan zituela sentitu zuen. Makinen burrunbak gortu egiten zuen. Bazekiten dagoeneko mekanografoek ala ez zekiten? Ezer gertatuko ez balitz bezala jarraitzen zuten makinaz jotzen. Zuzendaria hil zela jakinarazi baliote, ez zen txundituago egongo. Bere lekuan eseri zen, eta orriei grapak kentzen hasi zen pentsatu gabe. Timofeiev sartu zen, atea bere giltzaz zabalduz. Orduantxe ohartu zen lehenengo aldiz Sofia Petrovna ezen, herrena gorabehera, alderdiko zelulako idazkaria oso tente zebilela eta pauso erregularra zuela.

— Barkatu! —esan zuen Sofia Petrovna ikaraturik, hark ondotik igarotzean nahi gabe bizkarrean ukitu zuenean.

Laurak eta erdietan jo zuen azkenean txirrinak. Sofia Petrovna isilik jaitsi zituen eskailerak, isilik jantzi zen eta kalera atera zen. Elurra urtzen ari zuen. Sofia Petrovna istil baten aurrean gelditu zen, nola inguratu kontu handiz pentsatuz. Nataxa ondoratu zitzaion. Hark bazekien dagoeneko, Erna Semenovna esanda.

— Nataxa —hasi zen esaten Sofia Petrovna elkarri agur egin ohi zuten kale kantoiraino iritsi zirenean—. Nataxa, zuk uste duzu Zakharov zerbaiten erruduna dela? Bai zera, hori zentzugabekeria... Nataxa, guk badakigu...

Ez zituen bere ziurtasuna adierazteko hitzak aurkitzen. Zakharov, boltxebikea, beren zuzendaria, egunero ikusten zutena, Zakharov, sabotaje-egilea! Ez zen posible, ez zuen zentzurik, *astakeria*, Fedor Ivanovitxek garai batean esan ohi zuen bezala. Nahasteren bat? Baina alderdiko goi mailako kidea zen, ordea, eta Smolnyn bezala Moskun ere ezaguna zen, ezin zuten deskuiduz atxilotu. Ez zen Kiparisov arrunt bat!

Nataxak isilik jarraitzen zuen.

— Goazen zure etxera, oraintxe azalduko dizut dena —esan zion bat-batean Nataxak, ohi ez bezalako solemnetasun batez.

Hara joan ziren. Isilik aldatu ziren jantziz. Nataxak kontu handiz tolestutako egunkari bat atera zuen bere kartera zaharretik. Egunkaria Sofia Petrovnaren aurrean zabaldu, eta barruko gehigarriko artikulu bat erakutsi zion.

Sofia Petrovnak betaurrekoak jantzi zituen.

— Ohartzen zara, maitea, atzipetu egin dute beharbada —esan zuen Nataxak xuxurlaka—. Emakume-
ren batek...

Sofia Petrovna irakurtzen hasi zen.

Artikuluari A. izeneko bat aipatzen zen, sobietar herritarra, alderdikide zintzoa, sobietar agintariak Alemaniara zerbitzu-betekizun batera bidalia, aspaldi ez zela asmatutako produktu kimiko baten erabilera aztertzeraz. Alemanian zintzo bete zuen bere egitekoa, baina, handik pixka batera, ustez Sobiet Batasunaren aldekoa zen S. izeneko emakume gazte dotore batekin maitemindu zen. S. hori maiz joaten zen A. herritarraren etxera, bisita egitera. Eta halako batean A. herritarra ohartu zen garrantzizko dokumentu politiko batzuk desagertu zitzaizkiola idazmahaitik. Apartamentuaren jabeak jakinarazi

zion bera kanpoan zela S. gelara bisita egitera joan zitzaiola. A. herritarrak S.rekiko harremanak bertatik eteteko gizentasuna izan zuen, baina ez bere kamaradei dokumentuen galeraren berri emateko. SESBera itzuli zen, Aberriaren kontra egindako hobena sobietar ingeniari zintzo baten lana eginez garbituko zuelako itxaropenez. Urte osoan lan egin zuen lasai, eta egindako errua ahazten ere hasi zen. Baina Gestaporen agente moztarotak, gure herrialdean infiltraturik, xantaia egiten hasi zitzaizkion. Haiek izaturik, A.k lanean ari zen fabrikaren plan sekretuak eman zizkien. Txekako kide ausartek faxismoaren agente batzuk harrapatu zituzten: ikerketaren hariek A. zoritxarrekoarenganaino eraman zuten.

— Ohartzen zara? —galdetu zion Nataxak xuxurla batean—. Ikerketaren hariek. Gure zuzendaria oso pertsona ona da, zalantzarik gabe, alderdiko kide zintzoa. Baina baita A. herritarra ere, hemen diote, hura ere alderdiko kide zintzoa zen hasieran... Emakume polit batek alderdiko edozein kide zintzo nahas dezake.

Nataxak ezin zituen jasan emakume politik. Edertasun modutsu bat baizik ez zuen onartzen, eta halakorik inorengan ez zuen aurkitzen.

— Gure zuzendaria atzerrian bizi izandakoa omen da —gogoratu zuen Nataxak—. Zerbitzu-betekizunez bera ere. Gogoratzen Maria Ivanovna igogailuzainak nola kontatu zigun zuzendariak emazteari puntuzko traje urdin bat ekarri ziola Berlindik?

Artikuluak bortizki asaldatu zuen Sofia Petrovna; hala ere kosta egiten zitzaion sinestea. Hura A. omen zen; hau Zakharov. Alderdiko aspaldiko kidea; berak prestatu zuen epaiketari buruzko txostena. Eta

bere zuzendaritzapean argialetxeak beti bete izan du, sobera bete ere, plana.

— Nataxa, guk badakigula –esan zuen Sofia Petrovna nekaturik.

— Zer dakigu guk? –esan zion Nataxa, berotarik—. Badakigu gure argialetxeko zuzendaria zela, baina, jakin, gehiago ez dakigu. Ezagutzen al duzu bada, zuk, bere bizitza guztia? Haren erantzule egin zintezke?

Eta egia zen: Sofia Petrovna ez zuen ideiarik ere zertan aritzen zen Zakharov kamarada argialetxeko bilerak zuzentzen edo Urte Berriko jaira bere alaba eramaten ari ez zenean. Gizonezkoei, denei, salbuespenik gabe, denei gustatzen zaizkie neurririk gabe emakume politak. Edozein neskame lotsagabek lotu zezakeen kate motzean edozein gizon, baita zuzenena ere. Sofia Petrovna Fanny garaiz kalera bota ez balu, nork jakin zertan buka zitekeen Fedor Ivanovitxekin zerabilen maite-jolasa.

— Har dezagun te bat –esan zuen Sofia Petrovna.

Tea edan bitartean, Zakharoven gorpuzkeraren ezaugarria haren itxura militarra zela gogoratu zuten. Bizkarra zuzen, bizkar zabala. Ez zen bada, bere garaian, gudaroste zuriko ofiziala izango? Adinagatik, aise izan zuen astia.

Te hutsa edan zuten. Hain nekatuta zeuden biak, non ez baitzuten ganorarik izan opil gozo edo pastel bila dendara jaisteko. «Bihar egun astuna izango da argialetxean –pentsatu zuen Sofia Petrovna—. Etxean hildakoren bat dagoenean bezala. Nolanahi ere, pena ematen dit zuzendariak». Haren bulegoko ate erdi irekia eta gizona mahaiaren aurrean belauniko gogoratu zituen. Orain arte ez zen ohartu miaketa bat zela.

Nataxa ateratzeko prestatzen ari zen. Kontu handiz tolestu zuen egunkaria eta karteran ezkutu zuen. Ondoren, ur irakinez baso bat bete, eta irten baino lehen bere esku handi gorri haiek basoaren inguruan berotzen aritu zen. Txikitan izoztu egin zitzaizkion, eta izoztuta zeuzkan beti.

Horretan, txirrina jo zuten. Eta berriro. Sofia Petrovna zabaltzera joan zen. Bi txirrin-joaldi, beretzat zen. Nor ote zen hain berandu?

Alik Finkelstein zegoen ate ostean.

Alik bakarrik, Koliarik gabe, ikustea naturaz kontrakoa zen.

— Kolia? —jaulki zion Sofia Petrovnak, Alik zintzilik zeraman lepokoaren muturretik helduz—. Ez zuen sukarrak tifoiderik harrapatuko?

Alikek, Sofiari begiratu gabe, eskalapoiak erantzi zituen geldiro.

— Ixo! —esan zuen azkenik—. Goazen zure apartamentura. Eta korridorera abiatu zen, oin puntetan, bere hanka motzak modu barregarri batez bereiziz.

Sofia Petrovnak bere onetik aterata jarraitzen zion.

— Ez ikaratu, batez ere, Jainkoarren, Sofia Petrovna —esan zion, atea erdi itxi zuenean—, sosegatu, mesedez, Sofia Petrovna, ez du merezi izutzerik, benetan. Ez da ezer izugarririk gertatu. Herenegun bezperan... edo noiz izan zen? Azkeneko jaiegun bezperan... Kolia atxilotu zuten...

Sofan eseri zen, bi tiraldiz bufanda askatu zuen, lurrera jaurti zuen eta negarrez hasi zen.

9

Segituan joan behar zen lasterka norabait eta munstrokeriazko hutsegite hura argitu. Une hartan bertan abiatu behar zen Sverdlovskerantz eta abokatuak, prokuradoreak, auzi-epaileak, instrukzio-epaileak mugiarazi. Sofia Petrovnak berokia, txanoa, botak jantzi eta kutxatxo batetik dirua hartu zuen. Dokumentazioa ez ahaztu. Eta tren geltokira oraintxe bertan, txartelaren bila.

Baina Alikek, aurpegia bufandaz xukaturik, bere iritzian orain Sverdlovskera joateak batere zentzurik ez zuela esan zion. Kolia, jatorriz leningradtarra izanik, eta Sverdlosken oraindik denbora gutxi zeramanez, Leningradera ekarriko zuten seguru asko. Ez zen hobe izango Sverdloskera joatea atzeragoko uztea? Ez ote ziren elkarrekin gurutzatuko gero? Sofia Petrovnak berokia erantzi eta mahai gainean bota zituen dokumentazioa eta dirua.

— Giltzak? Giltzak han utzi dituzu? –hasi zen oihuka, Alikengana ondoratuz—. Utzi dizkiozu giltzak norbaiti?

— Giltzak? Zer giltza? —Alik txundituta geratu zen.

— Ene Jainkoa, bai tentela zarela! —egin zion errietan Sofia Petrovnak, eta negarrari eman zion bertatik, oso ozen, oihuak eginez. Nataxa lasterka on-doratu zitzaion, eta besarkatu egin zuen—. Bai, giltzak... gelakoak... zuen, nola da... egoitzakoak...

Ez zioten ulertzen, eta harridurazko begiez begiratzen zioten. Tentelak! Sofia Petrovnari eztarria estutzen zitzaion, eta ez zen hitz egiteko gauza. Nataxak baso bat urez bete eta luzatu zion.

— Zeren... zeren... —esaten zuen Sofia Petrovnak, basoa urrunduz-, baliteke... beharbada... askatu izatea... bera ez zela ikusi... eta askatu... etxera itzuliko zuten, eta zu falta... giltzak falta... Orain iritsiko zaigu, seguru asko, bere telegramaren bat.

Sofia Petrovna bere ohe gainera jausi zen, bere bota eta guzti. Negar egiten zuen, burua bururdian hon-doraturik; luzaro egon zen negarrez, masaila eta bururdia bustitzeraino. Jaiki zenean, aurpegian mina zuen eta bihotza ukabilkadaka zebilkion bularrean.

Nataxa eta Alik txutxu-mutxuka ari ziren leiho ondoan.

— Horixe egingo dugu —esan zuen Alikek, be-turrekoetatik zehar bere begi onbera haiez errukiz begiratzuz-, Natalia Sergeievnak eta biok erabaki dugu. Orain zu lotara joan, eta bihar goizean lasai-lasai fis-kaltzara joango zara. Natalia Sergeievnak argitaletxean esango du ondoezik zaudela... edo beste zerbaitek... kar-bono-ihes bat izan dela... nik al dakit!

Alikek alde egin zuen. Nataxak gaua pasatzera geratu nahi zuen, baina Sofia Petrovnak esan zion ez zuela ezertxoren beharrik. Nataxak musu eman zion eta alde egin zuen. Hura ere negarrez zegoela zirudien.

Sofia Petrovna aurpegia ur hotzez garbitu zuen, erantzi eta oheratu egin zen. Ilunpean tranbiaren txinpartek oinaztarriak bailiran argitzen zuten gela. Horman eta sabaian erditik tolestutako paper orri baten moduan ikusten zen argi-koadro bat. Erizainaren gelan Valia garrasika eta barrez ari zen oraindik. Sofia Petrovna Kolia instrukzio-epailearengana eskoltapean nola eramaten zuten imajinatzen zuen. Instrukzio-epailea itxura ederreko militar bat zen, dena uhalez eta patrikaz betea. «Nikolai Fomitx Lipatov zara?» –galdetuko zion militarrek Koliari-. «Ni Nikolai Fedorovitx Lipatov naiz» –erantzungo zio Koliak duintasunez. Instrukzio-epaileak zorrozki kargu hartzen zion eskoltako soldaduari eta desenkusatu egiten zen Koliaren aurrean. «Hara! –esaten du-, nola ez zaitut bada lehenengotik ezagutu? Zu zara-eta orain dela gutxi *Pravda* argazkian ikusi nuen ingeniari gaztea! Barkatu, mesedez. Kontua da zure deitura bereko Nikolai Fomitx Lipatov hori troskista bat dela, mertzenario faxista bat, sabotatzaile bat...»

Sofia Petrovna gau osoa eman zuen telegramaren zain. Etxera itzuli, langileen bizilekura, eta Alikek Leningradera alde egin zuela jakitean, Koliak telegrama bat bidaliko zuen segituan, ama lasaitzeko. Goizeko seiak aldean, tranbiak berriro zarata egiten hasi zirenean, Sofia Petrovna lo hartu zuen. Eta txirrin-hots sarkor batek esnatu zuen; zuzenean bihotzera sartzen zitzaiola iruditu zitzaion. Telegrama? Baina txirrin-hotsa ez zen errepikatu.

Sofia Petrovna jantzi, garbitu, eta bere burua te bat hartzera eta gela garbitzera behartu zuen. Eta kalera atera zen, ilunpera. Lehen bezala ari zuen lumentzen, baina gauean istilak izotz geruza mehe batez estali ziren.

Urrats batzuk eginda, gelditu egin zen. Nora joan behar zuen, izan ere?

Alikek esana: fiskalaren bulegora. Baina Sofia Petrovna ez zekien garbi zer zen fiskaltza, eta ez zekien non zegoen ere. Eta lotsa ematen zion oinezkoiei leku hari buruz galdetzeak. Eta fiskaltzara ez baina kartzelara joan zen, bazekielako, hala suertatuta, Xpaliernaia kalean zegoela kartzela.

Burdinazko sarreran zentinela bat zegoen, bere fusilarekin. Aldameneko sarrera txikia, atearen ondo-koa, itxita zegoen. Sofia Petrovna alferrik saiatu zen ateari eskuaz eta belaunaz bultzatzen. Eta inon ere ez zen abisurik ikusten.

Zentinela ondoratu zitzaion.

— Bederatzietan utziko dute sartzen –esan zion.

Zortziak hogeit gutxi ziren. Sofia Petrovna berriro etxera ez itzultzea erabaki zuen. Aurrera eta atzera ibili zen, kartzelatik gertu, burua gorantz jasoz eta aldirio burdinazko aterantz begiratzuz.

Ba ote liteke Kolia hemen egotea, etxe honetan, burdin sare horien atzean?

— Hor ibiltzea debekatuta dago, andrea –esan zion zentinelak.

Sofia Petrovna kaleaz beste aldera igaro zen, eta pentsatu gabe abiatu zen aurrerantz. Ezkerrean Neva ibaiaren hutsune zabal elurtua ikusi zuen.

Ezkerreko kalerantz okertu zen eta ibaiertzera atera zen.

Egun-argia zen dagoeneko. Liteyny zubi gainean zaratarik gabe, bateratasun harrigarri batez, itzali ziren farolak. Neva ibaia elur horixka, zikinezko pilaz beterik zegoen. «Hiri osotik ekartzen dute elurra hona, seguru asko» –pentsatu zuen Sofia Petrovna. Kale erdian zegoen emakume pila handiari erreparatu zion.

Batzuk ukalondoa ibaiertzeko karel gainean pausatuta zeuden; beste batzuk ibili bat egiten ari ziren espaloian eta galtzadan zehar. Sofia Petrovna harritu egin zen denak oso arropa beros jantzita zeudelako: berokiaren gainetik lepoko zapia, eta ia guztiek zituzten feltrozko botak eta eskalapoiak. Lurraren kontra ostikoak joz eta eskuei putz egiten ari ziren. «Luzaro daude hor zutik, ikusten denez, horren izoztuta egoteko –pentsatu zuen Sofia Petrovna, zerbait egiteagatik–; ez du hotz handirik egiten, elurra urtzen ari da». Tren geltoki batean trenaren zain ordu pila bat zeramaten emakumeak ziruditen emakume haiek guztiek.

Sofia Petrovna arreta handiz begiratu zuen emakumeak aurrean pilatzen ziren eraikinari; eraikin arrunt bat zen, ez zuen inolako plakarik. Zeren zain zeuden, hortaz, han? Emakume pila hartan baziren beroki dotorez jantziak, baziren maila apaleko emakumeak. Zerbait egiteagatik, Sofia Petrovna bi bider igaro zen emakume pilaren erditik. Emakume batek bularreko haur bat zuen besoen artean, eta beste bat eskutik helduta, zapi bat bularrean gurutzatuta. Eraikinaren hormaren kontra gizonetako bat bakarra zegoen. Aurrekia berdekara zuten denek; goizeko lainoagatik ote zuten itxura hura?

Horretan, emakumetxo xahar txukun-txukun bat, bastoiarekin, ondoratu zen Sofia Petrovnarengana. Buruan ongi sartuta zeraman igaraba-larruzko txanoaren azpitik zilar-koloreko ilea eta judu-begi beltzak agertzen ziren.

— Zerrendaren bila? –galdetu zion adeitasunez amonatzakoak—. 28ko atean.

— Zer zerrenda?

— «L» eta «M»... Barkatu, andrea! Hemen zenbiltzan, eta horregatik iruditu zait zu ere atxiloturen baten galdezka ariko zinela.

— Bai, semeaz... —erantzun zion Sofia Petrovna harriturik—.

Bere zolitasunaz nahiko modu desatseginean harritu zuen atsotxo hari bizkarra emanik, 28 zenbakiko etxeko atearen bila abiatu zen Sofia Petrovna. Emakume haiek guztiak hara berak eraman zuen asmo bererako joanak ote ziren gogoeta borborka hasi zitzaion buruan. Baina zergatik zeuden han, ibaiertzeko pasealekuan, eta ez kartzela aurrean? A, bai; zentine-lak ez zuen uzten kartzela aurrean egoten.

28 zenbakiko etxea zubiaren ondo-ondoan zegoen azala galdutako etxe bakan bat zen. Sofia Petrovna sarrera nagusian sartu zen; dotorea, baina zikina zen, bere tximiniarekin, horma-ispilu erraldoi puskatu batekin eta hegal bat falta zitzaion marmolezko kupido batekin. Eskailera eder bateko lehenengo eskailera-mailan emakume bat zegoen etzanda, bizkarpean egunkariak jarrita, eta burupean intzigarrez estalitako paper-zorro bat, kuzkur-kuzkur eginda.

— Izena emateko da? —galdetu zion, burua jasoz. Eseri zen, eta papertxo zimurtu bat eta arkatza atera zituen paper-zorrotik.

— Ba ez dakit, egia esateko —esan zion Sofia Petrovna, nahastuta—. Nire semeaz hitz egitera etorri naiz, Sverdlovsk-en deskuiduren batez atxilotu dutelako... Badakizu... deitura bereko besteren baten orde... —

— Baxuago hitz egin —moztu zion emakumeak haserre. Emakume ikasiaren aurpegia, nekatua zuen—. Kendu egiten dituzte zerrendak, eta normalean... Nola du abizena?

— Lipatov —erantzun zion herabez Sofia Petrovnak.

— 344 —esan zion emakumeak, ohar bat idatziz—. 344 zenbakia duzu. Orain irten hemendik, mesedez.

— 344 —errepikatu zuen Sofia Petrovnak, eta ibaiertzeko pasealekura atera zen berriro.

Jendeketa hazi eta hazi ari zen.

— Zer zenbaki duzu? —galdetzen zioten behin eta berriro Sofia Petrovnari—. A, orduan gaur ez zaizu iritsi-ko —erantzun zion buruko zapia nekazarien moduan lotuta zerabilen emakume batek—. Gu atzo arratsaldeaz gero izena emanda gaude...

— Non dago zerrenda? —galdetzen zuten beste batzuek ahapeka... Eguna argituta zegoen dagoeneko: mugimendua hasten ari zen.

Eta bat-batean jendetza osoak lasterka ekin zion. Sofia Petrovna beste guztiekin batera abiatu zen lasterka. Lepozapiaz babestutako mutikoa negarrez hasi zen. Hankatxoak okertuta zituen eta nekez jarraitzen zion amari. Jendetzak Xpaliernaia aldera jo zuen. Sofia Petrovnak urrutitik ikusi zuen burdinazko ate handiaren ondoko atetxoa zabalik zegoela. Jendeak tranbiako atean bezala bultzatzen zuen han sartzeko. Kostata, baina Sofia Petrovna ere sartu egin zen. Eta segituan gelditu zen; aurrerago joaterik ez zegoen. Erdi ilunpetan zegoen atartean eta zurezko eskaileratxoan pilatzen zen jendea. Jendetza uhinka zebilen. Denak ari ziren beren buruko zapiak askatzen, lepoko botoiak askatzen, eta denak bideratzen ziren norabait: zein bere aurreko zenbakiaren bila. Eta atzetik jendea bultza eta bultza. Luma bat bailitzan zerabilten Sofia Petrovna. Berokia askatu zuen eta kopeta eskuzapiaz xukatu zuen.

Arnasa bueltatu eta ilunpe hartara ohitu ondoren, Sofia Petrovna ere behar zituen zenbakiak bilatzen hasi zen: 343 eta 345. 345 gizonezko bat zen, eta 343 atso xahar konkortu bat.

— Zure senarra ere letoniarra da? –galdetu zion atsoak, begi lausotuak Sofia Petrovnarengana jaso.

— Ez, zer bada? –erantzun zion Sofia Petrovnak—. Zergatik letoniarra zehazki? Nire senarra aspaldi hil zen, baina errusiarra zen.

— Esadazu gauza bat, eman dizute erreserba-txartela? –galdetu zion ibaiertzeko pasealekuan hizketan hasi zitzaion ile zuriko andre xahar juduak.

Sofia Petrovnak ez zion erantzun. Ez zuen ezer ulertzen. Emakume bat eskailera batean etzanda, eta orain galdera ergel batzuk letoniar batez, erreserba-txartelaz... Zer dela-eta erreserba-txartela? Ez zitzaion iruditzen Leningraden zegoenik, beste hiri ezezagunen batean baizik. Bitxia egiten zitzaion pentsatzea handik oinez hogeita hamar minutura bere lana, argitaletxea, Nataxa makinaz idazten zeudela...

Aurrekoak eta atzekoak aurkitu ondoren, jendea lasai geratzen zen. Aztertzen aritu zen Sofia Petrovna: eskaileratxoak gela batera zeraman, eta gelan ere pilaka zegoen jendea, eta gela haren ondoren beste bat zegoen, beharbada. Sofia Petrovnak zeharka begiratzen zuen ingurura. Paper-zorroa zuen emakumea, galtzerdi meheen gainetik lodiak eta txinel gastatuak zituena, eskaileran etzanda zegoen lehengo bera zen. Hemen ere ondoratzen zitzaion jendea, baina ez zituen zerrendan sartzen: beranduegi zen. Emakume haiek guztiak sabotatzaileen, terroristen, espioen amak, emazteak, arrebak zirela pentsatzea ere! Eta gizonezkoa, halakoren baten senarra edo anaia... Ikusi batera, guztiz pertsona normalak ziren, tranbiakoak edo dendakoak

bezalakoxeak. Baina denak nekaturik zeuden, aurpegi higuatuak zituzten. «Imajinatzen dut nolako zoritxarra izan behar duen ama batentzat bere semea sabotatzaillea dela jakiteak» –pentsatu zuen Sofia Petrovnak.

Aldian behin emakumeren bat jaisten zen eskailera karrankaritik behera, jendetzaren artean bidea zabalduz. «Onartu dizute?» –galdetzen zioten behean-. «Bai, onartu dute» –arrosa-koloreko paper bat erakusten zuen. Baina eskuan marmita handi bat zuen esneketari batek, ikusten zenagatik, «deportatua!» erantzun zuen. –eta ozenki negar egiten hasi zen, marmita lurrean utzita, burua ate-zangoaren kontra bermaturik. Zapia irrist eginda erori zitzaion, eta ile gorritzat eta belarrietan belarritako txiki batzuk agertu ziren. «Ixo!» –hasi zitzaizkion marmarka alde guztietatik. «Ez zaio zaratarik gustatzen, leihatila itxiko du, eta kito. Ixo!»

Esneketariak buruzapia txukundu eta masailean malkoak zituela atera zen.

Solasak entzunez, Sofia Petrovna ohartu zen emakume haietako gehienak beren senar edo seme atxilotuentzat dirua uztera joan zirela hara, eta banakaren batzuk senarra edo semea han al zegoen jakitera. Sofia Petrovnari burua biraka zebilkion bero itogarriagatik eta nekeagatik. Beldur handia zuen denek iritsi nahi zuten misteriozko leihatila hura bera iritsi baino lehen itxiko ez ote zen.

— Gaur ordu biak arte baizik ez badaude, ez zuri ez niri ez zaigu iritsiko txanda –esan zion gizonak.

— Ordu biak arte? Ordu biak arte egon behar dugu hemen? –pentsatu zuen Sofia Petrovnak tristu-raz-. Hamarrak hortxe izango dira-eta.

Begiak itxi zituen eta zorabioa gainditzen aha-
legindu zen. Maiz entzuten ziren ahots beheran egiten
ziren solas laburrak.

— Noiz eraman zuten zurea?

— Hiru hilabete badu.

— Nirea orain dela bi aste.

— Barkatu, ba al dakizu non lor daitekeen
informazioa?

— Fiskaltzan. Baina inon ez dute ezer esaten.

— Txaikovski kalera joan zara? Eta Herzen
kalera?

— Herzen kalean militarrena da.

— Noiz eraman zuten zurea?

— Nire alaba da.

— Armategian barruko arropa hartzen omen
dute.

— Zer zarete, letoniarrak?

— Ez, poloniarrak.

— Eta zurea noiz eraman zuten?

— Urte erdi bada.

— Zein zenbakitan doaz? Hogeian oraindik? Ene
Jainkoa, ez dezatela ordu bietan itxi! Azkeneko aldian
ordu biak puntu-puntu itxi zuten.

Sofia Petrovna behin eta berriro errepikatzen
zuen bere kolkorako galdetu behar zuena: Kolia Le-
ningradera ekarri zuten? Noiz ikusi ahal izango zen
epailea, edo instrukzio-epailea? Eta gaur bertan ezin
da? Ezin daiteke bertatik Kolia ikusterik lortu?

Bi orduren buruan Sofia Petrovna, zurezko
eskaileraren lehenengo mailaraino iritsi zen, atso
xaharraren atzetik. Hiru orduren buruan lehenengo
aretoraino. Lau orduren buruan bigarrenera, eta bost
orduren buruan, bihurka-bihurka zihoan ilarari jarrai-
tuz, lehenengo aretoraino berriro. Aurreko bizkarren

atzean zurezko leihatila bat begiztatzen zuen, eta leihatilan gizon lodikote baten bizkar zabalak eta esku handiak. Hirurak ziren. Sofia Petrovna kalkulua egin zuen: berrogeita hemeretzi pertsona zituen oraindik bere aurretik.

Emakumeek, beren abizena eman ondoren, diru pixka bat ematen zuten herabez leihatilan. Mutiko hanka-okerra negar-zotinka ari zen, malkoak mingainaz miazkatuz. –Esango diot nik horri –pentsatzen zuen Sofia Petrovna egonaria galduz–. Eraman nazala oraintxe bertan instrukzio-epailearengana, fiskalarengana, edo dena delakoarengana. Zein kultura falta dugun oraindik! egiten duen bero itogarriarekin, eta ez dira bentilazioa konpontzeko gauza. Gutun bat bidali beharko litzateke *Leningradeko Pravdara*.

Eta, hara, azkenean hiru baizik ez ziren geratzen Sofia Petrovnaren aurretik. Badaezpada ere, berak ere bazuen diru pixka bat prestatuta: Koliak ez zezala ezeren faltarik izan. Atso xahar konkordunak 30 errublo eman zituen leihatilan, esku dardarti batez, eta arrosa-koloreko ordainagiri bat jaso zuen. Begi itsuez aztertu zuen. Sofia Petrovna xaharraren lekuan jarri zen bizkor-bizkor. Gizon gazte, lodi bat ikusi zuen, aurpegi zuri puztua eta begitxo logaletsuak zituena.

— Nire semea hemen dagoen jakin nahi nuke –hasi zen Sofia Petrovna, leihatilaren atzeko gizonari aurpegia hobeto ikusteko makurtuz–. Kontua da deskuiduz atxilotu dutela...

— Abizena? –moztu zion gizonak.

— Lipatov. Deskuiduz atxilotu zuten eta badira egun batzuk ez dakidala...

— Ixo, andrea –esan zion gizonak, fitxa-kaxa baten gainera makurtuz–. Lipatov ala Lepatov?

— Lipatov. Gaur bertan egon nahiko nuke fiskalarekin edo zuk bidaltzen nauzun beste edonorekin...

— Letrak?

Sofia Petrovna ez zuen ezer ulertzen.

— Nola du izena?

— A, inizialak? Ene, efe.

— Ene ala eme?

— Ene, Nikolai.

— Lipatov, Nikolai Fedorovitx –esan zuen gizonak, kaxatik txartela atereaz. Hemen dago.

— Nik jakin nahi nuke...

— Guk ez dugu informaziorik ematen. Utzi berriketak, andrea. Hurrengoa!

Sofia Petrovna zalaparta batean 30 errublo utzi zituen leihatilan.

— Debekatua du –esan zuen gizonak, billetea urrunduz-. Hurrengoa! Mugi, andrea, ez iezadazu lana oztopatu.

— Alde egizu! –xuxurlatu zioten atzetik Sofia Petrovnari-. Leihatila itxiko du bestela.

Sofia Petrovna seiak aldera iritsi zen etxera. Han aurkitu zituen Alik eta Nataxa. Aulkian pausatu zen eta minutu batzuk igaro arte ez zuen indarririk aurkitu botak eta berokia kentzeko. Alikek eta Nataxak galdezka bezala begiratzen zioten. Jakitera eman zien Kolia han zegoela, kartzelan, Xpaliernaia kalean, eta ezin izan zien azaldu zergatik ez zuen jakin zergatik atxilotu zuten eta noiz lortuko zuten ikusteko baimena.

10

Sofia Petrovna bi asteko oporrak hartu zituen argitaletxean, soldatarik gabe. Nola pentsatu pape-retan edo Erna Semenovnarengan, Kolia kartzelan zegoen bitartean! Eta lanerako astirik ere ez zukeen izango: goizetik gauera arte, eta gauetik goizera arte ilaran egon behar zen.

Alderdiko idazkari herrenari eman zion eskaria: Zakharov atxilotu zutenez gero, hura izendatu zuten zuzendariaren behin-behineko ordezeko kargurako. Lehen Zakharov esertzen zen bulego berean esertzen zen, telefonoz betetako mahai handi berean; orain ez zuen errusiar atorra erabiltzen jantzita, *Leningradeko jantziak* dendako trajetxo gris bat, gorbata eta lepokoa baizik, eta hala ere ez zegoen batere erakargarria. Familia kontuotarako opor batzuk behar zituela esan zuen Sofia Petrovna. Berari begiratu ere gabe, Timofiev luzaro aritu zen irizpen bat tinta gorritz idazten. Oraingo honetan bere lekua Erna Semenovna hartuko zuela esan zion Sofia Petrovnari, eta egitekoak hari uzteko agindu zion.

— Eta zergatik ez Frolenkok? –harritu zen Sofia Petrovna–. Zeren Erna Semenovna ez baita oso eskolatu, eta akatsak egiten ditu idaztean...

Timofeiev kamaradak ez zion ezer erantzun eta jaiki egin zen. A, berdin zion! Sofia Petrovna bulegotik atera zen. Presa zuen ilarara joateko.

Orain haren egunak eta gauak ez ziren igarotzen etxean eta lanean, beste mundu berri batean baizik, ilaran. Neva ibaiertzean edo Txaikovski kalean egoten zen (han baziren eserlekuak, eseri zitekeen une batez) edo Etxe Handiko areto erraldoian¹¹, edo Fiskaltzako eskaileran. Bere lekuan Nataxa edo Alik geratzen zirenean baizik ez zen joaten etxera jatera edo lo egitera. (Aliken zuzendariak astebeterako baimena baizik ez zion eman Leningradera joateko, baina hark egun batetik hurrengora atzeratzen zuen Sverdlovskerako itzulera, Koliarekin batera itzultzeko itzaropenean).

Sofia Petrovnak gauza asko ikasi zituen bi aste haietan: ilararako izena bezperatik eman behar zela ikasi zuen, 11k edo 12ak aldean, eta bi orduz behin deirako han egon behar zela, baina hobe zela batere ez alde egin; bestela zerrendatik kendu zintzaketen-eta; ezinbestekoa zela zapi bero bat eramatea, eskalapoiak edukitzea, zeren lurmentze garaian bertan ere, goizeko hirurak alde horretatik seiak arte hankak izoztu egiten baitira eta gorputza dardaraka hasten baita; jakin zuen NKVDko enplegatuek zerrendak kentzen zituztela, eta zerrenda egiten zuena Poliziarengana eramaten zutela; astearen lehenengo egunean joan behar zela fiskaltzara eta han jendea ez zutela hartzen alfabetoaren arabera, denak batera baizik, eta Xpaliernaian hilaren 7an eta 20an zela bere letrari zegokion txanda (lehenengo

11 Etxe Handia, Bolxoi Dom, NKVD segurtasun zerbitzuen Leningradeko egoitza. 1930Eko hamarkadan egindako eraikin konstruktibista.

aldiz joan zenean ustekabez egokitu zen bere eguna); kondenatuen familiak Leningradetik kanpora deserriratzten zituztela, eta bidaia-txartela ez zela balneario baterako, deportaziorako baizik; Txaikovski kalean informazioa biboteak katu batenak bezain tente zituen agure musugorri batek ematen zuela, eta fiskaltzan, andereño ile-kizkur, sudur-zorrotz batek: Txaikovski kalean dokumentazioa erakutsi behar zela eta Xpaliernaian ez; jakin zuen, harrapatu zituzten etsaien artean, letoniarrek eta poloniarrek zirela asko eta asko; horregatik zeuden hainbeste letoniar eta poloniar ilaran. Txaikovski kalean, bidazia ez baina ilaran nor zegoen lehenengo ikusian bereizten ikasi zuen; tranbian bertan ere, ikusiz batera, bazekien emakumeen artetik nor zihoan kartzelako burdinazko atera. Ibaiertzeko sarrera eta zerbitzuko eskailera guztien artean orientatzen ikasi zuen eta erraz aurkitzen zuen zerrenda zeraman emakumea, edozein lekutan ezkututzen zela ere. Bazekien, baita ere, lokamuska bat eginda etxetik irtenda, kalean, eskailera, korridorean, aretoan, Txaikovski kalean, ibaiertzean, fiskaltzan, emakumeak, emakumeak eta emakumeak izango zirela, zaharrak eta gazteak, berokiz eta txanoz jantzita, umegorriekin, hiru urteko hurrekin eta haurrik gabe, nekeagatik negarrez zeuden haurrak, eta emakume isilak, izutuak, hitz gutxikoak, eta haurtzaroan, basoan ibili bat egin ondoren, begiak itxita, ahabiak, ahabiak eta ahabiak ikusten zituen bezala, orain ere aurpegiak, aurpegiak eta aurpegiak ikusten zituen begiak ixten zituenean...

Gauza bat bakarra ez zuen jakin bi aste haietan: Kolia zergatik atxilotu zuten. Eta nork eta noiz epaitu behar zuen. Eta zer salatzen zioten. Eta noiz bukatu

behar zen behingoz nahaste ergel hura eta noiz itzuli-ko zen etxera.

Txaikovski kaleko informazio-bulegoan bibote tenteko agure musugorriak dokumentuak begiratu eta esaten zion: «Nola du izena zure semeak? Ama zara? Eta zergatik ez da etorri emaztea? Ezkongabea da? Lipatov, Nikolai? Instrukzioak aurrera jarraitzen du»; dokumentazioa leihotik zehar botatzen zion, eta, Sofia Petrovna ahia zabaldu ere baino lehen, leihatilako ataka mekanikoa kirrinka batez erortzen zen eta «Hurrengo!» esan nahi zuen txirrin bat entzuten zen. Sofia Petrovna ez zuen atakarekin zer hitz eginik, eta, segundo bat egon ondoren, alde egiten zuen.

Fiskaltzan, andereño ile-kizkur eta sudur-zorrotzak, leihatilatik kanpora agertuz, ziztu batean esaten zuen: «Lipatov? Nikolai Fedorovitx? Gai hori oraindik ez da fiskaltzara iritsi. Etorri berriro bi aste barru».

Xpalierna kalean, gizon lodikote, logaletuak beti bezala baztertzen zion dirua eta esaten zuen: «Ez du baimenik». Hori zen Koliak zekien guztia: besteentzat dirua «baimenduta» zegoen; Koliarentzat, zerbaitengatik, «ez zegoen baimenduta». Zergatik? Baina ordurako ohartua zen alfer-alferrik zela leihatilako gizon hari galdetzea.

Alderantziz, ordea, irrikaz galdetzen zion Alik nola gertatu zen, nola eraman zuten Kolia. Eta Alikek, esaneko, berriro eta berriro kontatzen zion lotan zeudela, eta horretan kolpe bat entzun zela atean eta egoitzako arduraduna sartu zela, atzetik zuzendaria zuela, eta haren atzetik gizon bat kalekoz jantzita eta militar bat.

— Zer ordu zen? —galdetzen zion Sofia Petrovna.

— Ordu bata eta erdiak aldera —erantzuten zion Alikek, eta aurrera jarraitzen zuen—: Zuzendariak argia

piztu zuen, eta kalekoz jantziak galdetu zuen: Zuetatik zein da Lipatov, Nikolai?

— Kolia izutu zen? —eteten zion Sofia Petrovnak kezkatu.

— Batere ez —erantzuten zion Alikek. —Barruko arropa, trajea jantzi eta hurrengo egunean, lantegian, beste norbaitekin nahastuta atxilotu zutela, eta behar-bada egun batzuetan ez zela azalduko esateko eskatu zidan... Bere ordeztu jartzeko Yaxa Reutman; gurekin dagoen gazteria komunistako kide bat da...

— Eta ezer, ezer ez zuen eraman, benetan! —esaten zuen Sofia Petrovna eskuak harriduraz jasoz.

Alikek argitzen zion Koliak inola ere ez zuela ez aldatzeko arroparik ez eskuzapirik eraman nahi izan, garbitzaileak ekarri berri-berriak bazituen ere:

— Zertarako? Bihar edo etzi berriro hemen nago-eta.

— Biziki aholkatzen dizut hartzeko —esan zion militarrek. Baina Koliak berriro esan zion ez zela beharrik: hurrengo egunerako itzuliko zela.

— Horrek erakusten du zer den kontzientzia garbi edukitzea! —esaten zuen samurtasun sakon batez Sofia Petrovnak.

— Baina han emango diote eskuzapiren bat?

Alik, esana betez, egun bat, bi, hiru egun egon zen Koliaren zain, eta laugarrenean Leningradera joatea erabaki zuen, gauzak argitzera. Gezurra esan zion zuzendariari, ama hiltzeaz baleuka bezala. Eta zuzendariak, gizon jatorra izan, joaten utzi zion.

Sofia Petrovnak erresalbu handiz galdetzen zion Alike: Kolia ez zen bada etsaituko buruzagietakoren batekin? Ez zen ozartuko norbaitekin? Ez zuen, bada, traturik izango gero sabotatzailea zela agertuko zen norbaitekin? edo emakumeren batek ez zuen, bada, zerbaitetan nahastuko?

— Zer emakume, ordea! —erantzuten zion Ali-
kek, haserre samar—. Nolatan Nikolai nahastu? Ez duzu
ezagutzen, ala? Zuzendariak berak garbi esaten zuen,
mundu mailako ingeniaria izatekoa zela...

Kolia, noski, ez zen gauza ezer txarrik egiteko.
Nork jakin behar zuen, Sofia Petrovna ez bazen, zer
zuen bihotzean, zer buruan, zein emana zen aginpide
sobietarrera eta alderdira. Baina denak du zergatiren
bat. Kolia gaztea zen oraindik, munduan bakarrik bizi
gabea zen. Norbaitekin etsaitua izango zen han. Jen-
dearekin ondo konpontzen jakin beharra dago. Eta
Sofia Petrovna begi gaiztoz begiratzen zion Aliki: ez
zuen zaindu. Zeren Kolia Leningraden geratu izan
balitz, amaren begiradapean, ez zitzaiokeen ezer ger-
tatutako. Ez ziokeen Sverdlovskera joaten utzi behar.

Hala ere, ordea, ezin zaio ezer gertatu, konben-
tztitzen zuen bere burua Sofia Petrovna. Ordu oro,
minutu oro espero zuen Kolia etxean. Ilarara joateko
ateratzen zenean, beti uzten zuen korridorean gelako
giltza, erlaitz batean, garai batean adostutako lekuan.
Zopa beroa ere uzten zion labean. Eta, itzultzean, es-
kaileran gora presaka, atsedetik gabe igorik, garai
batean eskutitz bat behar zuenean bezala, bere gelara
joango zen orain, eta Kolia etxean topatuko zuen, ama
non galdu zen ulertu ezinda.

Emakume bakar bat beste bati esaten ari zi-
tzaion, ilaran, Sofia Petrovna entzun zion: «Zaude
zain, zera itzuliko da! Hona ekartzen dutena, ez da
itzultzen». Sofia Petrovna pozik moztuko ziokeen,
baina ez zen ausartu nahastera. Hemen errugabeak ez
dira preso edukitzen. Eta are gutxiago Kolia bezalako
abertzale sobietarrak. Gauzak argitu eta libre utziko
dute.

Gau batean, Alikek, Sofia Petrovna ordubeterako besterik ez bazen ere, oheratzeko konbentziturik, zamarra jantzi, lepoa bufandaz inguratu eta agurtu egin zen: 19a zen, bera geratuko zen ilaran Xpalierna kalean.

— Ni ordu bietan joango naiz, beranduenera ere –esan zion Sofia Petrovnak ohetik, ahots ahul batez.

— Bostetan izanda ere, Sofia Petrovna –erantzun zion hark adorez, eta atetik atera zen.

Baina itzuli egin zen, zerbaitengatik. Nataxarengana ondoratu zen, leiho ondoan eserita baitzegoen, kakorratz-lana eskuan zuela.

— Zuri zer iruditzen zaizu, Natalia Sergeievna –galdetu zion, bere betaurrekoen azpitik begi distiratsuz zuzenean begiraturaz, han, kartzelan, Kolia bezain errudunak direla denak? Ilaran, ama guztiak Sofia Petrovnaren oso antzekoak dira-eta.

— Ez dakit –erantzun zion Nataxak, bere ohitura berriari jarraituz.

Lehen ere isila zen Nataxa, baina Kolia atxilotu zutenez gero, ia erabat galdu zuen hitz egiteko dohaina. «Bai», «ez» edo «ez dakit» erantzuten zuen galdetzen bazitzaion. Bazirudien, nola deitzen zen galdetuta, «ez dakit» erantzun behar zuela. Lanak uzten zion astia Sofia Petrovnarenean igarotzen zuen, janaria prestatzen, harrikoa egiten, baleriana-ura ematen, edo ilaran, bestela. Eta ahoa zabaldu ere egin gabe hori dena.

— Zer ari zara esaten, Alik –esan zuen Sofia Petrovnak ahots beheran-. Nola egin zenezake konparazio hori! Zeren Kolia nahasteren batengatik atxilotu dute, eta besteak... Ez dituzu irakurtzen egunkariak?

— A, egunkariak –erantzun zuen Alikek, eta alde egin zuen.

Egunkarietan agertzen ziren, hain zuzen, auzipetuen aitorpenak. Bezperan, ilaran, orri oso bat irakurri zuen Sofia Petrovnak bere aurrean zegoen gizonaren bizkar gainetik. Mina zuen hanketan, mina bihotzean, baina egunkaria hain zegoen interesgarria non, lepoa luzaturik, osorik irakurri baitzuen. Auzipetuek zehaztasun guztiekin kontatzen zituzten hilketak, pozoiketak, leherketak, eta Sofia Petrovna fiskala bezain eskandalizaturik zegoen.

«Nola esaten zaio horri?» –galdetzen zion fiskalak auzipeturi amorru eutsi batez–. «Doilorkeria!» –erantzuten zion auzipetuak damuturik.

Ez, zerbaitengatik urruntzen zen Sofia Petrovna ilarako bere aldamenekoetatik. Erruki zituen, jakina, pertsonak ziren aldetik, haurrak batez ere, baina hala eta guztiz ere pertsona prestu batek gogoratu egin behar zuen pozoitzaileen, espioien eta hiltzaileen emazteak eta amak zirela emakume haiek denak.

11

Bi aste joan ziren. Alik Sverdlovskera itzuli zen berriro, fabrikara. Sofia Petrovna lanean hasi zen argi-taletxean, Koliari buruz ezertxo ere jakin gabe.

Ilarako emakumeek azaldu zioten auzibidea fiskaltzara iritsiko zela azkenean, seguruen-seguruenara, eta auzibidea fiskaltzara iristen zenean, orduan joan ahal izango zuela fiskalarengana. Hark ez zuen hartzen leihatila baten atzetik, mahai baten atzetik baizik, eta hari dena konta zekioken.

Orain gauza bat baizik ezin zitekeen egin: lanera joan, lerroak zenbatu, irribarre egin, lana banatu eta, idazmakinen kolpe errepikatuen eta zarataren azpian, Koliarengan pentsatu etengabe. Kolia kartzelan dago, Kolia kartzelan dago. Gaizkileen, espioen eta hiltzaileen artean. Ziega batean. Giltzapean.

Kartzela eta Kolia kartzelan imajinatzen aha-legintzen zenean, Tarakanova printzesa agertzen zen koadro bat bururatzen zitzaion beti:¹² horma ilun bat,

¹² 1864an Konstantin Flavitskik (1830-1866) margotutako koadro bati buruz ari da. Tarakanova printzesa San Pedro Gotorlekuko ziega batean dago Katalina II.a Errusiakoaren aginduz, 1777an.

ilea nahasi zuen neska bat, hormaren kontra estutzen, ura lurtean, arratoiak... Baina Sobiet Batasuneko kartzeletan gauzak ez ziren horrela, noski.

Alikek, agurtzerakoan, Koliaren atxiloketaz inorekin ez hitz egiteko aholkatu zion. «Koliatz lotsatzekorik ez dut!» –hasi zitzaion erantzuten haserre Sofia Petrovna; baina gero ados zegoen Alikekin: besteek ez dute ezagutzen Kolia, eta edozer gauza pentsa dezakete. Eta ez lanean ez etxean, inori ez zion ezer kontatu; Degtiarenkoren emazteari bakarrik, behin bainugelan negarrez harrapatu baitzuen. Degtiarenkoren emazteak sentimenduzko hasperen bat egin zuen. «Zertarako negar egin, baliteke itzultzea –esan zion-. Jakina, ikusten dut, goizetik gauera arte lasterka ari zara, aurpegia ere ez zaizu geratzen».

Bost hilabete joan ziren Kolia atxilotu zutene-tik; neguak udaberriari utzi zion lekua, eta udaberriak gupidagabeko ekain bero bati; eta Koliarik ez oraindik. Sofia Petrovna akituta zegoen, beroagatik, itxaronaldiengatik, ilaran igarotako gauengatik. Bost hilabete, hiru aste eta lau egun, bost egun, sei egun... bost hilabete eta lau aste. Eta Kolia itzuli gabe oraindik, dirua oraindik «debekatuta», eta lanean nahigabeak hasi ziren, ustekabean, Sofia Petrovnarentzat. Nahigabeak bata bestearen ondoren.

Erna Semenovna zen nahigabe haien erruduna.

Sofia Petrovna bi asteko oporraldi haren ondoren berriro lanera itzuli zenean, Erna Semenovna bere laguntzaile gisa utzi zioten: kopiaututako eskuizkribuen berrikusteko. Sofia Petrovnaren iritzian, ezertan ez zion lagunduko: batere eskolatu gabea zen! Nola zuzendu behar zituen hark inoren akatsak? Baina hobe duzu Timofeieven aginduen kontra ez joan. Eta Erna

Semenovna berrikusten aritzen zen, eta Sofia Petrovna isildu egiten zen.

Eta, halako batean, Timofeiev kamarada bekozko-ilunak, giltzekin hotsa atereaz (orain aldean erabiltzen zituen beti bulego eta gela guztietako giltzak), Sofia Petrovna korridorean geldiarazi eta lanaren ondoren Frolenko beregana bidaltzeko eskatu zion. Sofia Petrovna Nataxa haren bulegora bidali zuen, eta haren zain geratu zen aldagelan, Timofeiev kamaradak Nataxa zertarako behar ote zuen ezin ulerturik.

Nataxa nahikoa bizkor itzuli zen. Haren aurpegi grisa sorgor zegoen; ezpaineak bakarrik ziruditen dardara pixka bat egiten ziotela.

— Lanetik bota naute —esan zion, kalera atera zirenean.

Sofia Petrovna gelditu egin zen.

— Atzo egin nuen lana alderdiko idazkariari erakutsi zion Erna Semenovnak. Gogoratzen zara, Armada Gorriari buruzko artikulua luze hura. Leku batean Gudaroste «Gorra» neukan idatzita, Gorria idatzi ordez.

— Baina, barkatu —esan zuen Sofia Petrovna; hori tekleatzean egindako akats bat besterik ez daita. Nondik atera duzu bihar lanetik kanpora botatzen zaituztelako hori? Denek dakite zu zarela bulegoko mekanograforik onena.

— Horixe esan du: ernetasun faltagatik lanetik egotzia.

Nataxak aurrera jarraitu zuen. Eguzkiak bete-betean ematen zion begietan, baina ez zituen beheratzen.

Sofia Petrovna bere etxera eramane zuen, kaitu bat te atera zion. Kolia ez zegoen. Lehen, Kolia Sverdlovskan pozik bizi zenean, Sofia Petrovna ez zuen sufritzen Kolia berekin ez zegoelako. Haren falta sumatzen zuen pixka bat. Orain, gelako gauza guzti-

guztiek oihuka esaten zioten aurpegira Kolia falta zela. Leihoko arasan haren engranajea bakar-bakarrik nabarmentzen zen beltz-beltza.

— Bihar argitaletxera itzuli behar dut berriro, baina azkeneko aldia izango da –esan zion Nataxak, alde egitean.

— Ez esan ergelkeriarik! –esan zion Sofia Petrovna-
nak oihu eginez–. Hori ezinezkoa da.

Baina bai, bazitekeen. Hurrengo egunean, korridoreko horman, N. Frolenko eta E. Grigorieva, zuzendariaren idazkari ohia kaleratzeko agindua zegoen zintzilik. N. Frolenko kaleratzeko arrazoitzat ernetasun politikorik eza agertzen zen; idazkari ohia kaleratzeko arrazoi gisa, herriaren etsai ezagutu eta zuzendari izandako Zakharov jaunarekin zuen harremana.

Aginduaren ondoan, kartel handi bat zegoen zintzilik, jakinaraziz arratsaldean bertan, bostetan, argitaletxeko langile guztien biltzar bat izatekoa zela.

Gai zerrenda:

1) Timofeiev kamaradaren txostena argitale-
txeen frontean izandako sabotajeaz.

2) Bestelakoak.

Bertan egotea derrigorrezkoa.

Nataxak bere paper-zorrotxoa hartu zuen eta txirrinak lehenengo aldiz jo bezain laster atera zen, «Ikusi arte» esan orde, denei «Zorte ona izan!» esanez; mekanografoek aho batez erantzun zioten; Erna Semenovna baizik ez zen geratu erantzun gabe: hark orrazkera txukundu zuen, leihoko beiran bere irudia ikusten zuela aprobetxatuz. Sofia Petrovna-
nak pena zuen bihotzean. Jantzi-gelaraino bertaraino lagundu zion Nataxari.

— Zatoz arratsean –esan zion agurtzerakoan.

Batzorde sindikaleko lehendakariak langile guztiak zuzendariaren bulegoan bilduta zeuzkan. Maria Ivanovna igogailuzainak aulkiak ekarri zituen. Sofia Petrovna sartu eta lehenengo ilaran eseri zen. Beldurtuta eta bakarrik sentitzen zen. Goiko argiak piztu zituzten, errezel astunak itxi zituzten. Enplegatuak sartu eta eseri egin ziren. Aurpegi guztietan nabarmen ikusten zen jakingura larri eta urduri bat.

— Zer duzue, baina, kamaradak, banakako gonbita bat bidali behar zaizue, ala? —esaten zion oihuz batzorde sindikaleko lehendakariak erredakzioko sektoreari.

Timofeiev mahaiaren ondoan zegoen zutik, paper batzuei arreta handiz begira. Batzorde sindikaleko lehendakariak biltzarra abiarazi zuen. Eskuak geldiro altxatu ziren, eta aho batez aukeratu zuten mahaiburua. Timofeiev kamaradak eztarria leundu zuen.

— Kamaradak, garrantzi handiko arazo baterako bildu gara gaurko honetan —hasi zen—, gure argitaletxe honetan zaintzaren moteltze kriminal bat izan dela kons-ta-ta-tze-ko eta elkarrekin gogoeta egiteko nola garbitu horren ondorioak. —Oraingo honetan ziurtasunez, aise hitz egiten zuen, ia totalka egin gabe—. Azkeneko bost urteotan, geure muturren aurre-aurrean, horrela hitz egin badaiteke, aritu da gure taldean oraintxe ezagutu den herriaren etsai bat, gaizkile setati, terrorista eta sabotajegilea, Zakharov zuzendari ohia. Orain kendu zaizkio kalte egiteko bideak. Baina bere garaian bere jendailako soka luzea ekarri zuen, bere segizioa, hala esan badaiteke, eta segizio horrek, harekin batera, habia trinko bat antolatuta zuen, eta modu guztiak erabili zituen haren konplot troskistetara laguntzeko. Gure talde honen lotsarako, Zakharoven segizio hori ez da erabat likidatu orain-

dik. Hementxe dituzue, nire aurrean –paper batzuk zabaldu zituen–, hementxe dituzue, nire aurrean, haren iraultzaren kontrako jokaera makurra dokumentuz frogatuko dizueten agiriak.

Timofeiev isildu eta ura atera zuen.

— Zer erakusten dute dokumentu hauek? –hasi zen berriro, ahoa eskuaz xukatu ondoren–. Dokumentu honek, adibidez, ezin gezurtatuzko moduan frogatzen du 1932. urtean, zuzendariaren erabaki soilez, batzorde sindikalarekin eta langileen departamentuarekin koordinatu gabe, zuzendariaren erabaki soilez, berriro diot, N. Frolenko izeneko bat hartu zela lanerako.

Sofia Petrovna erabat kuzkurtu zen bere aulkian, berari buruz ari balira bezala.

— Eta nor dugu Frolenko hori? Antzinako garaietan etxaldea deitu ohi zen baten jabea zen koronel baten alaba. Galdetu daiteke zer egiten zuen gure sobietar argitaletxe honetan Frolenko herritarrak, elementu arrotz baten alaba eta Zakharov gaizkileak lanerako aukeratuak? Horri buruz beste dokumentu batek hitz egiten digu. Zakharoven babespean, Frolenko andereñoak gure langileen eta nekazarien Gudaroste Gorri maitea iraintzen, iraultzaren kontrako erasoak egiten ikasi zuen: Gudaroste Gorria deitzen du Gudaroste Gorria...

Sofia Petrovnari ahoa lehortu zitzaion.

— Eta Grigorieva idazkari ohia? Zuzendariaren laguntzaile leiala zen; guztiz fida zitekeen bere eginkizun guztietarako, hala dei badaitezke. Nola gerta liteke sabotatzaile batek eta haren morroiek bost urtez sobietar talde bat lotsarik batere gabe engainatu ahal izatea? Arrazoi batek baizik ezin dezake halakorik esplikatu: ernaitasun politikoaren moteltze kriminal batek.

Timofeiev kamarada eseri eta ura edaten hasi zen. Sofia Petrovna irrikaz begiratzon zion urari: ahoa eta eztarria lehor-lehor zituen. Batzorde sindikaleko lehendakariak txirrina bortizki jo zuen, denak isilik mugitu gabe bazeuden ere.

— Nork esan nahi du zerbait? —galdetu zuen. Isilik.

— Kamaradak, nork eskatu nahi du hitza? —galdetu zuen berriro batzorde sindikaleko lehendakariak.

Isilik.

— Zer, ez al dago inor honen arazo mingarri batez bi hitz esan nahi duenik?

Isilik. Eta, bat-batean, ahots indartsu bat atean, eta harantz biratu zuten denek burua.

Maria Ivanovna igogailuzaina zen. Ordu arte behin ere ez zuen hitzik hartu bileretan. Eta gutxi ziren, guztira, argialetxean haren ahotsa entzundakoak.

— Mesedez, arren erregutzen dizugu, Ivanovna kamarada!

Igogailuzaina mahaira hurbildu zen, urrats astunez.

— Ba, begira, nik ere esan nahi dut nire proletario hitza. Idazkariari dagokionez, herritarrak, egia da esandakoa. Eskalapoiak kendu gabe hartzen zuen igogailua, dena zikintzen zuen, eta zoaz atzetik harenak garbitzera. Hark zikindu, eta zu garbitzera. Eta jaso ezazu gora, eta jaitsi ere igogailuan jaitsi nahi. Ehun aldiz igo behar, eta zuk jaitsi gero. Eta nola ez jaitsi, gainera, beti zuzendariaren ondoan egoten tematzen da-eta? Hura nora, bera hara. Hura igogailura, bera ondotik igogailura; hura autora, bera ere ondo-ondoan autora. Egia da hori, elkarren eskutik lan egiten zutela... Gauza bat besterik ez diot esan nahi Timofeiev kamaradari, nire modura, modu errazean, proletarioon

modura, zenbat aldiz esan diodan: jar ezazu bere lekuan, andre moko-handi hori! baina bost inporta zaio! Ez zidan kasurik egiten; agur esan eta alde egiten du. Zuk uste duzu, Timofeiev kamarada, igogailuzain bat ezerez bat dela, ez duela ulertzen? Oker zaude! Ez gaudela lehengo garaietan! sobietar aginpidearen mendean, ezdeusik ez dago, denak handiak gara.

— Arrazoia duzu, Ivanovna kamarada, arrazoia duzu –esan zuen Ana Grigorievna—. Beste inork hitz egin nahi du, kamaradak?

Isilik.

— Hitz egin dezaket? –eskatu zuen ahots beheran Sofia Petrovna—. Jaiki zen, ondoren berriro eseri zen—. Hitz batzuk esan nahi nituzke, besterik ez, Frolenkori buruz... Izugarria da, zalantzarik gabe, izugarria, idatzi zuena... baina denok egiten ditugu hutsegiteak lanean, ez da? «Gorria» idatzi ordez «Gorra» idatzi zuen, idazmakinan «i» bat ahaztea oso erraz gertatzen delako, mekanografoek ongi dakite hori. Timofeiev kamaradak esan du «zorria» idatzi zuela Frolenko andreñoak: hark, ordea, «gorra» idatzi du, ez baita gauza bera... ez du esanahi gaiztorik. Tekla jotzean egindako akats bat da. Frolenko oso kalifikazio handiko langilea da, eta oso arretatsua. Nahigabeko hutsa izan da.

Sofia Petrovna isildu egin zen.

— Erantzun behar diozu? –galdetu zion batzorde sindikaleko lehendakariak Timofeievi.

— Dokumentuak –erantzun zion Timofeievek mahaitik, eta hatz koskorrez paperak jotzen zituen—; dokumentuen kontra zer eginik ez dago, Lipatova kamarada. Gorra ala zorria, horrek ez du ezer esan nahi. Klase-etsaien eraso bat da Frolenko andereñoaren aldetik, begien bistan dagoenez.

— Beste inork hitz egin nahi du?... Bukatutzat ematen dut bilera.

Jendeak bizkor alde egin zuen, etxera joateko presaka. Aldagelako esekitokian solasak entzuten ziren dagoeneko: 5. tranbia gutxitan igarotzen zela eta Passageko haurren jantzien sailean oso galtza politak zeudela. Kontu-eramailea Erna Semenovna txalupan ibiltzera gonbidatzen ari zen.

— Zure txalupa hori! –esaten zion hark, ezpainak ispilura hurbilduz, musu emateko bezala–. Zinera joateko balitz.

Bilerari buruz, sabotajeari buruz, hitz bat bera ere ez inork.

Sofia Petrovna bizkor itzuli zen etxera, bi-deari erreparatu ere gabe. Bere gelara iritsi eta atea ixten zuenean, buruak minik ez ziola egingo iruditzen zitzaion, dena bukatuko zela eta ongi egongo zela. Lokiak taupadaka zituen. Zergatik zuen horrenbesteko buruko mina? Zeren bileran ez zuten erre, ustez. Naxata gaixoa! Ez zuen zorte onik bizitzan! Mekanografo ezin hobea, eta kolpetik...

Gelan papertxo bat zegoen Koliaren mahai gainean:

Sofia Petrovna estimatua! Berriro etorri naiz. Yaxa Reutmanek salaketa bat egin du nire kontra komsomolean, esanez Nikolairekin elkartuta nenbilela. Gazteria komunistatik kanpora egotzi naute, Nikolaiarendik banandu nahi izan ez dudalako, eta lanetik kaleratu egin naute. Oso gogorra da lerroetatik kanpora egotzia izatea. Bihar etorriko naiz. Zure Alexander Finkelstein.

Sofia Petrovna esku artean erabili zuen papertxoa. Jainkoa, zenbat nahigabe denak batera! Lehendabizi Koliarena, gero Naxaxarena, orain Alike-na. Alikek, hala ere, berak du errua, inondik ere: zerbait

esango zuen bileran. Hain zakartuta zegoen. Alde egin zuen egunean, ea Koliak jende gaiztoaren batekin tratuturik izan ote zuen berriro, kontuz-kontuz, galdetu zionean, gorri-gorri jarri zen, hormaren kontra estutu zen, eta oihuka esan zion: «Baina badakizu ala ez daki-zu zer ari zaren galdetzen? Koliak ez du ezeren errurik, duda duzu?». Ez zuen ezeren errurik, ez horixe, zentzurik ez zuen hori galdetzeak ere, baina biderik eman zuen Koliak?... Orain, ordea, Alikek seguru bota zien petralkeriaren bat bileretan bere nagusiei. Bistan da Koliaren alde egin behar zuela, baina kontuz, tentuz, neurriz...

Sofia Petrovna buruko minez zegoen. Bilera berretzat oraindik bukatu gabe balego bezala. Timofeieven ahotsa belarrian zebilkion oraindik. Bularra estutzen zion; Timofeieven ahotsak bularra estutzen ziola iruditzen zitzaion. Oheratu? Ez, hori ez. Bainu bat hartzea erabaki zuen.

Timofeieven hitzetan bazegoen zerbait goitik beheraino izoztuta uzten zuena. Bainu bat hartuta joan egingo zitzaiola iruditzen zitzaion. Berak ekarri zuen egurra egurtegitik, eta berogailua piztu zuen. Lehen Koliak ekartzen zion beti egurra, gero Alik hasi zen ekartzen, eta Alik bigarrenez Sverdlovskera joan zenez gero, Nataxak ekartzen zuen. Ai, Alik hori! Mutil jatorra zen, inondik ere, eta Koliarekiko leiala, baina zakarra zen oso. Ez da horren zorrotza izan behar. Kolia ez zen, bada, haren zakartasunagatik egongo barruan? Behin, ilaran, Xpalierna kalean, Alik esan zionean berriro ukatu ziotela Koliarentzako dirua, ahots goran esan zuen: «Burokrata madarikatuak!». Horrelaxe jokatuko zuen, beharbada, Sverdlovskan, fabrikan.

Sofia Petrovna ura zabaldu zuen, erantzi eta bainu-ontzian eseri zen; bainu-ontzi zuri, handi bat

zen, Fedor Ivanovitzek eresia. Ez zuen garbitzeko gogorik. Etzanda geratu zen, mugitu gabe, begiak itxita. Nola egon behar zuen orain lanean Nataxarik gabe? Eta dena Erna Semenovna horrengatik! Hain jende bekaiztia, hain gaiztoa dago munduan! Baina zer axola, Nataxa beste nonbait sartuko zen, urrutira gabe, eta sarri elkartuko ziren. Kolia aurki itzuliko balitz.

Etzanda zegoen, urak zimurtutako bere eskuei begira. Benetan izan zitekeen zuzendariaren idazkaria sabotajegilea? Hobe horretan ez pentsatzea. Bai egun gogorra gaurkoa. Bilerak bularra estutzen zion oraindik. Etzanda jarraitu zuen, begiak itxita, epelean eta atsedenean.

Sukaldean norbaitek sua itzali zuen, eta bertatik oihuak eta ontzi-hotsa hasi ziren entzuten. Erizaina garrazkeriak esaten ari zen, ohi bezala.

— Oraindik ez nago burutik eginda eta ezta itsututa ere —esaten zuen geldiro—. Orain dela hiru egun neuk erosi nituen hiru litro petrolio. Eta orain tanta bat baizik ez dago hondo-hondoan, kaka zaharra. Azkenaldi honetan ezin da ezer utzi sukaldean.

— Nork hartu behar dizu petrolio? —erantzuten zion Degtiarenkoren emazteak, baxu-ahotsez. Ahotsagatik ezagun zuen makurtuta zegoela, zorua garbitzen edo sukaldea pizten—. Nahikoa petrolio dute denek. Nik beharbada?

— Ez naiz zutaz ari. Zutaz gainera, badira beste batzuk apartamentu honetan. Familiako norbait kartzelan dagoenean, edozer gauza espero daiteke besteengandik. Ona delako inor ez dute kartzelara eramaten.

Sofia Petrovna harri bihurtuta geratu zen.

— Eta semea kartzelan badago, zer —esan zuen Degtiarenkoren emazteak—. Aldi bat egin eta askatu

egingo dute. Ez da esku-luze horietako bat, edo lapurra. Mutil ikasia da. Orain pila bat ari dira eramaten. Senarrak dioenez, jende zintzo asko ari dira atxilotzen. Eta egunkarian ere aipatu zuten, gainera. Puntako langile bat omen zen.

— Puntako langilea, jakina! Kamuflatzeko, horretarakoxe –esan zuen Valiaren ahotsak.

— Arkume errugabe bat dela iruditzen zaio –ekin zion berriro erizainak–. Ba, ez; barkatu baina hemen inor ez dute eramaten kartzelara arrazoirik ez bada. Aski da, berdin dio. Ni eramaten naute? Zergatik? Emakume errespetagarria, guztiz sobietarra naizelako.

Sofia Petrovna hoztu egin zen bainuan. Dardara batean, xukatu zen, bata jantzi zuen eta oinpuntetan joan zen gelara. Mantapean etzan zen, eta kuxin bat jarri zuen oinen pean. Baina dardara ez zitzaion baretzen. Etzanda zegoen, dardaratan, eta aurrera begiratzen zuen, ilunpera.

Gauean, ordu biak alde horretan, denak lotan zeudenean, jaiki, oherako atorraren gainean berokia jarri eta sukaldera joan zen. Bere argiontzia, bere petrolio-sua, bere lapikoak hartu eta bere gelara eraman zuen dena.

Goizaldera baizik ez zuen lo hartu.

12

Hurrengo egunean, Alik zain zuen argitaletxeko atean.

Kontua zen, Nataxa eta biak goizean goizetik fiskaltzako ilaran zeudela, Sofia ez kezkatzeko hari ezer esan gabe. Sei ordu zeramaten jaikita, elkarri txanda eginez, eta ordu erdi lehenago leihatilako neskak esan zien Nikolai Lipatoven kasua Tsvetkov fiskalaren bulegoan zegoela. Orduan, Sofia Petrovnaren ordezkilara egin zuten Tsvetkov fiskalarenerako. 7. aretoan.

Alik Sofia Petrovna etxera joan eta zerbait jan zezan konbentzitzen ahalegindu zen, baina hura beldur zen txanda pasatzen utziko ez ote zuen, eta bizkor zebilen, bere indar guztiaz. Kolia salbatzera zihoan. Berak orain fiskalari zer esaten zion, hark erabakiko zuen Koliaren zoria. Ito beharrean zihoan, eta ibili bitartean zer esan pentsatzen zuen. Kolia gazteria komunistan oso-oso gazterik, ia amaren gogoaren kontra, nola sartu zen kontatu zion; nolako lehiaz ikasi zuen eskolan eta unibertsitatean, eta nola estimatzen zuten fabriketan, nola goraipatu zuen *Pravda* organo zentralak. Ingeniari bikaina zen, komsomol zintzoa, seme arre-

tsua. Horrelako pertsona bat jo daiteke sabotajegiletzat edo iraultzaren etsaitzat? Hori zentzugabekeria, nola-ko uste eroa! Bera, mutilaren ama zaharra, zen lekuko epailearen aurrean, gezurra zela hura dena.

Alikek ate astuna zabaldu zuen eta Sofia barrura sartu zen.

Azkenaldi hartan ilara asko ikusia zen Sofia Petrovna, baina halakorik ordu arte batere ez. Jendea zutik, eserita, etzanda, bost solairuko eskailera erraldoi hartako eskailera-maila guztietan, eskailera-buru guztietan, leiho-arasa guztietan. Ezin zitekeen eskaile-ra hartatik igo norbaiti eskua edo sabela zapaldu gabe. Korridorean, leihatila ondoan eta 7. aretoaren ondoan, estu-estu zegoen jendea, tranbian bezala. Eskailera gorenean egoteko zoria zutenak hori. Nataxa kartel handi baten azpian hormaren kontra kuzkurtuta zegoen: *Gora legezkotasun iraultzailearen ikurrina*. Harengana iritsirik, Sofia Petrovna eta Alik gelditu eta kostata hartu zuten arnasa biek batera. Alikek betaurreko gandutuak kendu eta behatzez garbitzen hasi zen.

— Bueno, ni banoa –esan zuen bat-batean Nataxak–, zu andre honen ondoren zaude.

Sofia Petrovnak bezperako bileraz hitz egin nahi zion Nataxari, nola mintzatu zen bere alde, baina Nataxaren bizkarra dagoeneko urrun ikusten zen, eskailera inguruan.

— Gauzak okertu egin zaizkio Natalia Sergeiev-nari –esan zuen Alikek, kokotsaz Nataxa adieraziz–, inon ez dute hartzen lanerako. Ni bezalatsu.

Gauza zen Nataxa dagoeneko saiaturia zela mekanografoak behar zituzten bulego bat baino gehiagotara joaten, baina inon ez zutela hartzen, haren azkeneko lanera haren berri eskatu ondoren. Alik ere, eraikuntzako bulego batera joan zen zuzenean tren geltokitik,

baina gazteria komunistatik kanpora egotzi zutela jakin zutenean, hitz egiten ere ez ziren hasi berekin.

— Zakur-dokumentazioa eman digute, ikusten dudanez. Jendaila halakoa! Nondik elkartzen da kolpetik hainbeste jendaila alde guztietan? —esan zuen Alikek.

— Alik! —esan zuen Sofia Petrovnak, esana itsus-tuz—. Nola esaten dituzu horrelako gauzak? Begira, zakartasun horrexegatik bota zaituzte gazteria komunistatik.

— Ez da izan nire zakartasunagatik, Sofia Petrovna —erantzun zion Alikek, eta dardara hasi zitzaion ezpainenetan—, Nikolai arbuiatu nahi izan ez nuelako baizik.

— Horixe, Alik —esan zion Sofia Petrovnak leunki, haren mahuka ukituz—. Gaztea zara oraindik; zaude ziur oker zaudela. Sotiltasun kontua da dena. Begira, atzo arratsaldeko bileran Natalia Sergeievna-ren alde hitz egin nuen. Eta zer? Ez didate ezer egin horregatik. Koliaren kontu honek oinazea eragiten dit, sinisten ahal didazu. Ama naiz. Baina ulertzen dut une bateko hutsegitea dela hau, gehiegikeriak, antolamendu-akatsak... pazientzia behar da. Zuk, ordea, segituan: doilorkumeak! jendaila! Gogoratu Koliak beti esaten zuela: akats asko ditugu oraindik, eta burokrazia handia.

Alik isilik zegoen. Espresio setatsu, egoskor bat zeukan aurpegiari zurrunduta. Bizarra kendu gabe, argalduta, begi-zuloekin zegoen. Eta haren begiek begirada berri batez begiratzen zuten betaurrekoen azpitik: kontzentratuta eta goibel.

— Aurkeztu dut eskaera bat eskualdeko batzordean. Eta han lehengoratzten ez banaute, Moskura joko

dut. Gazteria Komunistako Batzorde Zentralera zuze-
nean –esan zuen.

— Gaixoa! –pentsatu zuen Sofia Petrovna—. Go-
gorra izango da beretzat, lanik ez duen bitartean. Izeba
aurpegira botatzen ariko zaio dagoeneko. Eta Alikenga-
na makurtuz, xuxurlatu zion:

— Kolia askatu bezain laster, segituan lehengo-
ratuko zaituzte.

Eta irribarre egin zion. Baina Alikek ez zion itzuli
irribarra.

Fiskalaren atea urruti zegoen oraindik. Sofia
Petrovna kalkulua egin zuen: 40ren bat lagun. Bina-
ka sartzen ziren, 7. gelan ez baitzituen hartzen fiskal
bakar batek, bik baizik, baina ilara geldiro aurrera-
tzen zen hala ere. Sofia Petrovna aurpegiak aztertzen
zituen; emakume haiek gehienak lehenago ere Xpa-
liernaia kalean edo Txaikovski kalean edo hantxe,
fiskaltzan, leihatila aurrean ikusiak zituela iruditzen
zitzaion. Bazitekeen berberak izatea, baina bazite-
keen beste batzuk izatea ere. Kartzelako ilaran zeuden
emakumezko guztiek zuten gauza guztiz berdin bat
aurpegian: nekea, etsipena eta halako isilkortasun bat,
agian. Askok paper puska zuri bat zuten eskuan. Sofia
Petrovna bazekien dagoeneko deportaziorako «orria»
zela hura. Ilara hartan hiru galdera entzuten ziren den-
bora guztian: «Nora bidaltzen zaituzte?», «Noiz zoaz?»
eta «Konfiskatu dizute?».

Sofia Petrovna hormaren kontra ondoratu zen
eta minutu batez begiak itxi zituen. Zein emakume
bihozgabea, zein gaiztoa eta ergela kontu-eramailea-
ren emaztea! Kolia sabotajegilea zela bururatzea ere!
Txiki-txikitatik ezagutzen baitzuen, gainera. Sofia
Petrovna inoiz, inoiztxo ere ez zuen igaroko orain
sukaldeko atea. Erizainak barkamena eskatu arte. Ima-

jinatzen zuen nolako lotsa pasatu behar zuen Kolia itzultzen zenean! Sofia Petrovna den-dena kontatuko zion Koliari, bai Nataxa eta Alik bere adiskide bikainez (haiek izan ezean ezin izango zukeen ilara egin) eta baita suge hari, kontu-eramailearen emazteari buruz ere. Jakin zezala nolako emakume zitalak topa daitezkeen munduan.

Begiak zabaldu zituenean, hormaren kontra kubilko eserita zegoen neskato bati erreparatu zion Sofia Petrovna. Beroki batez jantzita zegoen, botoi guztiak lotuta. «Zer den haurrak uda-udan ere berogarritz janzteko ohitura hori», pentsatu zuen Sofia Petrovna. Eta bat-batean, ongi begiratuta, neskatoa ezagutu zuen: Zakharov zuzendariaren alabatxo zen. Neskatoa bizkarra hormaren kontra zuela egonezinez eta negar muxinka mugitzen zen, beroak akituta.

Eta Sofia Petrovna eta Alikek dagoeneko ordubete aurrean zuten jantzi argiko andre garai, liraina zuzendariaren emaztea zen. Bera zen, inondik ere.

— Zure txirula osorik duzu oraindik? — galdetu zion laztanki Sofia Petrovna, haurrarengana makurtuz—. Ala borla kendu diozu dagoeneko? Nitaz gogoratzen zara? Urte Berriko jaian? Zatoz, lepoko botoia askatuko dizut.

Neskatoa isilik zegoen, begiak zabal-zabalik zituela, eta amari eskutik tira egiten zion.

— Zer? Erantzun bada andreari! —esan zion zuzendariaren emazteak.

— Zure senarra ezagutzen nuen —esan zion Sofia Petrovna, andreari mintzatuz—. Argialetxean lan egiten dut.

—A! —esan zuen zuzendariaren emazteak, eta ezpainak okertu zituen, atsekabez.

Ezpainak margotuta zituen, baina ez ezpainak berak, gainetik eta azpitik baizik. Emakume ederra zen, zalantzarik gabe, baina Sofia Petrovnari orain ez zitzaion urte erdi lehenago, argitaletxean senarra ikusteko unetxo batez agertzen zenean eta korridorean hango langileak adeitasunez agurtzen zituenean bezain dotorea eta gaztea iruditzen.

— Zer moduz senarra? –galdetu zioan Sofia Petrovnak.

— Hamar urte kontzentrazio-esparru urrunetan.

«Erruduna zen, hortaz. Ez zitzaidakeen burutik pasatuko. Hain gizon atsegina izanda» –pentsatu zuen Sofia Petrovnak.

— Eta ni Kazakhstanera bidaltzen naute honekin, herri edo *aul* batera, han esaten duten bezala... Bihar goaz. Goseak akabatuko naiz han, lanik gabe.

Ozen hitz egiten zuen, ahots indartsuz, eta denak biratu ziren hari begira.

— Eta senarra nora bidali dute? –galdetu zion Sofia Petrovnak, solasgaia aldatzeko.

— Nik al dakit nora. Esaten al dute, bada, nora?

— Baina gero... hamar urte barru... askatzen dutenean... nola elkartu behar duzue berriro? Ez duzu jakingo haren helbidea, eta hark zurea ere ez.

— Baina zuk uste duzu –esan zuen zuzendariaren emazteak– hauetako batek berak ere –«bidaia-txartela» zuten emakume multzoa adierazi zuen eskuaz–, batek berak ere badakiela non dagoen bere senarra? Senarrak eraman dituzte dagoeneko, edo bihar eramango dituzte, edo gaur bertan, emazteak ere azken zuloko zokora doaz eta ideiarik ere ez dakite nola aurkitu senarrak. Nondik jakin behar dut nik? Inork ez daki, eta nik ere ez.

— Sendo jarraitu behar da –erantzun zion soseguz Sofia Petrovnak–. Hemen esaten ez badute, Moskura idatzi behar. Edo Moskura joan. Nola, bestela? Elkar bistatik galduko duzue.

Zuzendariaren emazteak oinetatik bururaino neurtu zuen begiradaz.

— Eta zuk nor duzu? Senarra? Semea? –galdetu zion, halako amorru bortitzaz, non Sofia Petrovna Alikenganantz mugitu baitzen pixka bat, nahi gabe–. Ba, semea bidaltzen dizutenean, orduan eutsi sendo zuk, ea lortzen duzun haren helbidea jakitea.

— Nire semea ez dute bidaliko –esan zuen Sofia Petrovnak desenkusatz bezala–. Kontua da ez duela errurik. Kontua da deskuiduz atxilotu dutela.

— Ja, ja, ja! –hasi zen barrez zuzendariaren emaztea, silabak kontu handiz bereiziz–. Ja, ja, ja! Deskuiduz! –eta bat-batean malkoak hasi zitzaizkion begietatik–. Hemen denak daude deskuiduz, bada-kizu... Zaude behingoz behar den bezala! –egin zion garrasi neskatoari, eta haren gainera makurtu zen malkoak ezkutatzeko.

Bost pertsona geratzen ziren atearen eta Sofia Petrovnaren artean. Sofia Petrovna handik une batera fiskalari esan behar zizkion hitzak bere bururako errepikatzen ari zen. Erruki barkabera batez pentsatzen zuen zuzendariaren emaztearengan. Senar jatorrak, noski! Makurrak egiten zituzten, eta emazteak haien erruz sufritu behar. Kazakhstanera joan behar zuen orain, haur batekin, eta ilara hauek gainera; nola ez zara, bada, zure onetik aterako?

— Begira, zurekin sartuko naiz –esan zuen bat-batean Alikek–. Lankide eta adiskide gisa. Nikolairengan guztiz pertsona garbia, boltxebike menderaezina dugula kontatuko diot kamarada fiskalari.

Gure fabrikan Fellow fresagailua nola moldatu genuen eta lan hori erabat Nikolairen asmamenari zor zaiola kontatuko diot.

Baina Sofia Petrovna ez zuen nahi Alik fiskalarengana sartzerik. Haren zakartasunaren beldur zen: purrustadaren bat botako zuen eta gauzak okertuko ziren. Ez, hobe bakarrik joatea. Fiskalak arrotzak ez zituela hartuko konbentzitu zuen.

Azkenean txanda iritsi zitzaion. Zuzendariaren emazteak atea zabaltu eta sartu egin zen. Haren ondoren Sofia Petrovna sartu zen, bihotza estuturik zuela.

Gela handi huts, erdi-ilun baten elkarren kontrako bi hormen kontra bi idazmahai zeuden, eta haien aurrean, bi besaulki higatu. Eskuineko mahaiairen atzean gizonkote lodi, zurixka, begi-urdin bat zegoen. Ezkerreko mahaiairen atzean, konkordun bat. Zuzendariaren emaztea, alabatxoarekin, zurixkarengana hurbildu zen; Sofia Petrovna konkordunarengana. Ilaretan aspaldi entzuna zuen Tsvetkov fiskala konkorduna zela.

Tsvetkov telefonoz hitz egiten ari zen. Sofia Petrovna besaulkian eseri zen.

Tsvetkov gorputzez txikia zen, argala; jantzi urdin krakatsu bat zuen jantzita. Burutxo punta-zorrotza eta konkorrak biribil handi bat. Esku eta behatz luzeak ile beltzez estalita zituen. Entzungailuari, pertsona baten moduan ez baina tximino baten moduan eusten zion. Sofia Petrovnari tximinoaren hain antzekoa iruditzen zitzaion, non nahi gabe pentsatzen baitzuen: belarri ostean hazka egiteko gogo sartzen bazaio, baietz hantaz hazka egin.

—Fedorov? —egiten zuen oihu Tsvetkovek entzungailuan, ahots erlastu batez—. Hemen Tsvetkov,

kaixo. Esan Panteleievi konpondu dudala dena. Bidal-
tzeko. Zer? Hori, bidaltzeko.

Beste mahaian, panpina-begi argi, portzelanaz-
koak eta eskutxo potolo, emakumezkoen gisakoak
zituen gizonkote lodi, zurixka bat adeitasunez ari zen
hitz egiten zuzendariaren emaztearekin.

— Herrixka batera orde z hiri batera bidal naza-
tela eskatzen dut —esaten zuen emakumeak etenka,
mahaiaren aurrean, neskatoari eskutik heldurik—. He-
rixka batean ez dut lanik izango. Haurrari eta amari
jaten ematekorik ez dut izango. Lanbidez estenografoa
naiz. Herritxo batean zer estenografiaturik ez da. Herri-
txo batera ez baina hiri batera bidal nazatela eskatzen
dut, zera horretan... nola da?, bada ere. Kazakhstanen.

— Eser zaitez, andrea —esan zion zurixkak
adiskidetsu.

— Zer nahi duzu —galdetu zion Tsvetkovek Sofia
Petrovnari, telefonoa utzi eta bere begitxo beltzez begi-
ratu iheskor bat eginik.

— Semearengatik nator. Lipatov du deitura. Des-
kuiduz atxilotu zuten, huts egitez. Haren kasua zuk
daramazula esan didate.

— Lipatov? —galdetu zuen berriro Tsvetkovek,
gogoratzen ahaleginduz—. Hamar urte kontzentrazio-
esparru urrunetan. —eta berriro jaso zuen telefonoa—.
A taldea? 244-16.

— Nola? Epaitu dute, ala? —egin zuen garrasi So-
fia Petrovnak.

— 244-16? Deitu Morosovari.

Sofia Petrovna isildu eta eskuak bihotz gaine-
ra eramane zituen. Bihotzak geldiro, tarteka eta ozen
jotzen zituen taupadak. Taupadek burrunba egiten
zioten belarrietan eta lokietan. Tsvetkovek telefonoz
hitz egiteari azkenean uzten zion arte itxarotea eraba-

ki zuen. Izuz begiratzan zien haren esku luze iletsuei, haren konkorr zahiz estaliari, haren bizarra kendu gabeko aurpegi horiari. Pazientzia, pazientezia. Eta bere bihotzaren taupadak entzuten zituen: lokietan eta berlarrietan. Beste aldeko mahaian, fiskal zurixka leunki ari zitzaion esaten zuzendariaren emazteari:

— Ez du merezi asaldatzerik, emakumea. Eser zaitez, mesedez. Legearen ordezkaria naizen aldetik, gogoratu beharra dizut Stalinen konstituzio handi honek den-denei segurtatzen diela lana, inolako bereizketarik gabe. Inolako herritar-eskubiderik kentzen ez zaizunez, seguru duzu lanerako eskubidea, nonahi bizi zarelarik ere.

Zuzendariaren emaztea zakarki jaiki eta aterantz abiatu zen. Neskatoa pausotxo txiki irregularrez zihoakion atzetik lasterka.

— Oraindik hemen? Zer gehiago behar duzu? – galdetu zion Tsvetkovek, zakar, azkenean telefonoa zintzilikaturik.

— Nire semeak zer hutsegite egin ote duen jakin nahi nuke – galdetu zuen Sofia Petrovnak, ahotsak dardara egin ez ziezaion bere indar guztia bildurik-. Hutsik gabeko komsomola izan da beti, herritar zintzoa...

— Zure semeak bere delituak aitortu ditu. Instrukzioan jasota dago haren sinadura. Terrorista bat da eta terrorismo ekintza batean parte hartu zuen. Ulertu duzu?

Tsvetkov idazmahaiko tiraderak zabaldu eta ixten ari zen. Zabaldu eta bultzada batez ixten zituen. Tiraderak hutsik zeuden.

Sofia Petrovna atsekabez saiatzen zen gogoratzan: zer gehiago esan nahi zion? Baina ez zen ezertaz gogoratzen. Gela hartan, gizon haren aurrean, alferrik ziren hitz guztiak. Jaiki eta aterantz jo zuen geldiro.

— Nola jakin dezaket orain non dagoen? –galdetu zuen atetik.

— Hori ez dagokit niri.

Korridorean Alik zintzoa zain zeukan. Isilik, korridoreko jendetzaren artetik bidea egin zuten, eta gero eskaileretan behera. Isilik atera ziren kalera. Kanean tranbiak dilindaka zihoazen, eguzkiak distira egiten zuen, oinezkoak arrapaladan zebiltzan. Udako egun itogarria bukatzeko asko falta zen oraindik.

— Hortaz, zer, Sofia Petrovna, zer? –galdetu zuen Alikek, urduri.

— Kondenatuta. Kontzentrazio-esparru urruntara. Hamar urterako.

— Txantxetan ari zara! –esan zuen Alikek garra-si eginez—. Zergatik, baina?

— Terrorismo ekintza batean parte hartzeagatik.

— Koliak terrorismo ekintza batean? Erotuta daude!

— Fiskalak esan du: berak aitortu zuela. Instrukzioan jasota dago haren sinadura.

Malkoak uholdeka zerizkion Sofia Petrovnari masailetan behera. Horma baten kontra gelditu zen, isur-hodi bati heldurik.

— Kolia Lipatov, terrorista! –esan zuen Alikek, arnasa ezin bueltatuz—. Jendaila, jendaila hutsa! Hau bai dela barreak lehertzekoa! Gauza bat badakizu, Sofia Petrovna, pentsatzen hasita nago gaitzeko sabotaje bat dela hau dena. Sabotatzaileak NKVDaz jabetu dira eta beraiek gobernatzen dute. Beraiek dira herriaren etsaiak.

— Koliak aitortu egin du, baina; Koliak aitortu egin du, pentsa, Alik, pentsa... –esan zuen Sofia Petrovnak, negarrez.

Alikek besotik gogorki heldu zion eta etxera eramane zuen. Apartamentuaren atean, Sofia poltsan giltzen bila ari zen bitartean, berriro hitz egin zuen:

— Koliak ez zuen aitortzeko ezer; duda duzu, ala? Ez dut ezer ulertzen, benetan, ez dut ezer ulertzen. Oraintxe bertan gauza bat baizik ez nuke nahi: Stalin kamaradarekin aurrez aurre hitz egin. Azal diezadala zer iritzi duen honetaz guztiaz?

13

Sofia Petrovna begiak zabalik igaro zuen gau osoa, etzanda, atsedetik gabe. Zenbat gau horrelakoak, amaigabeak, hondorik gabeak, Kolia atxilotu zutenez gero? Buruz zekien dagoeneko dena: oinetako-zolen igurtzia udan, leihopean, ondoko garagardotegiko hotsak, tranbien zarata urrunean galtzen; ondoren isilaldi labur bat, ilunaldi labur bat, eta horra egunsenti zuria berriro leihotik barrura, eta beste egun bat hasi, Koliarik gabeko egun bat. Non ote dago orain Kolia, non lo egingo ote du, zertan pentsatuko ote du, non ote dago, norekin ote dago? Sofia Petrovna segundo batez ere ez zuen zalantzatan jartzen errugabea zela; terrorismo ekintza bat? Erotuta zeuden, Alikek zioen bezala. Instrukzio-epaile arduratsuegi bat suertatu zitzaion, horra, eta nahastu eta larrutu egin zuen. Koliak ez zuen asmatu bere burua zuritzen; hain gaztea baitzen oraindik. Goizean, eguna berriro argitu zuenean, Sofia Petrovna gau osoan gogoratu ezinda ibilitako hitza gogoratu zuen azkenik: alibi. Nonbait irakurria zuen. Koliak ezin izan zuen frogatu bere alibia, horra dena.

Laneko lehenengo orduan hobetoxe egoten zen. Eguzkiak distira bizia egiten zuen, hautsak hodeiak eratzen zituen eguzkiaren errainu batean eta hala idazmakinek lehiaz jotzen zuten, eta mekanografoak, etenaldian, behera joaten ziren, kalera, eta etengabe aritzen ziren izozkiak miazkatzen; dena ohi bezala... Hamar urte! Egunez, eguzkiaren argitan, garbi zegoen disparte hutsa zela hura dena. Hamar urtez ez zuen ikusiko Kolia! Zergatik? Hura zentzugabekeria! Ez da posible. Gutxien uste denean, aurki, lehen bezala izango zen dena berriro: Kolia etxean egongo zen, lehen bezala arituko zen eztabaidan Alikekin, autoez eta lokomotorrez, lehen bezala diseinatuko zuen; baina orain inola ere ez zion utziko Sverdlovskera joaten. Leningraden ere aurki daiteke lana.

Etenaldian korridorean ibiltzera atera zen; eserita, lokartzeko beldurra zuen. Korridorean berripaper bat zegoen zintzilik. Langileak haren aurrean pilatuta zeuden. Sofia Petrovna ere irakurtzera ondoratu zen. Ale handi bat zen, dotorea, letra gorrizko izenburuak eta izenburu gorri distiratsuaren *–Gure bidea–* alde banatan Leninen eta Stalinen erretratuak zituela. Sofia Petrovna berripaperera hurbildu zen.

Zer gertatu da sabotatzaille batzuek bost urtetan zehar inolako oztoporik ez izateko erakunde sobietar baten muturretan beren amarru zikinak bete ahal izateko? –irakurri zuen Sofia Petrovna. Timofeieven editoriala zen. Ondoko zutabea batzorde sindikaleko zuzendariaren artikulua bat hasten zen. Ana Grigorievna sarkasmoz nabarmentzen zuen Timofeiev, biltzairean egindako hitzaldian behar bezain autokritikoa izan ez zelako. Erakundea sabotajeaz ohartu ez bazen, Timofeiev kamarada, alderdiko zelularen antolamendu-idazkari ohia zen horren erantzukizuna zuen

lehenengoa. Are gehiago, zeren alderdiko zelularen antolamendu-idazkariari behetik ohartarazia baitzio-ten: Ivanova kamarada, bere proletario-senaz, aspaldi ohartua baitzen zuzendariaren idazkariaz. Sofia Petrovna hurrengo zutabera zuzendu zituen begiak. Eta, irakurtzen ari zena ulertu baino lehen, beroa sentitu zuen bularrean. Berari buruz, Sofia Petrovnari buruz, Nataxaren alde esan zuenari buruz ziharduen artiku-luak. Egileak, X ezizenaren pean ezkutaturik, honela idazten zuen:

Biltzarrean gauza eskandalagarri bat gertatu zen, eta ez da behar bezala zigortu, gure ustean. Lipatova kamarada legelari baten hitzaldiaren itxurako bat eginez mintzatu zen, eta noren alde egin behar zuela iruditu zitzaion? Frolenko, koronel baten alabaren alde, gure langileen eta laborarien Armada Gorri maitearen kontra eraso antisobietar larri bat egitera ausartu zenaren alde. Gauza jakina da Lipatova kamaradak etengabe babesten zuela Frolenko, osagarritzko lana ematen ziola, elkarrekin joaten zirela zinemara, eta abar eta abar. Orain, argitaletxeak Gerasimoven, Zakharov-en eta konpainiaren «gobernuaren» ondorioak albait lehen likidatzeko langile boltxebike zintzoen ahaleginak –alderdi-koak izan zein ez– areagotu behar dituenean, onargarria al da garrantzi handiko une honetan, argitaletxeko langileen artean horrelako kiderik izatea? Gora bijilantzia boltxebi-kearen ikurrina, herrien gidari jenialak, Stalin kamaradak erakusten digun bezala! Erauz ditzagun errotik sabotajegile guztiak, agerikoak eta ezkutukoak, eta haienganako kideta-suna erakusten duten guztiak!

Bazkalorduko etenaldiaren bukaera adierazten zuen txirrinak jo zuen. Sofia Petrovna bere bulegora itzuli zen. Nola ez zen ohartu lehenago gaur modu be-rezi batez begiratzen ziotela denek?

Etixeratutakoan, bururdiaren kontra estutu zen; hura zuen bere azkeneko babeslekua. Eta loak segituan itxi zizkion begiak. Luzaro lo egin zuen, eta Koliarekin amets egin zuen. Bere jertse gris iletua zerabilen jantzita. Botinetan patinak lotu zituen. Eta, ondoren, oso makurtuta, argitaletxeko korridorean hasi zen irristan. Esnatu zenean, ilunabar-argia urdin ikusten zen leihoaren beste aldean, eta gelan argia piztuta zegoen. Mahaiaren ondoan Nataxa zegoen josten. Bistan zegoen denbora luzea zeramala josten.

— Eser zaitez hemen, gertuago –esan zion Sofia Petrovna ahots ahul batez, egunez lo egin ondorengo ezpain garraztuak miazkatuz. Nataxak, esaneko, aulkia ohebururantz eraman eta han eseri zen.

— Badakizu, Koliari hamar urteko zigorra eman diote. Alikek esango zizun dagoeneko.

Nataxak buruaz baietz egin zuen.

— Eta, badakizu? –gogoratu zen Sofia Petrovna—. Berripaperean niri buruz idatzi dute, sabotajegileen aldekoa omen naiz eta niretzat lekuri ez omen dago...

— Alik atxilotu egin dute. Gaur gauean –erantzun zion Nataxak.

14

Sofia Petrovna gauez lo egiten ez bazuen, eguneko ordu eta minutu guztiak berdin-berdinak ziren beretzat. Argiak begiak minberatzen zizkion, oinetan oinazea zuen, bihotzean mina. Baina gauean lo egitea lortuz gero, esnatu ondoko unea izaten zen, zalantzarik gabe, minuturik astunena. Begiak zabaldu eta leihoa, oheburua, aulki batean bere jantzia ikusten zituenean, beste ezertan ez zuen pentsatzen lehenengo unean. Ezagutu egiten zituen: leihoa, aulkia, jantzia. Baina hurrengo unean bere arima barruko lekuren batean atsekabe bat sortzen zitzaion, oinazearen antzekoa, eta oinaze haren gandu horretan kolpetik gogoratzen zuen dena: Kolia hamar urtera kondenatua, Nataxa lanetik kanpora egotzia, Alik atxilotua, eta berari buruz sabotatzaileen aldekoa zela idatzita. A, eta petrolioarena ere bai.

Lanean inorekin ere ez zuen hitz egiten dagoneko. Kopiatzeko ekartzen zizkieten paperak berak ere, isilik jartzen zituen mekanografoen aurrean. Eta inork ez zuen hitz egiten berekin. Bere bulegoan idazmahaitxoaren atzean eserita, mekanografoei

aurpegira begira egoten zitzaaien, berari buruz berripaperean haietatik zeinek idatzi ote zuen asmatu nahiz. Erna Semenovnak, ia seguru. Baina hark bazekien hain zuzen idazten? Eta noiz ikusi zituen Nataxa eta biak zineman? Beraiek hura inoiz ez zuten ikusi.

Behin, korridorean zehar noragabe eta triste zebilela, ia-ia tupust egin zuen Nataxarekin. Nataxa somnanbulu baten moduan zebilen, ilunpetan balebil bezala.

— Zertan zabilta hemen, Nataxa? –galdetu zion Sofia Petrovna, izuturik.

— Berripapera irakurri dut. Ez hitz egin nirekin. Ikusi egingo gaituzte –erantzun zion Nataxak.

Arratsaldean Sofia Petrovnarenera joan zen. Asaldatua zirudien, eta etengabe hitz egiten zuen, gai batetik bestera aldatuz. Sofia Petrovnari inoiz ez zitzaion gertatu Nataxari hainbeste hitz egiten entzuterik. Eta oraingo honetan ez zen ari ez brodatzen ez josten.

— Zer uste duzu, Kolia oraindik hemen, hirian dagoela, ala urrun dagoela dagoeneko? –galdetu zion bat-batean.

— Ez dakit, Nataxa –erantzun zion Sofia Petrovna hasperen eginez-. Xpaliernaia kalean hilaren 20an baita haren letraren txanda, eta gaur 10a da.

— Ez, ez naiz hortaz ari. Zer sentitzen duzu zuk? –Nataxak keinu bat egin zuen eskuaz airean-. Hemen dago, guregandik gertu, ala urruti dago dagoeneko? Niri urruti iruditzen zait. Atzo sentitu nuen kolpetik: orain urruti dago dagoeneko. Ez dago hemen dagoeneko... Eta, beste gauza bat, Sofia Petrovna, badakizu igogailuzainak ez nauela igogailuan jaso nahi izan. «Ez nago behartuta edonor jasotzera...». Bai, Sofia Petrovna, oraintxe bertan, bihar bertan alde egin behar duzu

argialetxetik. Hitzeman iezadazu alde egingo duzula. Hitzeman iezadazu, maitea! Bihar bertan, bai?

Nataxa belauniko jarri zen Sofia Petrovna zegoen sofaren gainean, eta eskuak bildu zituen, erreguz. Ondoren, mahaian eseri, luma hartu eta berak idatzi zuen eskaera Sofia Petrovnaren izenean. Bere kabuz alde egin behar zuela konbentzitu nahi zuen; bestela sabotatzaileekin harremanak izateagatik botako zutela lanetik; «nirekin» –esan zion Nataxak, ezpain zurbilez irribarre eginez–, eta orduan beste inongo lanetan ez zaituzte hartuko. Sofia Petrovnak eskaera sinatu zuen. Berak ere dagoeneko pentsatuta zeukan alde egitea. Argialetxean beldurra izaten hasia zen, nolabait. Timofeiev herrena bere giltza sorta eskuan zuela ikustea aski zen dardaraz hasteko.

— Nolanahi ere, Leningraden ez dut gehiago lan egingo –esan zuen tristuraz–. Deportatu egingo naute, seguru. Emazte eta ama guztiak deportatzen dituzte.

— Zuri zer iruditzen zaizu? –galdetu zion Nataxak, apaletik liburu bat hartu eta segituan bere lekuan utziz–, nola ulertzen duzu Koliak aitortu izana? Nahas daiteke, engaina daiteke pertsona bat, hori ulertzen dut, baina huskerietarako bakarrik. Nola nahastu ote diote burua Koliari, inoiz egin ez duen delitu bat egin izana aitoren dezan? Hori, nahi duzuna, baina ez dut ulertzen. Eta nola aitortu dute denek? Zeren emazte guztiei esaten baitiete beren senarrek aitortu egin dutela... Denak nahastu dituzte?

— Bere alibia frogatzen ez zuen asmatu, horra –esan zuen Sofia Petrovnak–. Ez duzu kontuan hartzen gaztea dela oraindik, Nataxa.

— Eta zergatik atxilotu dute Alik?

— Ai, Nataxa, bazeneki, jakin, nolako izugarrikeriak esaten zituen ilaran, jende guztiaren aurrean.

Orain, neu ere seguru nago haren mingainarengatik galdu zela Kolia ere.

Nataxa alde egiteko prestatu zen. Agurtzera-koan, oldarrean besarkatu zuen Sofia Petrovna.

— Zer duzu gaur? –galdetu zion Sofia Petrovnak.

— Ezer ez... Segi eserita, ez jaiki, ez da beharrik! Koliaren zein berdina zaren, edo hura zein zure berdina, hobeto esanda... Bihar eskaera aurkeztuko duzu, ezta? Ez duzu iritzia aldatuko? –galdetu zion, Sofia Petrovnari begietara begiratuz-. Eta ez ahaztu F letra 30ean dela; dirua bidali beharko zaio Alik, hutsik egin gabe, xentimorik ez du, eta izebak beldurra du bidaltzeko... Eta zoaz medikuarengana ere, maitea! Mesedez! Zeure antzik ere ez duzu-eta!

— Zertarako medikua... Kolia –esan zuen Sofia Petrovnak, eta malkoz betetako begiak beheratu zituen.

Hurrengo goizean goiz zuzendariaren bulegoan sartu eta, isil-isilik, mahai gaineko beiraren gainean utzi zuen eskaera. Timofeievek irakurri zuen eta, isilik hark ere, buruaz baietz egin zuen. Ohi ez bezalako presaz gauzatu zen. Handik bi ordurako agindua hormatik zintzilik zegoen dagoeneko. Eta handik hiru ordura, kontu-eramaileak kitapena emana zion.

— Utzi egiten gaituzu? Ai, ai, ai; hori ez dago ongi! Zatoz ikusi bat egitera, ez ahaztu zure lagun zaharrak.

Azkeneko aldiz igarotzen zuen korridore hura. «Ikusi arte» esan zien mekanografoei, txirrina jo ondoren, beren Underwood idazmakinak zarata eginez estaltzen zituzten bitartean. «Ondo izan!» erantzun zioten denek batera, Nataxari aspaldi ez zela bezala; areago, bat ondoratu eta gogor estutu zion eskua. Sofia Petrovna oso hunkitu zuen horrek: zein neska bihoztuna, zein jatorra! «Zorte ona izan!» –egin zion oihu Erna

Semenovnak, eta Sofia Petrovnak orduantxe baztertu zuen artikulu hura idatzi zuena Erna Semenovna ez zen beste norbait izan zitekeelako zalantza.

Kalera atera zen; udako zaratetara, oihuetara. Kito lana, kito betirako. Etxera joango zen, baina hori baino lehen Nataxarenera sartu-irten bat egingo zuen. Kale-kantoi guztietan haurrek, oinutsik, ezkila-lore eta bitxilore sortak estutzen zituzten beren behatz izerdi-tuetan. Ederki, lore-saltzaileak eta guzti zeuden. Baina, Kolia espetxean zegoenez edota gurpil kirrinkarien artean norabait joaten ari zenez, munduak ez zuen zentzurik, eta ezin ulertuzkoa iruditzen zitzaion.

Bosgarren solairuraino igo -Jainkoa, egunetik egunera gehiago kostatzen zitzaion eskailerak igo-tzea!-, eta atea jo zuen. Nataxaren aldamenekoak zabaldu zion, esku bustiak mantalean xukatuz.

— Natalia Sergeievna ospitalera eraman dute gaur goizean -esan zion emakumeak xuxurla ozen batean-. Pozoitu egin da. Veronalez. Metxnikov ospitalera.

Sofia Petrovnak atzera egin zuen. Emakumeak danbateko batez itxi zuen atea.

Luze joan zen 17a iritsi arte. Bi 9 eta bi 22 igaro ziren, eta 17a ez zetorren oraindik. Gero, geldiro-geldiro iritsi zen 17a arrastaka, kostata, semaforo bakoitzean luzaro geldituz. Sofia Petrovna zutik zihoan. Haurrekin zihoazen bidaiari guztientzako eserlekuak hartuta zeuden, eta haur batekin zihoan bederatzigarren emakumea igo zenean, inork ez zion lekuri utzi nahi izan.

— Bagoi osoa hartuko dute aurki! -esan zuen oihuka, bastoia zerabilen andre zahar batek-. Hara eta hona ibilian dabilta! Guk besotan erabiltzen genituen haurrak. Eraman zuek ere besotan, ez zarete hilko.

Sofia Petrovnak belaunak dardaratan zituen, ikaragatik, beroagatik, atsoaren garrasiagatik. Atera zen, azkenik. Zergatik ez bazekien ere, inolako zalantzarik ez zuen Nataxa hilik izango zela dagoeneko. Ospitalea distiratsu zegoen bere aurrean, beira guztiak garbi. Atari zuri freskoan sartu zen. Informazioko leihatilaren aurrean ilara zegoen: hiru pertsona. Sofia Petrovna ez zen ausartu ilara egin gabe aurreratzera. Mantal zuri almidoituz jantzitako erizain polit batek ematen zuen informazioa. Ondoan, telefonoaren aurrean, ezkila-lorre sorta bat zuen edalontzi batean.

— Esan, esan! –hasi zen oihuka telefonoan, Sofia Petrovnaren galdera entzunda-. Bigarren solairuan? –eta segidan, telefonoa utzirik–: Frolenko, Natalia Sergeievna, goizeko 4etan hil da, berriro konortea bihurtu gabe. Familiakoa zara? Baduzu gorputegira sartzeko baimena lortzea.

15

19ko arratsaldean Sofia Petrovnak udazkene-ko berokia, berokiaren azpian xal bat, eta eskalapoiak jantzi zituen eta ibaiertzeko pasealekura joan zen ilara egitera. Lehenengo aldiz gau osoa egin behar zuen txandan, ordezkariarik gabe: nork ordezkaturko zuen orain? Ez Nataxa ez Alik ez zeuden dagoeneko.

Sofia Petrovna bakarrik joan zen Nataxaren zerraldoari laguntzera, hilerriraino, hiri osoa igaroz. Egun hartan euri asko egin zuen, eta karrozaren gurpil handiak lokatza zipriztintzen zion aurpegira.

Nataxa hobi batean zetzan, lur horian, Fedor Ivanovitxengandik ez oso urruti. Baina non zeuden Alik eta Kolia? Hura ezin zen ulertu.

Gau osoa egin zuen ibaiertzeko pasealekuan, hasieratik bukaeraraino, karel hotzaren kontra bermatuta. Neva ibaitik hotz heze bat zetorren gora. Orduan ikusi zuen Sofia Petrovnak bizitza osoan lehenengo aldiz eguzkiaren irteera. Okhta ingurutik atera zen, eta bat-batean uhintxo batzuk hasi ziren eratzen ibaian, ibaia ile kontra laztanduko balute bezala.

Goizerako hankak nekeaz hozminduta zeuzkan, ez zituen sentitu ere egiten, eta bederatzietan jendetza espetxeko aterantz oldartu zenean, ez zuen indarrik lasterka egiteko; hankak astun zituen, eskuez helduta jaso beharko zituela iruditzen zitzaion, lekuz aldatzeko.

Oraingo honetan 53. zenbakia zuen. Handik bi ordura, leihatilan dirua eman eta deitura adierazten zuen. Gizonkote lodi logaletsu batek fitxa begiratu eta, ohiko «ez du baimenik» haren ordeaz, «deportatua» erantzun zion. Tsvetkovekin izandako solasaren ondoren, Sofia Petrovna prestatuta zegoen hura bezalako erantzun bat hartzeko, baina erantzun hark durduza eragin zion, hala ere.

— Nora? –galdetu zuen, galdurik.

— Berak idatziko dizu... Hurrengo!

Oinez itzuli zen etxera, tranbiaren zain zutik egotea nekagarriagoa gertatzen zitzaiolako ibiltzea baino. Hautsak bero usaina zuen dagoeneko, beroki astunaren botoiak askatu eta buruzapia zabaldu zuen. Oinezkoek ibiltzea ahaztua balute bezala iruditzen zitzaion: aurretik, ondotik tupust egiten zuten berekin.

Koliak idatziko zion. Berriro jasoko zituen eskutitzak, Sverdlovsketik jasotzen zituen bezala. Leihatilan esan bazioten berak idatziko ziola, berak idatziko zion, inondik ere.

Hurrengo egunetan, ez gosaldurik ez ohea egin gabe, goiz-goizetik lan bila ateratzen zen Sofia Petrovna. Egunkarietan iragarki asko zeuden: «Mekanografoa behar da». Hankak handituta zituen, harria bezala, baina apal joaten zen egun osoan helbide guztietara. Galdera bakarra egiten zioten alde guztietan: errepre-saliaturen bat baduzu? Lehenengoan ez zuen ulertu. «Familiakoren bat atxilotuta», azaldu zioten. Gezurra esateak beldurra ematen zion. «Semea», esan zuen.

Orduan garbi geratu zitzaion ez zuela izango inolako lanpostu ofizialik. Eta inon ez zen izango Sofia Petrovnarentzako lekurik.

Orain gauza eta pertsona guztien beldurra zuen. Beldurra zion atezainari, axolagabe eta, hala ere, bekozkoa jarritz begiratzeko. Beldurra zion etxeko administratzaileari, agurtzeari utzi ziolako. (Dagoeneko ez zen etxebizitzako maizterren ordezkaria; kontu-eramailearen emaztea izendatu zuten bere ordezkari). Suari baino beldur handiagoa zion kontu-eramailearen emazteari. Beldurra zion Valiari. Beldur zen argialetxearen aurretik igarotzeko. Lana aurkitzeko alferrikako ahalegin haien ondoren etxera itzultzen zenean, beldur zen gelako mahai gainera begiratzeko: poliziaren jakinarazpenen bat ez ote zen izango? Dokumentazioa kendu eta deportaziora bidaltzeko ez ote zuten deituko? Txirrin hots bakoitzaren beldur zen: ez ote zizkieten ondasunak konfiskatuko?

Beldurra zuen Aliko dirua bidaltzeko. 30aren bezperan ilarara nekaturik iristen ari zenean, Kiparisova ondoratu zitzaion. Txanda zuenean ez ezik, ia egunero joaten zen ilarara, hango emakumeen bidez berririk ba ote zen, nor deportatu zuten, nor zegoen oraindik han, ordutegia aldatu ote zuten, jakiteko.

—Hobe duzu hori ez egin, hobe ez! –xuxurlatu zion Kiparisovak Sofia Petrovnari belarrira, zertara joan zen esan zionean—. Zure semearen kasua lagunarenarekin lotuko dute eta ez da batere ona izango, 58-11 artikulua, erakunde kontrairaultzaileena... Ez dut ulertzen zertarako behar duzun!

—Baina ez dute galdetzen nork bidaltzen duen dirua –argudiatu zion herabe Sofia Petrovnak—. Norentzat den baizik ez dute galdetzen.

Kiparisovak besotik heldu eta jendearengandik urrutixeago eraman zuen.

— Ez dute galdetu beharrik —erantzun zion ahots beheran—. Dena dakite.

Begiak handi-handiak zituen, gaztaina kolorekoak, lo egin gabeak.

Sofia Petrovna etxera itzuli zen.

Biharamunean ez zen jaiki ohetik. Ez zeukan zertarako jaikirik. Ez zuen soinekoa, galtzerdiak janzteko, hankak ohetik jaisteko gogorik. Gelako desordenak, hautsak ez zuten gogaitzen. Beude! Ez zuen goserik sentitzen. Ohean etzanda zegoen, ezertan pentsatu gabe, ezer irakurri gabe. Eleberriek aspaldidanik ez zuten entretenitzen: une batez ere ezin zuen bere bizitza ahaztu eta beste batenean jarri arreta. Egunkariak halako beldur lauso bat eragiten zioten: *Gure bidea* hormako berripapereko ale hartakoak bezalakoak ziren haietan azaltzen ziren hitz guztiak. Aldian behin manta eta maindirea zabaldu eta bere hankei begira egoten zen: ikaragarriak zeuden, hazita, urez beteta bezala.

Argiak hormatik alde egin eta gaua hasi zenean, Nataxaren gutunaz gogoratu zen. Bururdipean zeukan oraindik. Berriro irakurtzeko gogoa sartu zitzaion, eta ukalondo baten gainean altxatuz, atera egin zuen gutun-azaletik:

Sofia Petrovna maitea! —zioen gutunak—. Ez egin negarrik niregatik; nire beharrik inork ez du, nolanahi ere. Honela hobeto nago. Gerta daiteke gauza guztiak konpontzea oraindik eta Kolia etxera itzultzea, baina niri ez zait indarrrik geratzen gauzak konpondu arte zain egoteko. Une honetantxe ez dut ulertzen Sobietar Gobernua. Baina zuk, maitea, segi bizirik, etorriko da paketeak bidali ahal izango dizkiozun garaia, eta orduan zure beharra izango du.

Bidali txangurrua, kontserbak; gustatzen zitzaizkion. Musu handi bat zuretzat; eskerrak den-denagatik, eta baita bile-ran esan zenuenagatik ere. Sentitzen dut niregatik sufritu duzunagatik. Nire zamaua egon dadila zure etxean, hala nitaz gogoraraziko zaitu. Gogoratzen zara nola joaten ginen elkarrekin zinemara? Kolia itzultzen denean, jar iezaiozu mahaian, kolore alaiak ditu. Esaiozu inoiz ez nuela berari buruz ezer txarrik sinistu.

Sofia Petrovna berrito sartu zuen gutuna burur-dipean. Baina ez ote zuen puskatu beharko? Oraingo Sobietar Gobernuaz hitz egiten zuen. Zer gertatuko ote zen gutun hura aurkitzen bazuten? Koliaren auzia Nataxarenekin lotuko zuten... Gorde ote zezakeen? Zeren Nataxa hilda baitzegoen.

16

Hiru hilabete joan ziren, gero beste hiru; negua iritsi zen, urtarrila, Kolia atxilotu zuteneko urteurrena. Handik hilabete batzuetara Alikén atxilotzearen urteurrena izango zen, eta haren ondoren Nataxa hil zeneko urteurrena segituan.

Nataxaren heriotza egunean Sofia Petrovna haren hilobia ikustera joango zen. Baina Koliaren atxiloteta egunean nora joanik ez zuen. Ez zekien non zegoen.

Koliaren gutunik ez zegoen. Sofia Petrovnak egunean bost, hamar aldiz miatzen zuen postontzia. Postontzian izaten ziren, noizean behin, kontu-eramailearen emaztearentzako egunkariak edo Valiari bere miresle ugariak bidalitako postalak, baina Sofia Petrovnarentzako gutunik oraindik batere ez. Bigarren urtean ere ez zuen jakin semea non zegoen edo zer zen hartaz. Hilik ote zen? Burutik pasa ere egin ote zekiokeen Kolia bizirik ala hilik zen jakingo ez zuen egun bat iritsi behar zuenik?

Bazuen enplegua berriro. Koltsovek *Pravdan* argitaratuko artikulu batek salbatu zuen goseak hil-

tzetik. Artikulu hura –inolako arrazoirik gabe sobietar zintzoei kalte egiten zieten kalumniatzaileei eta jende guztiz beldurtiei buruzko artikulu bikain bat–, argitaratu eta egun gutxira, liburutegi batean lan egiteko hartu zuten Sofia Petrovna; ez langile plantillan, plantillaz kanpo baizik, baina hartu egin zuten. Katalogorako fitxak idatzi behar zituen, liburuzainen letra bereziaz: egunean lau ordu, hilean 120 errublo. Lan berri hartan, Sofia Petrovna inorekin ez hitz egin ez ezik, egunon ere ez zion inori ematen eta agurtu ere ez inor. Liburuz betetako mahaiairen gainera makurturik, bere betaurrekoekin, eta ile zuria betaurrekoen gainera erortzen zitzaiola, bere lau orduak mahaian ematen zituen, ondoren jaiki, fitxak pilatxotan jarri, gomazko puntazko bastoia hartu –aulkitik gertu edukitzen zuen beti–, fitxak armairu batean itxi, eta geldiro ateratzen zen, inori begiratu gabe.

Dagoeneko zutabe oso bat txangurru-kontserba pilatzen zen Sofia Petrovnaren gelako arasa gainean; bihiak karraska egiten zuen oinpean, eta hala ere, lanaren ondoren, egunero joaten zen janari gehiago eta gehiago erostera. Kontserbak, gurin urtua, sagar lehortuak, txerri-urdaia erosten zuen; horietatik guztietatik nahi adina zegoen dendetan, baina gerta zitekeen Koliak gutuna idazten zuenean haietakoren bat edo beste falta izatea. Eta zenbaitetan, goizean goiz, lanera joan aurretik, Obodny Kanalera joaten zen Sofia Petrovna, merkatutxora. Gogorki tratuan jardun ondoren, belarribabesdun larruzko txano bat eta artilezko galtzerdiak erosten zituen. Arratsean, dagoeneko batere berotzen ez zuen bere gela nahaspilatuan eserita, zapi zaharrez zakuak eta zakutoak josten zituen. Paketeren bat bidali behar zuenerako beharko zituen. Ohe azpitik tamaina desberdinetako xafla-oholezko kaxak ageri ziren.

Orain jan ere ia inoiz ez zuen egiten; tea ogiarekin edan baizik ez. Ez zuen jateko gogorik, eta dirurik ez zuen, gainera. Paketeetarako janariak garestiak ziren. Dirua aurreratzeko, astean behin baizik ez zuen pizten berogailua. Horregatik, etxean zegoenean udako beroki zahar bat eta eskumutur-zorroak erabiltzen zituen beti. Beretzat hotzegi egiten zuenean, oheratu egiten zen. Alferrik zen gela hotz hura jasotzea; edozeinetara ere hotz egiten zuen eta ez zen eroso; eta Sofia Petrovna dagoeneko ez zuen erraztatzen, eta Koliaren liburuei, iratiari eta engranajeari baizik ez zien hautsa kentzen.

Ohean etzanda, Stalin kamaradari idatzi behar zion hurrengo eskutitzaz gogoeta egiten zuen. Kolia eraman zutenez gero, hiru eskutitz idatziak zizkion dagoeneko Stalin kamaradari. Lehenengoan Koliaren auzia berrikusteko eskatzen zion, eta utz zezatela aske, Koliak ezeren errurik ez zuelako. Bigarrenean Kolia non zegoen jakinarazteko eskatzen zuen, zegoen lekura joan eta hil baino lehen behin behintzat ikusi ahal izateko. Hirugarrenean, gauza bat bakarra esateko erregutzen zuen: bizirik ala hilik zegoen? Baina ez zen erantzunik izan. Lehenengo gutuna postontzi batean bota zuen, besterik gabe; bigarrena erregistratu egin zuen, eta hirugarrena hartu izanaren adierazpena eskatuz bidali zuen. Handik egun batzuetara iritsi zitzaien jaso izanaren agiria. «Hartzailearen sinadura» marran, ezin ulertuzko zerbait jartzen zuen, eta letra xehez: «...erian».

Nor ote zen Erian hura? Eta Stalin kamaradari gutuna eman ote zion? Zeren «Eskura. Pertsonala» jartzen baitzuen azalean.

Hiru hilabetez behin, erregulariki, Sofia Petrovna lege-kontsulta batera joaten zen. Abokatuekin hitz

egitea gauza atsegina zen; adeitsuak ziren, ez fiskalak bezala. Han ere ilara izaten zen, baina hutsa, orduren bat baino gehiago ez. Sofia Petrovnak egonarriz itxaroten zuen, korridoretxoan aulki batean eserita, bi eskuak eta kokotsa bastoian pausatuta. Baina alferrik itxaroten zuen. Edozein abokaturengana jota ere, denek azaltzen zioten adeitasun handiz, ezinezkoa zela, tamalez, bere semeari laguntzea. Haren auzia auzitegi-
ra eraman izan balute...

Behin, Kolia atxilotu eta urtebete, hilabete bat eta hamaika egun geroago zehazki, Kiparisova azaldu zen Sofia Petrovnaren gelan. Atea jo gabe sartu zen, eta aulki batean eseri zen, nekez arnasa hartuz. Sofia Petrovnak harrituta begiratu zion: Kiparisova beldur zen Ivan Ignatievitxen kasua Koliarenarekin lotuko ez ote zuten, eta horrexegatik behin ere ez zen joaten Sofia Petrovnarenera. Eta, bat-batean, etorri, eseri eta hantxe zegoen eserita.

— Askatzen ari dira —esan zuen Kiparisovak ahots erlastuz—; jendea askatzen ari dira. Neuk ikusi dut gaur, neure begiez: askatu duten horietako bat bere dokumentuen bila zihoan. Ez zegoen argal; aurpegia oso zurbil, hori besterik ez. Inguratu dugu eta galdezka hasi gatzazkio: «zer, zer moduz han?» «Hainbestean», esan du.

Kiparisovak Sofia Petrovnari begiratzen zion. Sofia Petrovnak Kiparisovari.

— Hori, ni banoa —jaiki zen Kiparisova—. Fis-kaltzarako ilaran nago. Ez etorri nirekin, mesedez, korridorean inork elkarrekin ikus ez gaitzan.

Askatzen ari dira. Batzuk askatzen ari dira. Burdinazko atetik atera eta etxera itzultzten dira. Orain Kolia ere askatuko dute beharbada. Txirrina entzun eta Kolia sartuko da. Edo ez, txirrina jo eta postaria sartuko

da: Koliaren telegrama. Kolia ez baitago hemen, urruti baizik. Bidetik bidaliko du telegrama.

Sofia Petrovna eskaileretara atera eta postontziaren atea zabaldu zuen. Hutsik. Barrena hutsik. Sofia Petrovna minutu batez egon zen haren horma horiari begira, bere begiradak horma hartatik gutun bat aterarazi behar zuela espero balu bezala.

Gelara itzuli eta haria orratzaren zuloan sartzeko astia ozta-ozta izan zuen (hurrengo zakua josten ari zen); inork jo gabe bere gelako atea zabaldu zen, eta kontu-eramailearen emaztea eta haren atzean etxeko administraria agertu ziren sarreran. Sofia Petrovna jaiki egin zen, bizigaiak bere atzean ezkutatuz. Ez erizainak eta administrariak ez zuten agurtu.

— Ikusi! —esan zuen bertatik erizainak, petrolio-sua eta argiontzia erakutsiz—. Begiratu ongi: sukalde oso bat antolatu du hemen. Kedarra, zikinkeria; sabai osoa kedarrez bete du. Etxearen arreta hausten du. Ez du sukaldean prestatu nahi janaria, besteekin batera, ikusten duzu; mespretxatu egiten gaitu sistematikoki petrolio ebasten zigula frogatu genuenez gero. Semea *lagerretan* du, etsaia zela frogaturik, eta berak ere ez du lan finkorik; elementu susmagarria da.

— Zuk, Lipatova andrea —esan zuen etxeko administratzaileak, Sofia Petrovnarengana biratuz— atera itzazu zure gauzak oraintxe bertan hemendik sukaldera. Poliziarengana salatuko zaitut, bestela...

Alde egin zuten. Sofia Petrovnak petrolio-sua, argiontzia, bahea eta lapikoak sukaldera eraman zituen, lehengo lekura; ondoren ohean etzan eta ahots goran negar egiten hasi zen. «Ezin dut gehiago —esaten zuen ozen—, ezin dut gehiago». Eta berriro, ozenki, kontrolik gabe, hitzak ebakiz: «E-zin dut ge-hia-go, e-zin dut ge-hia-go». Hainbesteko konbentzimenduaz, hain

jarraituki esaten zituen hitz horiek, non aurrean beste norbait ezetz, hori eta gehiago pairatzeko indarra bazuela esaten ari balitzaio bezala baitzirudien: «Ez e-zin dut ge-hia-go, e-zin dut ge-hia-go».

Poliziaren emaztea ikustera etorri zitzaion.

— Ez negar egin –xuxurlatu zion, Sofia Petrovna tapaki batez estaliz–, entzun zer esan behar dizudan! Ez dira legearen arabera jokutzen ari. Nire senarrak dio ez zaituztela erbesteratu, eta horrek esan nahi duela inork ez duela eskubiderik zu pertsegitzeko. Ez negar egin, beraz! Senarrak dio jende asko ari direla askatzen; Nikolai Fedorovitx aurki itzuliko da, Jainkoak nahi badu... Alaba ezkontzera doakio, itxura denez, eta amaxori zure gela sartu zaio buruan. Baina zuk ez alde egin, eta kito. Amaxok bere alabarentzat nahi du, eta administratzaileak bere amorantearentzat. Eta orain borrokan ari dira biak... Beraz, ez egin negarrik! Benetan esaten dizut.

17

Neguan, gauez, leiho bikoitzari esker, kaleko zarata ia ez zen sartzen gelan. Baina Sofia Petrovna apartamentuko zaratatxoak eta kurrinkak entzunez igarotzen zuen gau osoa. Saguak etengabe saiatzen ziren aztarrika, Koliarentzat erositako urdaira iritsi nahiko balute bezala. Korridorean oholek kurrinka egiten zuten eta, ingurutik kamioiren bat igarotzen zenean, sarrerako ateek dardara egiten zuten. Kontu-eramailearen gelan, ordulariak solemneki jotzen zuen hamabost minutuz behin.

Kolia berehala itzuliko zen. Gau hartan Sofia Petrovna zalantzarik ez zuen Kolia berehala itzuliko zela. Hala zioen Kiparisovak, eta Degtiarenko poliziak... Nahitaez itzuli behar zuen, itzultzen ez bazen hil egingo baitzen bera. Errugabeak askatzen hasi baziren, Kolia aurki askatu behar zuten seinale. Ezin zitekeen beste batzuk askatu eta bera ez askatzea. Kolia itzuliko zen, eta orduan bai lotsatuko zela erizaina! Eta etxe-ko administratzailea. Eta Valia. Aurpegira begiratzen ere ez ziren ausartuko. Kolia haiei agur esateko ere ez zen geldituko. Horma baten aurretik bezala igaroko

zen haien aurretik. Itzuli bezain laster emango zioten erantzukizun handiko karguren bat, eta baita dominaren bat ere! Egin zioten hobenaren ordaina emateko. Domina bat erabiliko zuen bularrean, baina erizainari eta Valiari ez zien diosalik egingo...

Sofia Petrovnak goiz aldera lo hartu zuen, eta berandu esnatu zen, hamarrak aldera. Esnatu zenean, gau hartan gauza onen bat gertatu zela gogoratu zen, Koliari buruz gauza onen bat jakin zuela. A, bai, espetxetik jendea ateratzen hasi ziren. Eta, askatzen hasi baziren, Kolia aurki itzuliko zela esan nahi zuen. Eta baita Alik ere. Eta gauzak ongi joango ziren, lehen bezala izango zen dena. Sofia Petrovnari gogoeta iheskor bat igaro zitzaion burutik: Nataxa ere itzuliko zen. Ez, Nataxa ez zen itzuliko, baina Kolia, Kolia dagoeneko etxera bidean zegoen beharbada, haren trena geltokian sartzen ari zen beharbada.

Egun hartan liburutegitik etxerakoan, bigarren eskuko saltegi baten erakusleihoaren aurrean gelditu zen Sofia Petrovna, eta luzaro egon zen begira. Erakusleihoan, Leika argazki-kamera bat zegoen ikusgai. Koliak beti izan zuen argazki-kamera baten ametsa. Polita izango litzateke zerbait saldu eta Koliari, etortzen zenerako, Leika bat erostea. Koliak bizkor ikasiko zuen argazkiak egiten, hain trebea eta hain buruargia izanda.

Sofia Petrovnak umore onez, alai igaro zuen egun osoa. Jateko gogoa eta guzti izan zuen, egun askoan lehenengo aldiz. Sukaldean eseri eta patatak zuritzen hasi zen. Koliari argazki makina bat erosten bazion, arazo bat izango zen: non errebelatu argazkiak? Erabat ilun egongo zen gela bat beharko zuen. A, bai, egurtegian, noski. Egurra zegoen, baina garbitu zitekeen lekua. Bazuen egurraren parte bat poliki-poli-

ki bere gelara eramatea eta Degtiarenkoren emazteari karga bat hartzeko eskatzea; hark ez zion ezetz esango; eta hala lekua hustuko zen. Koliak denei egingo zizkien argazkiak: Sofia Petrovnari, bikiei, ezagutzen zituen neskei; Valiari eta erizainari, haiei ez, ez horixe. Argazki bilduma oso bat osatuko zuen, baina Valia eta erizaina ez ziren egongo bilduma hartan.

— Egurtegian egur asko daukazu? —galdetu zion Sofia Petrovnak Degtiarenkoren emazteari, sukaldean erratz baten bila azaldu zenean.

— Hiru karga inguru —erantzun zion.

— Zuri argazkiak egitea gustatzen zaizu? Niri, gaztea nintzenean, asko gustatzen zitzaidan, argazkilari on batek eginda, jakina... Badakizu zer? Kolia askatu dute.

— Bai? —egin zuen oihu Degtiarenkoren emazteak, eta erratza askatu zuen—. Horra, eta zu hainbeste sufritzen!

Bi masailetan musu eman zion Sofia Petrovnari.

— Telegramaren bat edo eskutitzen bat bidali du?

— Eskutitza. Oraintxe jaso dut. Zertifikatua —erantzun zion Sofia Petrovnak.

— Ba, ez diot entzun postariari iristen. Bero-ontzi hauekin gorra bihurtzen zara.

Sofia Petrovna bere gelara joan zen, eta sofan eseri zen. Bakarrik egon beharra zuen, esandakoagatik pausatu, esandakoa ulertu. Kolia askatu dute. Kolia libre utzi dute. Emakume zahar, zimurtu, ile zuritu gris-berdexka, buruzuri bat ari zitzaion ispilutik begira. Ezagutuko ote zuen Koliak, itzultzen zenean? Ispilua-ren barreneko aldera arretaz begira egon zen, harik eta bere aurrean dena hegan hasi eta egiatzko sofa non

zegoen eta haren ispilatzea non zegoen bereizteko ez-gauza bihurtu zen arte.

— Badakizu, semea askatu egin dute. Espetxetik –esan zion liburutegian berekin batera mahai berean fitxak kopiatzen zituen enpleguari.

Hark orain arte inoiz ez zion hitz bat bera ere entzun Sofia Petrovnari, eta Sofia Petrovnak hura nola deitzen zen ere ez zekien. Baina bere xarmadura errepikatu beharra zuen.

— Hara! –erantzun zion enpleguak. Emakume gizen, narras, ilez eta zigarrokin-errautsez bete bat zen-. Zure semeak ez zuen ezeren errurik, seguru asko; eta aske utzi dute. Hemen, zerbaitengatik ez bada, inork ez dute atxilotzen... Eta luzaro egon al da barruan zure semea?

— Urtebete eta bi hilabete.

— Ba, orduan, orain ohartu dira eta askatu egin dute –esan zuen emakume gizenak, eta zigarroa utzi eta idazten hasi zen berriro.

Arratsean, Degtiarenko poliziak Sofia Petrovna-rekin topo egin zuen korridorean, eta zorionak eman zizkion.

— Ospatu egin behar dugu –esan zion, bostekoa emanez, irribarre zabal batez-. Eta noiz etorri behar du gure Nikolai Fedorovitxek ama ikustera?

— Hilabete bat edo bi lantegian geratuko da lanean, gero Krimeara joango da atsedetera; behar ditu oporrak! Eta orduan etorriko da. Edo neu joango naiz, beharbada, ikustera –erantzun zion Sofia Petrovnak, zein erraz hitz egiten zuen bera ere harrituta.

Pozik eta urduri zegoen aldi berean, eta oinek ere bizkorrago zerabilten. Une oro zuen norbaiti esateko gogo: «Kolia askatu dute. Badakizu? Kolia libre utzi dute!». Baina ez zuen nori esanik. Arratsaldean

dendara joateko atera zen, ogi bila, eta horretan argitaletxeko kontu-eramaile adeitsua topatu zuen. Egun bat lehenago ikusi izan balu, kalearen beste aldera aldatuko zatekeen, zeren argitaletxeko lana gogoratzen zion guztiak min ematen baitzion. Oraingo honetan, ordea, irribarre adeitsu bat egin zion. Hark galaniaz agurtu zuen, eta segituan galdetu zion:

— Izan al duzu gure berririk azkenaldi honetan? Timofeiev atxilotu dute.

— Zer? –txunditu zen Sofia Petrovna–. Bera ez zen bada... sabotatzaile guztiak... salatu zituen...

Kontu-eramaileak soinak altxatu zituen.

— Ba, oraingo honetan bera salatu du norbaitek...

— Ni, berriz, oso pozik nago, badakizu –esan zuen presaka Sofia Petrovna–. Semea askatu dute.

— Hara! Zorionak. Ez bainekien zure semea atxilotu zutenik.

— Bai, atxilotu zuten, baina orain askatu egin dute –esan zuen Sofia Petrovna– pozik, eta kontu-eramailea agurtu zuen.

Etixerakoan, postontzian begiratu zuen, ohartu ere gabe. Hutsik. Ez zegoen eskutizik. Bularra estutu zitzaion, beti bezala, postontzia hutsik ikusita. Urte osoan lerro bat ere ez. Ezinezkoa ote zen, bada, ezkutu eskutiz bat bidaltzea? Urtebete eta bi hilabete haren berririk gabe. Hil egin ote zen? Bizirik ote zen?

Ohean etzan eta, zergatik ez zekiela, lorik ez zuela egin behar sentitu zuen; Luminal hartu zuen, dosi bikoitza. Eta lo hartu zuen.

18

— Gaur berriro jaso dut eskutitza –esan zuen Sofia Petrovnak sukaldean biharamun goizean–. Pentsa, fabrikako zuzendariak bere laguntzaile izendatu du nire semea. Bere eskuin eskua. Batzorde sindikalak leku bat erosi dio Krimeara joateko; han izadia oso joria da; gaztetan izan nintzen. Eta itzultzen denean, ezkondu egin behar du. Gazteria komunistako neska batekin. Ludmila du izena; izen polita, baietz? Nik Miloxka deituko diot. Urte osoa itxaron dio Koliari, beste proposamen asko izanagatik ere. Koliari buruz inoiz ez du gauza txarrik sinistu. –Sofia Petrovnak garaipen-begirada bat egin zion bere sutontziaren ondoan zutik zegoen kontu-eramailearen emazteari–. Eta orain ezkondu egingo dira, Krimeatik itzuli bezain laster.

— Hortaz, bilobak zaintzera aurki –esan zion Degtiarenkoren emazteak.

Erizainak bekainak mugitu ere ez zuen egin. Baina handik minutu batera, Sofia Petrovna, bere gelara gatz bila joan eta berriro sukaldera itzuli zenean, «Egunon!» esan zion erizainak, egun horretan lehenengo

aldiz ikusiko balu bezala. Lehenengo «egunona» urte oso baten ondoren.

Sofia Petrovna opor-eguna zuen, eta gela jasotzea erabaki zuen. Kolia oraindik aske ez bazegoen ere, edozein unetan askatu behar zuten. Etorriko zen, eta hura nahaspila gelan. Ispiluan begiratu labur bat egin zuen, eta ilea berriro kizkurtu behar zuela erabaki zuen. Bestela txima zuriak zerabiltzan zintzilik. Emakumeak bizitzako azkeneko eguna arte zaindu behar du bere burua. Ohe azpikik kaxa batzuk atera eta sua pizteko erabili zituen. Xafla-ohola oso ongi erretzen da, txinparta alaiak eginez. Sofia Petrovna gogoeta egin zuen: non sartu kontserbak, leiho-aran barreatuta egon ez zitezen? Eta zertarako hainbeste pote? Beharra denean, beti izaten da dendaren bat, non erosi.

Leihoak eta lurra garbitzea erabaki zuen. Hantaketa mina zuen, beti bezala, eta gerriko mina, baina zer egin, jasan egin behar. Zaku batzuk urratu zituen, traputarako.

Ura berotu bitartean, alfonbra astindu behar zen. Sofia Petrovna alfonbra eskailera-burura atera zuen. Postontziaren ziriztuetatik gauza ilun bat ageri zen. Sofia Petrovna, nekez ibiliz, giltzaren bila joan zen.

Gutun bat zegoen postontzian. Azala arrosa-kolorekoa zen, latza. Sofia Petrovna *Lipatova*, irakurri zuen. Bere izena idazkera ezezagun batez zegoen idatzita. Eta ez helbiderik, ez zigilurik; ezer ez.

Alfonbra eskailera-buruan ahazturik, oldar batean sartu zen bere gelan. Leiho ondoan eseri eta gutun-azala zabaldu zuen. Norena ote zen?

Amatxo maitea! –zegoen idatzita eskutitzean, Koliaren letraz, eta Sofia Petrovna bertan behera magalean utzi zuen gutuna, letra hark itsuturik–. *Amatxo maitea, bizirik nago, eta pertsona jator bat arduratu da es-*

kutitz hau zuri eramateko. Zer moduz zaude, non daude Alik eta Natalia Sergeievna? Denbora guztian gogoratzen zaituztet, nire maite horiek. Dagoeneko lehengo etxean ez baina beste nonbait bizi zaitezkeela pentsatze hutsak beldurtu egiten nau. Amatxo, zuregan ditut nire itxaropen guztiak. Nire kondena Sashka Yartseven deklarazioetan oinarritzen da; gogoratzen zara nire eskolako gelako mutil hartaz? Sashka Yartsevek deklaratu zuen erakunde terrorista batean sartu ninduela. Eta nik ere aitortu egin behar izan nuen. Baina ez da egia, inoiz ez genuen inolako erakunde terroristarik izan. Yerxov epaileak joka eta ostikoka erabili ninduen, amatxo, eta orain belarri batetik gaizki entzuten dut. Eskaera asko bidali ditut hemendik, baina erantzunik ez da izan. Idatzi zuk, ama zaharra zarenez, eta adierazi gertatutakoak gutunean. Badakizu ederki eskola bukatu genuenetik behin ere ez nuela ikusi Shashka Yartsev, hura beste institutu batean zegoelako. Eta eskolan inoiz ez ginen lagunak izan. Hura ere jo egingo zuten, seguru asko. Musu handi-handi bat zuri, eta goraintziak Alik eta Natalia Sergeievnari. Mugitu bizkor, amatxo, hemen ezin baitaiteke luzaro bizirik iraun. Musu handi bat. Zure seme Kolia.

Berokia gainean hartu, kapela buruan sartu eta, trapu zikina eskuan zuela, Sofia Petrovna lasterka abiatu zen Kiparisovarenera. Beldur zen haren apartamentuaren zenbakia ahaztu eta aurkituko ez ote zuen. Gutuna estututa zeraman patrikan. Ez zuen bastoia hartu, eta hormetan bermatuz zihoan lasterka. Hankek huts egin zioten: presaka bazihoan ere, Kiparisovarenetik urruti zegoen oraindik.

Azkenean ate nagusitik sartu eta, bere azkene-ko indarrez baliatuz, hirugarren solairuraino iritsi zen. Han zen, ustez. Bai, hantxe. «M.E. Kipariso: txirrin bat».

Neskato batek zabaldu zion, eta segituan ihes egin zuen. Korridore ilun batetik jarraituz, armairu artean, Sofia Petrovnak ate bat zabaldu zuen, menturara, eta barrura sartu zen.

Kiparisova, berokia jantzita eta eskuan bastoi bat zuela, kutxa baten gainean eserita zegoen gelaren erdian. Gela hutsik zegoen erabat. Ez aulkirik, ez mahairik, ez oherik, ez errezelik, telefono bat lurrean, leiho ondoan, besterik ez. Sofia Petrovna kutxaren gainean eseri zen, emakume zaharraren ondoan.

— Deportatu egin behar naute –esan zion Kiparisovak, Sofia Petrovna agertu zelako harritu gabe, eta agurrik esan gabe—. Bihar goizean abiatuko naiz. Denden-dena saldu dut, eta bihar banoa. Senarra deportatu dute dagoeneko. Hamabost urterako. Maletak prestatu ditut dagoeneko, ikusten duzu. Ez dut oherik, ez dut non lo eginik, kutxa honetan eserita igaroko dut gaua.

Sofia Petrovnak Koliaren eskutitza luzatu zion.

Kiparisova luzaro egon zen irakurtzen. Ondoren, eskutitza tolestu eta Sofia Petrovnaren berokiko patrikan sartu zuen.

— Zatoz komunera, hemen telefono bat dago –xuxurlatu zion—. Telefono baten ondoan ezin daiteke ezertaz hitz egin. Xafla berezi bat jartzen dute telefonoan eta handik aurrera ezin da ezertaz hitz egin; hitz bat eta zentrolean entzun dute.

Kiparisovak Sofia Petrovna komunera eraman zuen, ateari maratila eman eta bainuontziaren ertzean eseri zen. Sofia Petrovna haren ondoan eseri zen.

— Idatzi duzu salaketa?

— Ez.

— Ez idatzi! –xuxurlatu zion Kiparisovak, bere begi handiak, begi-zulo horiz inguratuak, Sofia Petrovnaren aurpegira hurbilduz—. Ez idatzi, zure semearen

onerako. Halako salaketa bat garesti ordainaraziko dizuete. Zuri eta berari. Idatzi al daiteke, bada, instrukzio-epaile batek norbait jo duela? Pentsatu ere ezin da egin, eta are gutxiago idatzi. Ahaztu egin zaie zu deportatzea; salaketa bat idazten baduzu, gogoratu egingo dira. Eta zure semea urrutiago bidaliko dute... Noren bitartez helarazi dizute gutun hau? Eta non daude lekukoak?... Eta nola frogatu?... –Ero begiak jarritz ibili zen komunean hara-hona-. Ez, Jainkoarren, ez idatzi ezer ere.

Sofia Petrovnak eskua askatu zuen, atea zabaldu eta alde egin zuen. Zalapartan itzuli zen etxera, baina geldiro. Giltzaz itxita geratu behar zuen, eseri eta pentsatu. Tsvetkov fiskalarenera joan? Ez. Abokatua-renera? Ez.

Gutuna patrikatik mahai gainera atera zuen, berokia erantzi eta leiho ondoan eseri zen. Iluntzen ari zuen, eta leiho osteko ilunantzean argiak piztuta zeuden dagoeneko. Udaberria bazetorren; zein berandu iluntzen zuen dagoeneko. Erabaki beharra zegoen, pentsatu beharra zegoen; baina Sofia Petrovna eserita zegoen eta ez zuen ezertan pentsatzen. *Yerxov epaileak joka erabili ninduen....* Koliak gainean marratxo bat eginez idazten zuen «i» letra, lehen bezala. Betidanik idatzi izan zuen horrela, txikitan Sofia Petrovnak puntu bat jarritz idazten irakatsi bazion ere. Berak irakatsi baitzuen idazten. Orri marradun batean.


Erabat ilunduta zegoen. Sofia Petrovna argia piztera jaiki zen, baina ez zuen aurkitzen etengailua. Non zegoen etengailua gela honetan? Ezin gogoratu gela honetan etengailua non zegoen. Hormetan bilatu zuen, haztatuz, garbiketa egiteko mugitutako altzariekin estropezu eginez. Aurkitu zuen. Eta segituan ikusi zuen

eskutitza. Zimurtuta, marruskatuta, mahai gainean bihurrituta.

Sofia Petrovnak tiraderatik pospoloak atera zituen. Bat piztu eta eskutitzari su eman zion ertz bate-tik. Erretzen ari zen, ertza poliki-poliki zimurtuz, hodi baten gisa biribilkatuz. Erabat biribilkatu zen eta beha-tzak erre zizkion.

Sofia Petrovnak sua lurrera bota eta zapaldu egin zuen.

1939 Azaroa–1940 Otsaila
Leningrad



Liburu hau 2019ko otsailaren 8an sartu dugu maketan. 1937ko egun berean Evgenia Ginzburg irakasle eta militante komunista SESBeko Alderdi Komunistatik egotzi zuten. Otsailaren 15ean atxilotu zuten ekintza kontra-iraultzaileak egotzita. Bere inguruko gehienek ez bezala ez zituen epaiketako akusazioak onartu. Moskuko Lefortovo eta Butürka presondegietara bidali zuten lehenik eta Kolymako lan esparrura bidali zuten gero. 1955an askatu eta errehabilitatu zuten. 18 urteko *via crucis* horren ostean komunista izaten jarraitu zuen eta *Zorabioa* argitaratu zuen klandestinoki SESBen 1960ko hamarkadan, eta Italia, Frantzia eta Alemaniako argitaletxe garrantzitsuetan.

